# BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUTEGIA

**124/1993 FORU DEKRETUA, apirilaren 27koa, Diputatuen Kontseiluarena, balio erantsiaren gaineko zergaren araudia onartzen duena.**

**(ALHAO, 55. zk., 93-5-21ekoa)**

Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzazko Foru Dekretuaren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araupeketa berria onartu zen. Araupeketa horrek Europako Ekonomi Elkarteko elkartekideen arteko zerga mugak kentzeak ekarri duen legedi berria Arabako Zerga Sistemari erantsi dio.

Orain beharrezko da Araugintzazko Foru Dekretu hori garatzen duen araudia onartzea.

Horretarako, abenduaren 22ko 1.072/1992 Araugintzazko Foru Dekretuak (zeinen bidez Kupoaren Bitariko Batzordeak Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko Ekonomia-Itunea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legeari eta Zerga Bereziei buruzko Legeari egokitzeari buruz hartu duen testua onartzen den) eta abenduaren 30eko 1.096/1992 Araugintzazko Foru Dekretuak adierazitakoa kontuan hartuko da.

Aurrekoagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak eskaturik eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

**E R A B A K I T Z E N   D U T :**

## I. TITULUA
## ZERGA EGITATEAREN MUGAKETA

### I. KAPITULUA
### BARNEKO ERAGIKETAK

**1. artikulua.- (13) (47) Saltzaileak zeharka esku hartzea bidalketan edo garraioan.**

Zergaren Arauaren 8. Hiru artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ondasunak saltzaileak edo haren kontura zeharka igorri edo garraiatu dituela ulertuko da. Zehazki, egoera hori gertatzen dela ulertuko da balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunari buruzko 2006/112/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 5 bis artikuluan araututako kasuetan.

**1 bis artikulua.- (47) Interfaze digital baten bidez emandako ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak.**

Zergaren Arauaren 8 bis eta 166 bis artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, enpresaburu edo profesional batek ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea errazten duela ulertuko da, hala badagokio, interfaze digital bat erabiliz, Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 5 ter eta 54 ter artikuluetan, hurrenez hurren, arautukako inguruabarrak betetzen direnean. Erregelamendu horrek balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunari buruzko 2006/112/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu.

## II. KAPITULUA
## ELKARTE BARNEKO ERAGIKETAK

**2. artikulua.- Garraiagailu berriak (7)**

Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzazko Foru Dekretuak -aurrerantzean Araua-, zeinen bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araupeketa berria onartzen den, 13. artikuluaren 2. zenbakiak aipatzen dituen garraiagailuak berritzat joko dira ondoren adierazten diren baldintzetatik baten bat betetzen baldin badute:

**1.** Garraiagailua lehen aldiz zerbitzuan jarri den egunetik hiru hilabete igaro baino lehen egiten bada haren ematea edo, motorez dabilen lurreko ibilgailuak direnean, egun horren ondorengo sei hilabete aurretik.

Garraiagailu bat lehen aldiz zerbitzuan jartzen den eguna Elkarte barneko behin-betiko zein behin behingo lehen matrikulazio-eguna dela ulertuko da, eta, horren ezean, garraiagailua erabiltzeak sortarazten duen noiz-nolako erantzukizun zibila babesteko aseguru hitzarmenik zaharrenean agertzen dena edo zuzenbidean onartzen den beste frogabideren batetik datorrena, erabilera egoerarena barne, izango da kontutan hartuko dena.

**2.** Lur gaineko ibilgailuen kasuan 6.000 baino kilometro gutxiago ibilita izatea, itsasuntziak ehun baino ordu gehiagoz ez nabigatu izana eta aireuntziak berrogei baino ordu gehiagoz ez hegan egin izana.

Hori hala dela zuzenbidean onartzen den edozein frogabidez bermatuko da eta bereziki garraiagailuek izaten dituzten kontagailuen bidez, kontagailuak manipulatu diren ala ez aztertu ahal delarik.

**3. artikulua.- Tributu ordainketa zergaren aplikazio-lurraldean egitea aukeratzea.**

**1.** (21) Zergaren Arautegiko 14. artikuluko Bat idatz zatiak barruan hartzen dituen pertsona edo erakundeek zergari lotzea aukeratu ahal izango dute Europar Batasuneko beste herrialde batean egindako erosketei dagokienez, nahiz eta urte horretan edo aurrekoan 10.000 euroko muga gainditu ez duten.

**2.** Edozein momentutan aukera daiteke ahalbide hori horretarako behar den aitorpena aurkeztuaz, eta Elkarte barnean egiten diren ondasun eskuraketa guztien gainean izango du eragina.

**3.** Bertan agertzen den epealdian Elkarte barnean burututako ondasun eskuraketei dagokien likidazio aitorpena aurkeztu eta une horretatik aukera hori egin dela ulertuko da aurreko puntuan azaltzen den aitorpen hori egin gabe ere.

**4.** Aukera horrek urtearen gainontzeko denbora eta hurrengo bi urte osoak hartuko ditu gutxienez eta ondorioak izaten segituko du hurrengo urteetan ezeztatzen ez den bitartean.

**5.** Behin gutxienezko aldi hori igarota, ezeztatu ahalko da bigarren idazatian aipatu den aitorpenaren bitartez.

## II. TITULUA
## SALBUESPENAK (38)

### I. KAPITULUA
### ONDASUN EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

**4. artikulua.- Ospitalizazioko edo osasun laguntzako zerbitzuak salbuesteko "prezio baimendu"aren kontzeptua.**

Zergaren ondorioetarako, prezio baimendu edo komunikatutzat joko dira aldatu ahal izateko Administrazioaren organoren batek aurretik baimentzeari edo jakinarazteari loturik daudenak.

**5. artikulua.- (41)**

**6. artikulua.- (41) Gizarte izaera duten erakunde edo establezimendu pribatutzat jotzea.**

Gizarte izaera duten erakunde edo establezimendu pribatuek halakotzat jotzeko eskaera aurkeztu beharko diote Arabako Foru Aldundiari, haien zerga egoitza Arabako lurralde historikoan badago.

Edonola ere, gizarte izaera duten erakunde edo establezimenduek emandako zerbitzuei dagozkien salbuespenak aplikatuko dira, baldin eta balio erantsiaren gaineko zergaren arauaren 20. artikuluko Hiru idatz zatian ezarritako betekizunak betetzen badira, alde batera utzita zein unetan jo dituzten halakotzat, hala badagokio, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera.

**7. artikulua.- (13) Hezkuntza eta irakaskuntzako operazioei buruzko salbuespenak.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 20. artikuluko Bat ataleko 9. zenbakian jasotako entitateek, baimendutako entitate pribatuko izaera izango dute, baldin eta honako hauek baimendutako hezkuntza zentruak badira: estatuak, komunitate autonomoek edo hezkuntza arloan eskumen generikoa duten besteren batek, edo baimendu beharreko zentruak irakasten duen gaiaren arloan eskumen espezifikoa duen erakunderen batek.

**8. artikulua.- Ondasun higiezinen zenbait eragiketei salbuespena aplikatzea.**

**1.** (42) Zergaren arauaren 20. artikuluaren 1. paragrafoko 20. eta 22. zenbakietan araututako salbuespenei uko eginez gero, egiaztatzeko moduan jakinarazi beharko zaio eskuratzaileari, kasuan kasuko ondasunak entregatu baino lehen edo entregatzeaz batera.

Uko eginez gero, subjektu pasiboak egindako eragiketa bakoitzeko egin beharko da uko, eta betiere eskuratzaileak sinatutako aitorpen baten bidez egiaztatu beharko da, non subjektu pasiboak jaso beharko baitu horixe dela; hain zuzen ere, eskuratutako ondasun higiezinengatik jasandako zergaren kenkari osorako edo partzialerako eskubidea daukan subjektu pasiboa; edo, bestela, jaso beharko du eskuratutako ondasunak zer xedetarako erabiliko diren horrek gaitu egiten duela zergaren kenkari osorako edo partzialerako eskubidea egikaritzeko.

**2.** (41) Balio erantsiaren gaineko zergaren arauaren 20. artikuluko Bat idatz zatiko 22. paragrafoaren A) letran ezarritakoaren ondorioetarako, aipatutako 22. paragrafoaren B) letran azaltzen den birgaitzea zehazteari buruzko irizpideak aplikatuko dira.

**8 bis artikulua.- (23)**

## II. KAPITULUA
## ESPORTAZIOAK ETA ESPORTAZIOEI BERDINETSIRIKO ERAGIKETAK

### 9. artikulua.- Esportazioei dagozkien salbuespenak.

**1.** Esportazioei edo Elkartetik kanporako bidalketei dagozkien salbuespenek ondoren ezartzen diren betekizunak bete beharko dituzte:

1. (50) Eskualdatzaileak edo aduana araudian xedatutakoaren arabera esportatzaile izaera duenak esportatutako edo bidalitako ondasunen entregak, eskualdatzailea ez bada, edo aurrekoen izenean eta kontura jarduten duen beste pertsona batek bidalitakoak.

   Horrelako kasuetan salbuespenaren baldintza ondasunak Batasunaren lurraldetik benetan ateratzea izango da, ateratzea gertatu dela aduana legediaren arabera froga daitekeenean egiaztaturik gelditzen delarik.

   Salbuespenaren aplikazioa justifikatzeko, eskualdatzaileak edo esportatzaile denak Administrazioaren eskura gorde beharko ditu, zergaren preskripzio epean zehar, fakturen kopiak, kontratuak edo eskaera oharrak, garraio-agiriak, ondasunen irteeraren egiaztagiriak eta eragiketaren gainerako egiaztagiriak.

2. (18) (50) Zergaren aplikazio lurraldean finkatu gabeko eskuratzaileak edo aduana araudian xedatutakoaren arabera, ezarri gabeko eskuratzailea ez den esportatzaile izaera duenak esportatutako edo bidalitako ondasunen entregak, edo aurrekoen izenean eta kontura jarduten duen beste pertsona batek bidalitakoak, honako kasu hauetan:

   A) (18) Merkataritza araubideko entregak.

   Entregatu beharreko ondasunak merkataritzako bidalketa bat direnean, baldintza hauek bete beharko dira salbuespena lortzeko:

   a) Aurreko zenbakian ezarritakoak.

   b) Hurrengo 3. zenbakiko laugarren lerrokadako d) letran xedatutakoari kalterik egin gabe, ondasunak aduanara eraman beharko dira, eskura jarri eta hilabeteko epean, eta eskuratzaileak esportaziorako aduana-agiria aurkeztu beharko du bertan.

   Agiri horretan, halaber, Batasunean ezarritako hornitzailearen izena jasoko da eta (hura da esportatzailea), bai eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia eta hark emandako fakturaren erreferentzia ere. Eskuratzaileak irteera aduanak izapidetutako agiriaren kopia bidali beharko dio hornitzaile horri.

Aurreko baldintzak, behar denean, esportatzaile izaera duenak bete beharko ditu, aduana araudian xedatutakoaren arabera, zerga aplikatzen den lurraldean ezarrita ez dagoen eskura-tzailea ez bada.

B) (8) Bidaiari erregimenean egiten diren emateak.

Zergaren Arauak emate horien salbuespenerako ezartzen dituen baldintzak betetzea honako arau hauei lotuko zaie:

a) (43) (44) Salbuespena fakturan dokumentatutako ondasun entregen kasuan baino ez da aplikatuko.

b) Bidaiarien ohiko egoitza pasaporte, nortasun agiri edo zuzenbidean onartzen den beste froga moduren baten bidez egiaztatuko da.

c) Saltzaileak kasuari dagokion faktura egin beharko du, eta eskuratutako ondasunak eta, berex, horiei dagokien Zerga jarriko ditu faktura horretan.

d) Ematea egin eta hiru hilabete igaro baino lehen atera beharko dituzte ondasunak Komunitatearen lurraldetik.

Horretarako, bidaiariak esportazio aduanan aurkeztuko ditu ondasunak, eta aduanak irteera egiaztatuko du fakturan egin beharreko diligentzia eginez.

e) (42) Bidaiariak hornitzaileari aduanak izapidetutako faktura bidaliko dio, eta jasanarazitako kuota itzuliko dio hark hurrengo hamabost eguneko epean, txeke bidez, banku transferentzia bidez, kreditu txartelean ordainduta edo diru itzulketa egiaztatzea ahalbidetzen dion beste edozein baliabide erabilita.

Zerga Administrazioak baimendutako erakunde laguntzaileen bidez ere egin ahalko da zergaren itzulketa, eta administrazio horrek zehaztuko ditu zein izango diren erakunde horien aritzeko era eta haien komisioa zedarrituko duten baldintzak.

Bidaiariek erakunde horiei aduanak izapidetutako fakturak aurkeztuko dizkiete, ordaindu beharreko zenbatekoa ordainduko dute haiek, eta bidaiariak ados daudela adieraziko da.

Ondoren, erakunde horiek hornitzaileei helaraziko dizkiete fakturak, paperean zein formatu elektronikoan, eta haiek diru itzulketa egitera derrigortuta egongo dira.

C) Zergarik gabeko dendetan egiten diren emateak.

Ondasun emate horiek salbuesteko baldintza bidaiaria berehala irtetea da.

3. (18) (50) Esportatzen diren ondasun higigarrietan egindako lanak.

Zergari buruzko Arauaren 24. artikuluaren Bat atalaren 3. zenbakiaren g) letran ezarritakoari kalterik egin gabe, salbuetsita daude xede horrekin erosi edo inportatutako eta lan horiek egin dituen pertsonak edo zergaren aplikazio lurraldean finkatu gabeko hartzaileak Batasunetik kanpo esportatu edo garraiatutako ondasun higigarrietan egindako lanak, edo aduana araudian xedatutakoaren arabera

esportatzaile izaera duen beste pertsona batek egindakoak, edo horietako edozeinen izenean eta kontura jarduten duen beste pertsona batek egindakoak.

Lan horiek ondasunak hobetu, eraldatu, mantendu eta konpontzeko egin daitezke, bai eta haiei edozein jatorritako ondasunak gehituz ere, ondasunak Arauaren 24. artikuluan adierazitako aduana erregimenei lotu beharrik gabe.

Zenbaki honetako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko aldi baterako inportazioko aduana erregimenen babespean dauden ondasunetan egindako lanei, inportazio eskubideetatik guztiz edo zati batez salbuetsita daudenei, ez eta aldi baterako inportazioko zerga erregimenaren babespean daudenei ere.

Lanak salbuesteko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Apartatu honen 2. zenbakian ezarritakoak, zerga aplikatzen den lurraldean ezarri gabeko lanen hartzaileak edo lan horien emaileak beteta, dagokionaren arabera.

b) Zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dauden pertsonek edo pertsona horien izenean eta kontura dihardutenek eskuratu edo inportatu beharko dituzte ondasunak, horiei lan jakin batzuk eransteko.

c) Zerga aplikatzen den lurraldean balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako ezarrita ez dauden eskuratzaile edo inportatzaileen kontura egingo dira lanak.

d) Lanak zerbitzu emaileak ondasunak jaso eta sei hilabeteko epean egin beharko dira, eta hark hartu agiri bat bidali beharko dio zerga aplikatzen den lurraldean ezarrita ez dauden ondasunen eskuratzaileari edo, hala badagokio, hornitzaileari.

Aurreko atalean adierazitako epea luzatu ahal izango da, interesdunak hala eskatzen badu, lanak egiteko behar den denborarako. Zerga Administrazioaren sail egokian aurkeztuko da eskaera, eta hark baimena emango du egin beharreko lanen izaerak hala justifikatzen badu; eskaera egin ondoren hilabeteko epea igaro eta Administrazioak erantzuten ez badu, luzapena baimendu dela ulertuko da.

e) Lanak amaitu ondoren, ondasunak hurrengo hilabeteko epean bidali beharko dira aduanara, esportatzeko.

Esportazioa lanen hartzaileak edo zerbitzu-emaileak egin beharko du, edo, aduana araudian xedatutakoaren arabera, aurrekoak ez diren eta esportatzaile diren beste pertsona batek, eta esportazio agirian adierazi beharko da Batasunean ezarritako hornitzailearen identifikazioa eta hark egindako fakturaren erreferentzia.

Hirugarren batek ere egin ahal izango du, aurrekoetatik edozeinen izenean eta kontura.

f) Ezarri gabeko hartzaileak edo lanen emaileak edo, aduana araudian xedatutakoaren arabera, esportatzaile izaera duen aurrekoez besteko pertsonak, irteera aduanak izapidetutako esportazio agiriaren kopia bidali beharko diote ondasunen hornitzaileari.

4. (42) Ondasunak erakunde aitortuei entregatzea, gero esportatu egin ditzaten.

Salbuespen horren ondorioetarako, Zerga Administrazioari egokituko zaio ofizialki aitortzea gizaldeko, karitatezko zein hezkuntzako jarduerak egiten dituzten erakundeak, aitorpena haiek eskatuta eta kasuan kasuko sailak txostena egin ondoren, non erakunde horiek irabazteko xederik gabe jarduten direla egiaztatuko baita.

Ondasunak entregatzeari dagokionez, paragrafo honetako 1) zenbakian xedatutakoa ere aplikatuko da.

Ondasunak Erkidegotik kanpora esportatzeko hiru hilabete izango dira, haiek erosten direnetik, edo lehenago eskatuz gero, epea luzeagoa izango da Zerga Administrazioak horretarako baimena ematen badu. Erakunde baimenduak nahitaez bidali beharko dio hornitzaileari ondasunak ateratzearen agiriaren kopia, hamabost eguneko epean, ondasunak ateratzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

5. Esportazioekin zuzenean lotuta dauden zerbitzuak:

A) Honako betekizunak kunplitzen dituzten zerbitzuek esportazioekin zuzeneko erlazioa dutela ulertuko da:

a) (41) Zerbitzuak ematea esportazioak edo ondasunen bidalketak egiten dituztenei, haiek jasotzen dituztenei, edo batzuen edo besteen kontura aritzen diren bitartekariei edo aduanako ordezkariei.

b) Zerbitzuak esportazio horiek egiten direlako ematea.

c) Zerbitzuak ondasunak Elkartetik kanpo dagoen leku batera bidaltzen diren unean edo, bestela, Elkartetik kanpora berehala garraiatu baino lehen, kargak elkartzeko edo sendotzeko eragiketak buru ditzaten, itsasportu, aeroportu edo mugako alderen batean dagoen leku batera eramaten diren unean egitea, nahiz eta beste leku batzuetan eskalak egin helmugara aurretik.

Letra honetan azaltzen den baldintza ez da eskatuko bidalketa egin aurretik nahitaez bete behar diren zerbitzuengatik, hau da, garraiagailuak alokatzeko, kargak enbalatzeko eta egokitzeko, hartzaileek merkatalgaiak aztertzeko eta antzeko besteren batzuk betetzen dituzten zerbitzuengatik.

B) (36) Idatz zati honetan jasotako salbuespenak aplikatu ahal izateko, ondoko betekizunak beteko dira:

a) Ondasunak Erkidegotik ateratzeko, hiru hilabete izango dira zerbitzua eskaintzen denetik aurrera.

b) (41) Legeak onartutako edozein froga bidez justifikatuko da ondasunak ateratzea.

c) (41) Ondasunak ateratzea justifikatzen duten agiriak zerbitzua eskaintzen duenari bidaliko zaizkio, hala badagokio. Horretarako,hiru hilabete izango dira, ondasunak ateratzen direnetik aurrera.

C) Zenbaki honetan sartzen diren zerbitzuen artean honako hauek egongo dira: ondasunen garraioa; karga, deskarga eta mantentzea; zainketa, biltegiratzea eta

enbalatzea; garraiagailuak alokatzea; edukinontziak eta merkatalgaiak babesteko materialak eta antzeko beste batzuk.

**2.** Lehenengo atalean ezarritako betekizunak ez kunplitzeak subjektu pasiboa behartuko du egin diren eragiketen hartzaileari zerga likidatzera eta erasatera.

**10. artikulua.- Esportazioei berdinetsiriko eragiketetako salbuespenak.**

**1.** Itsasuntzi eta aireuntziekin erlazionatutako eragiketen salbuespenak, bai eta batzuei eta besteei atxiki zaizkien objektuak eta garraiagailu horien hornidurak ere, honako betekizunak kunplitzeak baldintzatuko ditu:

1. (11) Garraiagailu horien bidaltzaileek, ondasunen hornitzaileek edo Zergaren Arauaren 22. artikuluko lehenengo zazpi ataletan aipatzen diren zerbitzuak ematen dituztenek Zerga indarraldian dagoen bitartean eduki beharko dituzte kasuari dagokion fakturaren kopia, untziratze edo alokatze kontratuak, hala dagokionean, eta itsasontziak edo aireuntziak matrikula erregistroko zerrendan izena emana duela agertzen duen kopia baimendua, Zergaren Arauaren 22. artikuluko Bat eta Lau zenbakietan aipatutako helburuetarako erabiltzeko gaikuntza ematen diena.

   Halaber, aurreko idazatian aipatu diren pertsonek aitorpena exigitu beharko diete ondasunen jasotzaileei edo zerbitzuen hartzaileei. Bertan salbuespena egitea arrazoitzen duen ondasunen afektazio edo destinoa azalduko da eta jasotzaile edo hartzaileek izenpetuko dute.

   Itsasuntzia edo aireuntzia eraikitzeko kasuan, hartzaileak bidaltzaileari matrikulazioaren kopia baimendua eman beharko dio hilabeteko epean idazati honetan aipatzen den Erregistroan inskribatu zenetik kontatzen hasita.

2. (11) Itsasuntzia edo aireuntzia eraikita dagoela ulertuko da aurreko idazatian esandako Erregistroan matrikulatzen denetik.

3. Itsasuntzia edo aireuntzia transformatua izan dela ulertuko da horietan egindako lanen kontraprestazioak untziak untziolan edo tailerrean horretarako sartu zen momentutik zuen balioaren % 50 gainditzen badu.

   Balio hori zehazteko, aduanako legediak inportaziorako merkatalgaiek aduanan duten balioa zein den jakiteko dituen arauez baliatuko da.

4. (5)

5. (8) 5. Itsasontzia eskuratu eta hurrengo hiru hilabeteko epean jarriko dira objektu berriak eta hari dagokion aduanako ontziratze agiriaren bidez egiaztatuko du hornitzaileak. Garraiagailuen ustiapenaren jabeak objektuen hornitzaileari agiri horren kopia bat bidaliko dio, hala badagokio, objektuak jarri eta hurrengo hamabost egunean. (41)

   Aireuntzietan objektu berriak jartzea untzia eskuratu eta hurrengo urtean egin beharko da, eta aurreko lerroartean ezarritako baldintzei lotuko zaie.

Aurreko lerroartean adierazitako epeak luzatu ahal izango dira, interesatuak eskatuta, ezinbesteko kasuan, ezusteko kasuan ed objektuak egin edo lantzeko prozesu teknikoari datxezkion betekizunengatik.

Itsasuntzi edo aireuntzietan jarri eta salbuespena izan dezaketen gauzen artean untzietan eskuarki erabiltzen diren edo untziak ustiatzeko behar diren ondasun, elementu edo parte guztiak daude, baita haietatik bereizi ezin direnak edo haietan finko ezartzen direnak ere.

Bereziki segidan aipatzen direnak dira horrelakoak: untziko aparailu eta tresnak, lanabes guztiak, untziko altzari eta apaingarriak eta arrantzan erabiltzen diren tresnak, lanabesak, materialak eta sareak, hau da, beita, amuak, amu-hariak, arraina jartzeko kaxak eta beste. Gauza horiek guztiak untzi barruari benetan atxiki edo haietan egon behar dira eta untziaren edukinen zerrendan agertuko dira.

Itsasuntzi edo aireuntzietan jarri eta Zergaren salbuespena jaso duten gauzek untzi barruan egon beharko dute, salbu eta gauza horiek jartzea zergaren ondorioetatik salbuesteko bete behar diren helburuak betetzen dituen beste untzi batera lekualdatzen badira.

Itsasuntzi edo aireuntzietan haiei dagokien Erregistroan behin-betiko matrikulatu ondoren jartzen diren objektuei baino ez zaie salbuespena aplikatuko. (11)

6. (41) Itsasontzi edo aireontzi barruan horniketa gaiak jartzea aduanako ontziratze agiriaren bidez egiaztatu beharko du hornitzaileak. Garraiagailuaren ustiapenaren jabeak produktu horien hornitzaileari agiriaren kopia bat bidali beharko dio, hala badagokio, ematea egin eta hilabeteko epean.

   Hala ere, zerga administrazioak prozedura errazagoak ezar ditzake aurreko lerroaldean aipatzen diren horniketa gaien ontziratzea egiaztatzeko.

7. Aireontzien erabilera gainontzekoei errentan edo azpierrentan lagatzen bazaie eta errentamendu-aldia, oro har, egutegiko urtean hogeita hamar egunetik gorakoa ez bada, aireontzia merkatugaiak edo bidaiariak diru trukean garraiatzeko baino ez dela erabiltzen uste izango da eta, beraz, baldintza hori betetzat joko da. (11)

**2.** Salbuestea bidezko egiten duten helburuetarako, itsasuntzi eta aireuntzien zuzeneko premiei erantzuteko burutzen diren zerbitzuen artean honako hauek daudela ulertuko da:

a) Itsasuntziei dagokienez: kai-gidaritza, atoe eta amarratze zerbitzuak; portuko instalakuntzak erabiltzea; itsasuntziak eta untzi barruko materialak kontserbatzeko lanak, esate baterako, desinfektatzea, zomorro-galketa, arratoi-galketa eta sotoen garbiketa; suterik ez gertatzeko zainketa eta aurre hartze zerbitzuak; ziurtasun ikustaldiak eta perituen lan teknikoak; itsasuntziari laguntza ematea eta salbamendua eta portuko artekariek, interpreteek, kontsignaziodunek eta itsas-agenteek beren lanbidearen ihardunean egiten dituzten lanak.

b) Itsasuntzien zamari dagokionez: untzia kargatzeko eta deskargatzeko lanak; edukinontziak eta merkatalgaiak babesteko materiala alokatzea; merkatalgaiak zaintzea; merkatalgaien bagoiak kaiko trenbideetan geldialdiak egitea eta

mugiaraztea; bidaiariak eta bidaiarien ekipaiak untziratzea eta lehorreratzea; bidaiariak eta ekipaiak untziratzeko eta lehorreratzeko erabiltzen diren materialak, makineria eta tresneria alokatzea; albaitaritzari eta landare-osasunari buruzko azterketak eta Esportazioak Ikuskatzeko, Zaintzeko eta Arautzeko Zerbitzu Ofizialaren azterketak.

c) Aireuntziei dagokienez: lurreratzearen eta aireratzearen inguruko zerbitzuak; argi zerbitzuak erabiltzea; aireuntzien estazionamendua, amarratzea eta babesean gordetzea; bidaiariak edo merkatalgaiak hartzeko prestatutako instalakuntzak erabiltzea; aireuntziak hornitzeko instalakuntzak erabiltzea; aireuntziak eta aireuntzi barruan dauden material eta tresnak garbitzea, kontserbatzea eta konpontzea; suterik ez gertatzeko zainketa eta aurre hartzea; ziurtasun ikustaldiak eta perituen lan teknikoak; aireuntzien salbamendua eta aireuntzien agente eta kontsignaziodunek beren lanbidearen ihardunean egiten dituzten lanak.

d) Aireuntzien zamari dagokionez: bidaiariak eta bidaiarien ekipaiak untziratzeko eta lurreratzeko lanak; aireuntziak kargatu eta deskargatu; bidaiarien beharrei erantzutea; bidaiariak eta ekipaiak erregistratzea; zirkulazio seinaleak bidali eta jasotzea; posta bidalketa lekualdatu eta eramatea; airezko zirkulaziorako beharrezko diren eta aireportuen barruan erabiltzen diren material eta tresnak alokatzea; edukinontziak eta merkatalgaiak babesteko materialak alokatzea; merkatalgaiak zaintzea; albaitaritzari eta landare-osasunari buruzko azterketak eta Esportazioak Ikuskatzeko, Zaintzeko eta Arautzeko Zerbitzu Ofizialaren azterketak.

**3.** (20) Bidaiariak eta ekipaiak itsasoz zein airez eramaten dituzten nazioarteko garraioak zergaren ondorioetatik salbuesteko honako baldintzoi lotuko zaizkie:

1. Zergaren aplikazio esparrutik kanpo dauden lurraldeetan eskala egiten duten joan-etorriko garraioak salbuetsiko dira.

2. Bidaia lurralde penintsularrean edo Baleare uharteetan abiatu eta lurralde horietan amaitzen duten bidaiari eta ekipaien garraioak ez dira salbuetsiko, nahiz eta itsasuntzi edo hegazkinak bidaia lurralde horietatik kanpo dauden beste portu edo aireportuetarantz segitu.

**8.** (8)

## III. KAPITULUA
## ZENBAIT EREMURI ETA BALIOGABETZEKO ERREGIMENI DAGOZKION ERAGIKETAK

### 11. artikulua.- (11) (50) Aldi baterako gordailutzeari buruzko salbuespenak.

**1.** Aldi baterako gordailuan dauden ondasunen entregak eta ondasun horiei dagozkien zerbitzuen prestazioak salbuetsita egongo dira, ondasunak, aduana legeriaren arabera, egoera horretan dauden bitartean.

**2.** Ondasunen erosleak edo zerbitzuen jasotzaileak berak sinatutako aitorpena eman beharko dio eskualdatzaileari edo zerbitzuaeskaintzen duenari, zeinetan ondasunen egoera adierazi beharko baitu, salbuespena justifikatzeko.

Xede horretarako, erosleak edo jasotzaileak zerga administrazio eskudunaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen inprimakia erabili ahalko du.

**12. artikulua.- (5) (50) Aduana eta zerga erregimenei buruzko salbuespenak.**

**1.** (41) Ondoko betekizunak beteko dira, aduanez besteko gordailu araubidea izan ezik, zergaren arauaren 24. artikuluan xedatutako arauekin zerikusia duten ondasun emateen eta zerbitzu eskaintzen beste salbuespen guztiak aplikatu ahal izateko:

1. Aipatutako aduana edo zerga araubideen babesean egindako prozesuetan erabiltzera bideratutako ondasunekin zerikusia duten eragiketa horiek edo araubide horien baitakoak, kasu bakoitzean aplika daitezkeen aduana edo zerga arauekin bat etorriz.

2. Ondasunen erosleak edo zerbitzuen jasotzaileak berak sinatutako aitorpena ematea eskualdatzaileari edo zerbitzua eskaintzen duenari, zeinetan ondasunen egoera adierazi beharko baitu, salbuespena justifikatzeko

Xede horretarako, erosleak edo jasotzaileak zerga administrazio eskudunaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen inprimakia erabili ahalko du.

**2.** Aduanakoez besteko gordailu erregimenarekin erlazionatuta dauden ondasun-emanketa eta zerbitzugintzen salbuespenetarako baldintza izango da eragiketa horiek erregimen horren babesean jartzeko diren edo dagoeneko jarrita dauden ondasunei buruzkoak izatea, Zergaren Arauaren 24. artikuluko bigarren atalean esandakoaren arabera.

## IV. KAPITULUA
## ELKARTE BARNEKO ERAGIKETAK

**13. artikulua.- Beste elkartekide baterako ondasun emateei dagozkien salbuespenak.**

**1.** Enpresari edo profesionari batek, destinoa beste elkartekide bat izanik, egiten dituen ondasun emateak Zergaren ondorioetatik salbuesten dira Zergaren Arauaren 25. artikuluan agertzen diren baldintza eta betekizunak kunplitzen direnean.

**2.** (46) Ondasunak xedeko estatu kidera igortzen edo garraiatzen direnean, horiek justifikatzeko Zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabiliko da, eta, zehazki, ondoren adieraziko den arauaren 45 bis artikuluak kasu bakoitzerako xedatutako

frogabideak erabiliz, kontuan hartuta saltzaileak edo erosleak egin duen edo horien kontura egin den: Europar Batzordearen 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Exekuzio Erregelamendua, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzko Kontseiluaren 2006/112/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena.

**3.** (46) Saltzaileari balio erantsiaren gaineko zergarako ematen zaion identifikazio zenbakiaren bidez egiaztatuko da eskuratzailearen izaera.

**4.** Zergaren Arauaren 9. artikuluko 3. zenbakian azaltzen diren ondasun eskuraketen kasuan, eskuraketak burutzen dituen enpresari edo profesionariak honako puntuak justifikatzeko baldintza bete beharko du:

1.a (46) Ondasunak xedeko estatu kidera bidaltzea edo garraiatzea aurreko 2 apartatuan adierazitako baldintza beretan.

2.a Destinoko elkartekidean elkarte barneko ondasun eskuraketei dagokien karga.

3.a Destinoko elkartekideak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikazio zenbakia eman diola.

## V. KAPITULUA
## ONDASUN INPORTAZIOAK

### 14. artikulua.- Barnean ematen direnean Zergari loturik ez dauden ondasun inportazioak.

**1.** Itsasuntziak, aireuntziak, horietan jarri diren objetuak eta garraiagailu horien horniketarako gaiak inportatzeari dagozkion salbuespenek, Zergaren Arauaren 27. artikuluan aipatutakoek, honako baldintzak bete beharko dituzte:

1.a Inportatzaileak, ondasunak bidaltzeko behar diren agiriekin batera, ondasunek salbuesteko bete behar dituzten helburuak beteko dituztela dioen aitorpena izenpetu eta aduanan aurkeztu beharko du.

Era berean, inportatzaileak fakturak, aduanako inportazio agiriak eta, hala behar denean, untziratzeko edo alokatzeko kontratuak eta itsasuntziak eta aireuntziak dagozkien matrikula erregistroetan izen emana dutela adierazten duten baimendun kopiak eduki beharko ditu Zerga indarraldian dagoen bitartean.

2.a (11) Inportatutako objektuak hiru hilabeteko epean jarri beharko dira itsasuntzietan inportazioaren egunetik kontaturik. Jarri egin direla kasuari dagokion aduanako untziratze agiriaren bidez egiaztatuko da. Agiri hori inportatzaileak eduki beharko du inportazioaren frogagiri gisa.

Inportatutako objektuak urte beteko epean jarri beharko dira aireuntzietan inportazioaren egunetik kontaturik. Jarri egin direla kasuari dagokion aduanako

untziratze agiriaren bidez egiaztatuko da, aurreko kasuan bezala, eta inportatzaileak eduki beharko du agiri hori inportazioaren frogagiri gisa.

Inportatuak izan, itsasuntzi eta aireuntzietan jarri eta salbuespena jaso dezaketen gauzak Araudi honetako 10. artikuluaren 1. ataleko 5. zenbakian agertzen direnak dira, itsasuntzien edo aireuntzien behin-betiko matrikulazioa haiei dagokien Erregistroan egin ondoren jarri baldin badira untzian.

3.a Itsasuntzi eta aireuntzietan inportatzen diren hornidura gaiei dagokienez, aduanako legediak ematen dituen aginduak bete beharko dira.

Bereizirik inportatu eta Araudi honetako 11. artikuluan aipatzen diren eremuetan sartzen ez direnak hiru hilabeteko epean jarri beharko dira itsasuntzi eta aireuntzien barruan inportazioaren egunetik kontaturik. Hala egin dela kasuari dagokion aduanako untziratze agiriaren bidez egiaztatuko da. Agiri hori inportatzaileak eduki beharko du inportazioaren frogagiri gisa.

**2.** Zulaketa edo ustiapen plataformetarako diren ondasun inportazioei, Zergaren Arauaren 27. artikuluko 11. zenbakian aipatutakoei, dagokienez, inportatzaileak, aduanako bidalketa agiriekin batera, zein den ondasunak salbuesteko arrazoia dioen adierazpena izenpetu eta aurkeztu beharko du. Agiri hori salbuespenaren frogagiri gisa gorde beharko du inportatzaileak.

**3.** (36) Ondoko betekizunak beteko dira, beste estatu kide bat helmuga duen geroagoko emakida baten helburu diren ondasunak inportatzeari dagokion zergaren salbuespena aplikatu ahal izateko:

1. Inportatzaileak edo haren izenean edo ordez diharduen zerga ordezkariak identifikazio zenbaki bat jakinaraziko dio inportazio aduanari, zerga administrazio eskudunak ezarritako Balio Erantsiaren gaineko Zerga auzietarako.
2. Inportatzaileak edo haren izenean edo ordez diharduen zerga ordezkariak identifikazio zenbaki bat jakinaraziko dio inportazio aduanari, helmuga den beste estatu kide bateko zerga administrazioak ezarritako Balio Erantsiaren gaineko Zerga auzietarako.
3. Inportatzailea edo haren izenean edo ordez diharduen zerga ordezkaria izan dadila garraio agirietan salgaien jasotzaile gisa ageri dena.
4. Inportazioa eta berehalakoan gertatzea helmuga den estatu kiderako garraioa.
5. Inportazio ondorengo emakida zerga ordaintzetik salbuetsita egon dadila, Arauaren 25. artikuluan xedatutakoa betez.

**15. artikulua.- Ondasun pertsonalen inportazioak.**

Ondasun pertsonalen inportazioei dagozkien salbuespenei buruz, honako arauak aplikatuko dira:

1.a Negozio zein oporrengatik edo turismo zein gaisotasunagatik berrogeita hamar egunekoa baino laburragoa den kanpoaldi batek ez ditu etengo Elkartetik kanpoko ohizko bizileku jarraikorraren gutxieneko epeak.

Zergaren aplikazio lurraldean unibertsitate edo eskola batera ikasketak egitera joateak ez dakar berarekin ohizko egoitzaren lekualdaketa.

2.a Doakienek inportatu behar diren ondasunen zerrenda zehatza, Elkartetik kanpoan duten ohizko bizilekuan baja eman dutela egiaztatzeko agiria eta, hala behar denean, aurreko bizilekuan emandako aldiari buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte inportazioa egiteko unean.

Doakionak atzerriko nazionalitatea izanez gero, Espainiako penintsulako lurraldean edo Baleare uharteetan bizi dela frogatzen duen egokitza agiria edo eskatu duelako frogagiria ere aurkeztu beharko du. Azken kasu horretan egokitza agiria lortzeko urte beteko epea izango du bermea eman ondoren.

3.a Ondasunen inportazioa aldi batean edo gehiagotan burutu daiteke eta aduana batean edo gehiagotan zehar.

4.a Ondasunak jaraunspenen bategatik inportatzen direnean, inportatzaileak eskualdaketa egiaztatu beharko du eskribauaren aurrean emandako eskritura publiko baten bidez edo zuzenbidean onartzen den edozein modu erabiliz.

**16. artikulua.- Jatorriko lurraldean enpresa iharduerak uzteagatik egin beharreko ondasun inportazioak.**

Jatorriko lurraldean enpresa iharduerak utzi direlako egin behar diren ondasun inportazioak Zergaren ondorioetatik salbuetsiko dira Zergaren Arauaren 37. artikuluak ezartzen dituen baldintzekin.

Zein zen jatorriko lurraldean burutzen zen iharduera, ondasunen erabilera aldia eta iharduera utzi den eguna egiaztatu beharko dira zuzenbidean onartzen den edozein frogagiriz baliatuz eta, bereziki, kasua dagokion estatuaren Administrazioak emandako ziurtagiri baten bidez.

Salbueste honen ondorioetarako, inportatu diren ondasunak funtsean zerga hau araupetzen duen Arauaren 20. artikuluan esandakoaren arabera salbuesten diren eragiketak burutzerako ez direla ulertuko da ondasunen inportatzaileak Zergaren aplikazio lurraldean egiten dituen iharduerei buruzko hainbanaketa % 90ekoa edo handiagoa denean.

**17. artikulua.- Administrazioaren baimena behar duten salbuespenak.**

Zergaren Arauaren 40, 41, 42, 44, 45, 46, 49, 54 eta 58. artikuluetan aipatzen diren ondasunen inportazioak salbuesteko behar diren administrazio baimenak

inportatzailearen egoitza fiskala dagoen lurralde esparruaren Estatuko Tributu Administrazioan eskatuko dira eta kasuari dagokion erabakiaren egunetik aurrera edo, hala denean, bertan seinalatzen den egunetik aurrera zerga jartzen zaien inportazioetan eragina izango dute.

Baimena emateko arrazoiak aldatzen baldin badira edo araudiak horretarako dauden baldintzetan aldaketaren bat egiten badu, inportazioak salbuesteko baimenak ezerezten direla ulertuko da.

**18. artikulua.- Zergari loturik ez dauden ondasun esportatuak inportatzea.**

**1.** Zergari loturik ez dauden ondasun esportatuak inportatzeak honako betekizunak kunplitu beharko ditu:

1.a Esportazioa Zergaren aplikazio lurraldean egindako emate baten ondorioa ez izatea.

Betekizun hori kunplitzen dela ulertuko da baldin eta ondasunak, estatu barnean emate baten objetua izanik ere, hara itzultzen badira honako arrazoiren bat dela eta:

a) Hartzaileak akatsik dutelako edo eskaeraren baldintzei lotzen ez zaizkielako ez baditu onartzen.

b) Esportatzaileak ordaindu ez diotelako edo ondasunen hartzaileak edo erosleak kontratuaren baldintzak bete ez dituelako berriz eskuratu baditu.

2.a Aurretik ondasunak elkartekide ez den estatu edo herrialderen batera aldibaterako esportatuak izatea.

3.a Ondasunak Elkartetik kanpoan emate baten objektua ez izatea.

4.a Ondasunen esportazioa egiteko administrazio baimena jaso zuen pertsona berak egin behar du ondasun esportatuen inportazioa.

5.a Ondasunak esportatzerakoan zuten egoera berean itzultzea. Administrazioak baimendutako erabileraren batek eragin diezaiekeen hondaketa baino ezin izango dute agertu, Elkartearen lurraldeaz kanpo irabazteko asmoz egiten diren lanen kasua barne.

Betekizun hori kunplitzen dela ulertuko da ondasun esportatuak Elkartetik kanpoan landu edo konpontzen badira honako kasu hauetan:

a) Bai kontratuaren baldintza edo bermearen legezko betekizunak hala eskaturik, bai ekoizpen akats baten ondorioz, lan edo konponketa horiek dohainik egiten direnean.

b) Itsasuntzi edo aireuntzietan egiten direnean, untzi horien emate edo inportazioa Zergaren Arauaren 22. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera Zergari loturik ez daudenean.

6.a Esportatutako ondasunen itzulketa inportazio eskubideetarako salbuespena izatea edo eskubide horiei loturik ez egotea.

**2.** Esportazioen itzulketen artean sartuko dira Zergaren aplikazio lurraldetik kanpo hondoratu edo istripuz suntsitu diren itsasuntzi nazionalen hondakin eta hondarrei dagozkienak, itsasuntzia hondoratu edo istripu izan duela eta ondasunak benetan hondamendia izandako itsasuntzienak direla frogatzen duten agiriak aurkeztu eta gero.

**19. artikulua.- (41) Inportazioekin zerikusia duten zerbitzuak eskaintzea.**

Legeak onartutako zernahi froga bidez justifikatuko da zergaren arauaren 64. artikuluan araututako inportazioekin zerikusia duten zerbitzuen salbuespena.

Salbuespen hori ondoko agiriak aurkeztuz justifikatu ahal izango da, hain zuzen ere: inportazio DUAren alearen kopia, egiaztatze kode segurua jarrita, eta zerbitzuaren balioa zerga oinarrian sartuta dagoela justifikatzen duen dokumentazioa.

Artikulu honetan aipatutako agiriak zerbitzua eskaintzen duenari bidaliko zaizkio. Horretarako, hiru hilabete izango dira, zerbitzua eskaintzen denetik aurrera. Beste batzuetan, zerbitzua eskaintzen duenak dagokion zerga kitatu eta jasanaraziko du.

**20. artikulua.- Aduanakoak ez diren gordailuen erregimenari lotzen zaizkion ondasunen inportazioak. (11)**

Aduanakoak ez diren gordailuen erregimenari lotzen zaizkion inportazioen salbuespenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.a Inportazioak kasu horiei aplikatzeko diren aduanako legedia eta legedi fiskala betez egitea.

2.a Ondasunek erregimen horri loturik irautea legedi fiskalean ezartzen diren baldintzen arabera.

3.a Erregimen horri loturik dauden ondasunak ez daitezela kontsumitu edo erabili haietan.

**21. artikulua.- Ondasunen inportazioengatik Zerga birritan ez ordaintzeko salbuespenak.**

Zergaren Arauaren 66. artikuluan agertzen diren salbuespenak aplikatzeko, inportatzaileak horretarako dauden legezko betekizunak kunplitzen direla egiaztatu beharko du zuzenbidean onartzen den edozein moduz eta, bereziki, aipatutako legezko arauean aipatzen diren eragiketei buruzko kontratuen bidez.

Aduanak nahikoa berme eska dezake harik eta ondasun emate edo zerbitzugintzei zein ondasun berresportazioari, Zergaren Arauaren 66. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan hurrenez hurren aipatuei, dagokien Zerga ordainduta dagoela egiaztatu arte.

## III. TITULUA
## ZERGA EGITATEAREN BURUTZAPEN-LEKUA

### 22. artikulua. (45) (47) Zenbait ondasun emate eta zerbitzu emate zergari ez atxikitzeko aukera.

Ondasun emateen gaineko zerga aplikatzen den lurraldetik kanpo zergak ordaintzea erabaki duten enpresaburuek edo profesionalek (Zergaren Arauaren 68. artikuluko laugarren zenbakian eta Zergaren Arauaren 70. artikuluko 1. zenbakiko 8. paragrafoan aurreikusitako zerbitzu prestazioen atalean jasotakoak, haren 73. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz), zerga administrazioaren aurrean justifikatu beharko dute egindako entregak eta egindako zerbitzuak beste estatu kide batean aitortu direla, betiere eragiketa horiek zergaren arauaren IX. tituluko XI. kapituluko 3. atalean aurreikusitako araubide bereziaren arabera tributatzen dutenean izan ezik.

Justifikazio hori egiteko, bereziki, estatu kide horretan sortutako edo zorretan dagoen BEZaren aitorpen likidazioaren edo diru sarreraren frogagiriak aurkeztu beharko dira.

Hautapena egin eta bi urte natural pasatutakoan enpresaburuak edo profesionalak berriz adierazi beharko du horretaz baliatzen segitu nahi duela; hori egin ezean, hautapena besterik gabe ezereztatuko da.

### 23. artikulua.- (5) Zenbait eragiketaren lokalizazioarekin erlazionatutako arauak.

**1.** (41) Zergaren arauaren 69. artikuluko Bi idatz zatiko c) letran aipatzen diren publizitate zerbitzuetan sartuko dira, orobat, publizitatearen gaia den produktuaren edo zerbitzuaren existentziaz eta ezaugarriez informatzeko mezua helarazten duten sustapen zerbitzuak.

Ez da sustapen zerbitzu horietan sartzen balio erantsiaren gaineko zergaren arauaren 70. artikuluko Bat idatz zatiko 7. paragrafoko c) letran aipatzen diren merkataritza arloko azoka eta erakusketak antolatzea hirugarren batzuentzat.

**2.** Zergaren Arauaren 71. artikuluko bigarren atalean aipatzen da puntu hori. Han azaltzen diren elkarte barneko ondasun eskuraketak ondasunen espedizioa edo garraioa iristen den Elkartekidean kargatzen direla egiaztatzeko, zuzenbidean onartzen den edozein frogagiri erabil daiteke eta, bereziki, horiek sartu diren zerga aitorpenaren bidez. Beharrezkoa izanez gero, aitorpenaren puntuak banaka aurkeztuko dira egiaztapena egiteko nahiko den moduan.

## III BIS TITULUA (47)
## SORTZAPENA

**23 bis artikulua.- (47) Sortzapena.**

Zergaren Arauaren 75. Hiru eta 163 sexvicies artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, bezeroaren ordainketa onartzen den unea zehazteko, Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 41 bis eta 61 ter artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da, hurrenez hurren. Erregelamendu horrek balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunari buruzko 2006/112/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezarri ditu

## IV. TITULUA
## ZERGA OINARRIA

**24. artikulua.- (23) Zerga-oinarria aldatzea.**

**1**. (42) Zergaren arauaren 80. artikuluak aipatzen dituen kasuetan, subjektu pasiboa behartuta egongo da zuzendu edo, hala badagokio, deuseztatu den kuota jasanaraziaren faktura berri bat egitera eta eragiketen jasotzaileari bidaltzera, maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren, fakturazio betebeharrak xedatzen dituen arautegia onartzen duenaren, 15. artikuluak jasoriko eran. Zergaren arauaren 80. artikuluko hirugarren paragrafoak ezartzen dituen kasuetan, konkurtso administrazioarentzat ere prestatu beharko da faktura horren kopia bat, eta bidali egin beharko zaio epe berdinean.

Zerga oinarria gutxitzea edo, hala badagokio, eragiketaren jasotzailearen kentzeko kuotak gehitzea lehenago bidalitakoa zuzenduko duen faktura egitearen eta ematearen mende egongo da. Zergaren arauaren 80. artikuluko hirugarren eta laugarren paragrafoen kasuetan, subjektu pasiboak bidali izana egiaztatu behar du.

**2.** (41) (50) Zerga oinarriaren aldaketa, zergari lotutako eragiketen hartzailearen konkurtsoa deklara-tzeko auto judiziala ematen denean edo hura kaudimengabezia prozedura batean sartuta dagoela deklaratzen denean, eta prozedura horri Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/848 (EB) Erregelamendua, kaudimengabezia prozedurei buruzkoa, aplikatu behar zaionean, edo jasanarazitako kuotei dagozkien kredituak guztiz edo partzialki kobraezinak diren gainerako kasuetan, honako arau hauek beteko dira:

a) Aldaketa hori egiteko, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Eragiketa baten zerga oinarria zuzendu nahi bada, garaiz eta forman jasota egon beharko du eragiketak, hartzekodunaren fakturen erregistro liburuan.

2. Hartzekodunak bide elektronikoz jakinarazi beharko du, horretarako Zerga Administrazio eskudunaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen formularioaren bidez, egindako zerga oinarriaren aldaketa, hilabeteko epean, zuzenketa faktura egiten denetik zenbatzen hasita. Halaber, adieraziko du aldaketa horrek ez diela erreferentzia egiten pertsona edo erakunde lotuen arteko kredituei, bermatutako, fidantzatutako edo aseguratutako kredituei, ez eta zerga aplikatzen den lurraldean eta Kanarietan, Ceutan edo Melillan ezarrita ez dagoen hartzailea duten eragiketei ere, salbu eta hartzaileak lurralde horretan finkatuta ez badaude baina kaudimengabezia prozedura batean sartuta badaude, eta prozedura horri Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/848 (EB) Erregelamendua, kaudimengabezia prozedurei buruzkoa, aplikatu behar bazaio, Zergaren Arauaren 80. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, eta, kreditu kobraezinen kasuan, zorduna ez dela konkurtsoan deklaratu edo, behar denean, egindako faktura zuzentzailea konkurtsoa deklaratzeko autoaren data edo 2015/848 (EB) Erregelamendua aplikatu beharreko kaudimengabezia prozedura irekitzeko ebazpenaren data baino lehenagokoa dela.

Jakinarazpen horrekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, eta Zerga Administrazio eskudunaren erregistro elektronikoaren bidez bidaliko dira:

a') Faktura zuzentzaileen kopia. Bertan zuzendutako fakturen datak adieraziko dira.

b') Kreditu kobraezinen kasuan, hartzekodunak zordunari erreklamazio judizialaren bidez edo notario errekerimenduaren bidez edo zordunari kobrantza erreklamatu izana modu frogagarrian egiaztatzen duen beste edozein bitartekoren bidez kreditua kobratzeko eskatu duela egiaztatzen duten agiriak.

c') Erakunde publikoek zor dituzten kredituen kasuan, Zergaren Arauaren 80. artikuluaren A) letraren 4. Baldintzan aipatzen den erakunde publiko zordunaren organo eskudunak emandako ziurtagiria.

b) Eragiketen jasotzailea enpresaburua edo profesionala bada:

1. Bide elektronikoz jakinarazi beharko du, Zerga Administrazio eskudunaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen formularioaren bidez, hartzekodunak bidalitako faktura zuzentzaileak jaso dituela, eta zuzendutako kuoten zenbateko osoa, behar denean, kengarriak ez direnena barne, hurrengo zenbakian aipatzen den aitorpen likidazioa aurkezteko aurreikusitako epe berean kontsignatuko du. Betekizun hori ez betetzeak ez du ekidingo hartzekodunak zerga oinarria aldatzea, baldin eta a) paragrafoan adierazitako betekizunak betetzen badira.

2. Aurreko atalean adierazitakoa ez ezik hartzaileak zuzendutako kuoten zenbatekoa ere jakinaraziko du kendutako kuoten gutxitze gisa, eragiketen faktura zuzentzaileak jaso diren aldiari dagokion aitorpen likidazioan.

3. Zergaren Arauaren 80. artikuluaren Hiru zenbakian aurreikusitako kasuan, zuzendutako kuotak honako hauetan jaso beharko dira:

a') Jasandako kuoten kenkari eskubidea baliatu den aldietako aitorpen likidazioetan.

b') Aurrekoaren salbuespen gisa, erregelamendu honen 71. artikuluaren 5. atalean arautatako konkurtso adierazpenaren aurreko zergapeko egitateei buruzko aitorpen likidazioan, honako kasu hauetan:

a'') Eragiketen jasotzaileak ez balu zergaren kenkari osorako eskubiderik eta kengarria ez den zuzendutako kuota zatiari loturik.

b'') Eragiketen jasotzaileak zergaren kenkari eskubidea balu eta zuzentzen diren jasandako kuoten kenkari eskubidea baliatu den aldiko zerga zorra zehazteko zerga administrazioak duen eskubidea preskribatu balu.

c'') Eragiketen hartzailea kaudimengabezia prozedurei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/848 (EB) Erregelamendua aplikatzekoa den kaudimengabezia prozedura batean sartuta dagoela deklaratzea.

4. Zuzenketa edo zuzenketak aurkeztu beharko dira faktura zuzentzaileak jaso diren aldiko aitorpen likidazioa aurkezteko epe berean.

Eragiketen jasotzaileari konkurtso adierazpena eman zaionean, aurreko ataletan aurreikusitako betebeharrak jasotzaileak berak edo, hori ezean, konkurtso administrazioak egin beharko ditu, ahalmenen esku hartze araubidean egotekotan eta, nolanahi ere, administratze eta xedatze ahalmenak eten direnean.

c) Jasotzailea enpresaburua edo profesionala ez bada, hartzekodunak bidaltzen dizkion faktura zuzentzaileak aurkezteko eskatu ahal izango dio zerga administrazioak.

d) Hartzekodunen hitzarmena onartzeak ez du aldez aurretik egin zen zerga oinarria aldatzea ekarriko.

**3.** Europako Erkidego barruko eskurapenen kasuan, baldin eta hartzaileak Europako Erkidegoko kide den estatu batean lortzen badu zerga berezien itzulketa (ondasunen hasierako espedizioari edo garraioari dagokionez), murriztu egingo da zerga-oinarria horri dagokion zenbatekoan.

Hala ere, ez dira aldatu beharko 78. artikuluari dagozkion Europako erkidegoko eragiketak biltzen dituen aitorpeneko zenbatekoak.

Sortutako kuotaren zenbatekoa aldatu bada, itzulketa jaso den epealdiari dagokion aitorpen-likidazioan islatuko da, salbu eta subjektu pasiboak berak aldez aurretik erabat kendu badu. Azken kasu horretan ez dira erregularizatu beharko aitortutako datuak.

## (18) IV BIS TITULUA
## SUBJEKTU PASIBOA

### 24 bis artikulua.- (21) Zerga oinarria eragiketa jakin batzuetarako.

Zerga oinarria Zergaren Arautegiko 79. artikuluko Hamar idatz zatian xedatutakoaren arabera zehaztu behar denean, aipaturiko manuak ezartzen dituen baldintzak biltzen diren ala ez idatzizko aitorpen baten bidez egiaztatu beharko da. Subjektu pasiboari zuzendutako idatzizko aitorpena izango da, hartzaileak sinatuko du, eta, bere ardurapean, aitorpen horretan ziurtatuko du emandako urrea zergatik salbuetsita erosi edo inportatu zuela, Zergako Arautegiko 140 bis.bat.1. artikuluan xedaturikoa aplikatuz; edo, bestela, hala ez zela izan.

**24 ter artikulua.- (21) Landu gabeko urrearen eta urrezko produktu erdilanduen kontzeptua.**

Zergari buruzko Arauaren 84. artikuluko Bat paragrafoko 2. zenbakiko b) letran ezarritakoaren ondorioetarako, landu gabeko urretzat eta urrezko produktu erdilandutzat joko da urrezko produktu amaituak lantzeko lehengai gisa erabili ohi dena, hala nola lingoteak, ijeztuak, xaflak, orriak, hagaxkak, hariak, bandak, tutuak, granailak, kateak edo dituen ezaugarri objektiboengatik azken kontsumora zuzentzen ez den beste edozein.

**24 quater artikulua.- (41) Subjektu pasiboaren inbertsio arauak aplikatzea.**

**1**. (42) Zergaren arauaren 84. artikuluko 1. paragrafoaren 2 zenbakiko e) letrako bigarren gidoian adierazitako ondasun entrega egiten duen enpresaburuak edo profesionalak berariaz eta egiaztatzeko moduan jakinarazi beharko dio eskuratzaileari egindako eragiketa bakoitzagatik salbuespenari uko egin izana.

Zergaren arauaren 163 sexies artikuluko 5. paragrafoan adierazitakoari kalterik egin gabe, eskualdatzaileak aurreko paragrafoan adierazitako ukoa egin ahal izango du kasu honetan bakarrik: eskuratzaileak egiaztatzen dionean subjektu pasiboa dela, arautegi honen 8. artikuluaren 1. paragrafoak adierazitako eran.

**2.** Zergaren arauaren 84. artikuluko Bat idatz zatiaren 2. paragrafoko e) letrako hirugarren gidoian adierazitako eragiketen jasotzaileek berariaz eta egiaztatzeko moduan jakinarazi beharko diote ematea egiten duen enpresaburu edo profesionalari eragiketa horietan enpresa buru edo profesional gisa jarduten ari direla.

**3.** Zergaren arauaren 84. artikuluko Bat idatz zatiaren 2. paragrafoko f) letrako lehenengo lerroaldean adierazitako eragiketen jasotzaileek berariaz eta egiaztatzeko moduan jakinarazi beharko dizkiote/dizkiete kontratista nagusiari edo nagusiei hurrengo inguruabarrak:

a) Eragiketa horietan enpresaburu edo profesional gisa jarduten ari direla.

b) Eragiketa horiek egiten ari direla lurrak urbanizatzeko prozesu baten harira edo eraikinak egin edo birgaitze prozesu baten harira.

**4.** Zergaren arauaren 84. artikuluko Bat idatz zatiaren 2. paragrafoko f) letrako bigarren lerroaldean adierazitako eragiketen jasotzaileek berariaz eta egiaztatzeko moduan

jakinarazi beharko dizkiete azpikontratistei artikulu honetako aurreko idatz zatiko b) letran adierazitako inguruabarra:

**5.** (42) Zergaren arauaren 84. artikuluko 1. paragrafoaren 2 zenbakiko g) letrako bigarren eta hirugarren gidoietan adierazitako eragiketen jasotzaileek gorabehera hauek berariaz eta egiaztatzeko moduan, hala badagokio, jakinarazi beharko dizkiote ondasunen entrega egiten duen enpresaburu edo profesionalari:

a) Eragiketa horietan enpresaburu edo profesional gisa jarduten ari direla.

b) Eragiketa horietan birsaltzaile gisa jarduten ari direla, eta hori egiaztatu beharko dute arautegi honetako 24 quinquies artikuluak aipatutako berariazko egiaztagiri bat aurkeztuta, ondorio horietarako Zerga Administrazioak egina.

**6.** (42) Aurreko idatz zatietan aipatzen diren jakinarazpenak aipatu eragiketak osatzen dituzten ondasunak edo zerbitzuak eskuratu baino lehen edo eskuratu bitartean egin beharko dira.

**7.** (42) Aurreko idatz zatietan aipatzen diren eragiketen hartzaileek beren erantzukizunpean frogatu ahal izango dute, entrega egiten duen edo zerbitzua ematen duen enpresaburuari edo profesionalari zuzendutako eta beraiek sinatutako idatzizko adierazpen baten bidez, baldintza hauek betetzen dituztela, kasu bakoitzean eta bidezkoa denean:

a) Eragiketa horiekiko, enpresaburu edo profesional gisa ari direla jarduten.

b) (45) Ondasun higiezinak eskuratzeagatik jasandako zerga karga osoa edo haren zati bat kentzeko eskubidea dutela.

c) Eragiketa horiek lursaila urbanizatzeko, edo eraikinak eraikitzeko edo birgaitzeko prozesu baten baitan egiten direla.

**8.** (42) Zergaren arauaren 87. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako gorabeherak egonez gero, aipatutako jasotzaileek era solidarioan erantzungo diote zerga zorrari; hala ere, arau horretako 170. artikuluaren 2. paragrafoko 2, 6 eta 7 zenbakietan xedatutakoa aplikatu beharko da.

**24 quinquies artikulua.- (42) Enpresaburu edo profesional birsaltzailearen kontzeptua eta betebeharrak.**

Zergaren arauaren 84. artikuluko 1. paragrafoaren 2 zenbakiko g) letrako bigarren eta hirugarren gidoietan xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketa horien xede diren ondasun eskuratuak birsaldu ohi dituen enpresaburua edo profesionala da birsaltzailea.

Enpresaburu edo profesional birsaltzaileak Zerga Administrazioaren erakunde eskudunari birsaltzaile dela jakinarazi beharko dio, errolda aitorpena aurkeztuz; jarduera hasten dutenean edo aitorpenak eragina izan behar duen urte naturala hasi aurreko azaroan aurkeztu behar dute aitorpena.

Jakinarazpena hurrengo urteetarako luzatuko da birsaltzaile izateari uzten ez bazaio, eta uzten bazaio, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio, aldaketaren errolda aitorpena aurkeztuz.

Enpresaburu edo profesional birsaltzaileak ziurtagiri bat lortu ahalko du egiaztatze kode seguru batekin, Zerga Administrazioan, zeinak egiten den urte naturalean zehar balioko baitu.

## V. TITULUA
## ZERGAREN JASANARAZPENA

### 25. artikulua.- Jasanarazpenari buruzko arau bereziak. (5)

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauaren 88. artikuluko lehenengo atalean xedatutakoari dagokionez, administrazio kontratuak egiteko ohartematen diren baldintza berezien zerrendetan berariaz jarriko du enpresariek egiten dituzten eskaintzek, kontrataren prezioaz gain, Zergaren zenbatekoa ere agertzen dutela ondorio guztietarako.

## VI. TITULUA
## ZERGA-TASAK

### 26. artikulua.- (41) Zerga tasa murriztua.

Zergaren arauaren 91. artikuluko Bat.2 idatz zatiko 10. paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, jasotzailea ez dela enpresaburu edo profesional gisa ari, etxebizitza beretzat erabiltzen duela eta etxebizitzaren eraikuntza edo birgaitzea obrak hasi baino bi urte lehenago gutxienez amaitu zela egiaztatzeko, obren jasotzaileak idatzizko adierazpen sinatua zuzenduko dio subjektu pasiboari, eta bertan aurretik aipatutako zehaztapenen berri emango du, bere ardurapean.

Zergaren arauaren 87. artikuluko Bat idatz zatian ezarritako inguruabarrak egonez gero, aipatutako jasotzaileak era solidarioan erantzungo dio zerga zorrari, hala ere, arau horretako 170. artikuluko Bi idatz zatiko 2. paragrafoan xedatutakoa aplikatu beharko delarik.

### 26 bis artikulua.- (27) Zerga tasa murriztua.

**Bat.** (45) Zenbait etxebizitza emateri buruz indarrean dagoen Zerga Arauaren 91. Bi.1.6 artikuluko bigarren paragrafoan xedatzen denerako, jasotzaileak subjektu pasiboari igorritako eta izenpetutako adierazpen idatzi baten bidez egiaztatu ahal izango dio azaroaren 27ko Sozietateen gaineko zergaren Legeak VII. tituluko III. kapituluan ezartzen

duen araubide berezia aplikatu ahal duela eta ondoko errentamenduaren errentei aplikatu ahal zaiela lege horrek 49.1 artikuluan arautzen duen hobaria. Idatzi horretan araubidea eta hobaria aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzea bere erantzukizuna adierazi beharko du jasotzaileak.

Hartzailea zerga zorraren erantzule solidario izango da, Zergaren Arauaren 87.1 artikuluan xedatutakoren bat bada. Horrez gain, aipatutako arauaren 170.2.2 artikuluan xedatutakoa ere aplikatu ahal izango da.

**Bi.**

**1.** (41) Zergaren arauaren 91.Bi.1.4. artikuluaren bigarren lerroaldean xedatutakoa aplikatuko da mugikortasun murriztua duten pertsonen edo aulki gurpildunean dabilen ezinduaren ohiko ibilgailua izango dena ematean, Europar Batasunaren barruan eskuratzean edo inportatzean, baldin eta ondorengoak betetzen badira:

1. Baldintza beretan azken ibilgailua erosi zenetik, gutxienez, lau urte igaro badira.

   Baldintza hori ez da bete beharko, baldin eta ibilgailuak erabateko ezbeharra izan badu edo aurreko ibilgailuari behin betiko baja eman bazaio. Erabateko ezbeharra aseguru etxeak ziurtatu beharko du.

   (45) Ez dira antzeko baldintzatan eskuratutzat joko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, besteren menpean bizi diren pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzekoak, aipatzen dituen autonomia pertsonala eta mendekotasunaren arreta sustatzeko gizarte zerbitzuak egiten dituzten pertsona juridikoek edo entitateek eta azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak, aipatzen dituen gizarte zerbitzuek gurpil aulkian ibili behar eta desgaitasuna duten pertsonen edo mugikortasun urritua duten pertsonen ohiko garraiorako erosten dituzten ibilgailuak, baldin eta pertsona talde zehatz baten garraiorako erabiltzen badira edo aurreko erosketa edo erosketak gertatu diren lurralde esparru edo geografia esparruan ez beste batean erabiltzen badira.

   Edonola ere, ibilgailua eskuratzen duenak justifikatu beharko du aurreko ibilgailua edo ibilgailuak erostean izan ziren baldintzak ez diren beste batzuk daudela orain.

2. Erosi ondorengo lau urteetan bizien arteko egintza batean eskualdatzen ez bada.

**2.** (41) Zergaren arauaren 91.Bi.1.4. artikuluaren bigarren lerroaldeak xedatutako zerga tasa aplikatzeak berekin dakar Arabako Foru Aldundiak aldez aurretik eskubidea onartzea. Zerga tasaren aplikazio hori erosleak zein ezinduak sinatutako eskaerak abiaraziko du. Onartuz gero, onarpen horrek eskatzen den unetik bertatik aurrera izango du eragina.

Egiaztatu egingo da ibilgailua mugikortasuna murriztua duten pertsonen edo aulki gurpildunean dabilen ezinduaren ohiko ibilgailua izango dela. Ondokoak dira hori egiaztatzeko bideak:

a) Ezindua izatea ibilgailuaren jabea.

b) Eroslea ezinduaren ezkontidea izatea edo ezinduarekin, gehienez, hirugarren mailara arteko (hori barne) zuzeneko edo zeharkako ahaidetasuna izatea.

c) Eroslea ezinduaren izatezko bikotekide izatea. Izatezko bikote hori haiek bizi diren autonomia erkidegoko izatezko bikoteen erregistroan egongo da erroldaturik.

d) Eroslea ezinduaren tutore, lege ordezkari edo izatezko zaintzaile izatea.

e) Eroslea ezinduarekin bizi izatea edo hura bizi den etxebizitzan izatea zerga egoitza. Lehenengoa egiaztatzeko erosleak errolda ziurtagiria aurkeztuko du.

f) Ibilgailua pertsona juridikoren batek erosten badu, ezinduekin lan egiten duela edo plantillan ibilgailua ohikotasunez erabiliko duten langile ezinduak dituela egiaztatuko du.

Ezintasuna edo mugikortasun murriztua egiaztatuko da Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) edo eskudun den organoak emandako ziurtagiri edo ebazpen bidez.

Dena den, ondokoren bat izanez gero, ehuneko hogeita hamahiruko ezintasuna edo handiagoa dela esan nahiko du:

a) Gizarte Segurantzako pentsioduna, baldin eta Gizarte Segurantzak ezintasun iraunkor oso edo absolutua eta baliaezintasun handia aintzatetsi badio.

b) Ezintasun iraunkorreko edo ezgaitasun erretiro pentsioa onartuta duen klase pasiboetako pentsioduna.

c) Ezintasuna epai bidez onartuta duen ezindua. Horrelakoetan, onartuko zaion ezintasuna ehuneko hirurogeita bostekoa izango da, nahiz eta hainbestekoa izan ez.

Mugikortasun murriztuko pertsonak izango dira:

a) Itsuak edo ikusmena urrituta dutenak eta Espainiako Itsuen Erakundeko (ONCE) kideak. Azken horiek ziurtagiri bidez egiaztatuko dute kidetasun hori.

b) Ezinduentzako aparkaleku txartelen jabeak (txartel horiek udalek edo autonomia erkidegoek emandakoak izan beharko dute), zeinek mugikortasun murriztua egiaztatuko duten Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) edo eskudun den organoak emandako ziurtagiri edo ebazpen bidez.

**3.** Inportazioak direla eta, aduanak izango du eskubide hori onartzeko ahalmena.

**4.** Zerga tasa murriztua aplikatu ahal izango dute Zergaren Arauaren 91.bi.1.4 artikuluaren bigarren lerroaldean aipatutako aulki gurpildunetako ezinduen edo mugikortasuna murriztuta dutenen ohiko garraiobide izango diren ibilgailuak entregatzen dituzten subjektu pasiboek, baldin eta erosleak bere eskubidea Arabako Foru Aldundiaren erabaki bidez egiaztatzen badu. Iraungi bitartean eutsi beharko zaio erabaki horri.

## VII. TITULUA
## KENKARIAK ETA ITZULKETAK

## I. KAPITULUA
## KENKARIAK

**27. artikulua.- (20) Enpresa edo profesio jarduerei dagozkien ondasunak entregatzen edo zerbitzuak ematen hasi baino lehen jasandako edo ordaindutako kuotetan kenketa egitea.**

**1.** Aurretik enpresa edo profesio jarduerarik egin ez dutenek ondasunak edo zerbitzuak erosi edo inportatzen badituzte jarduera horietan erabiltzeko asmoz, erosketa edo inportatze horiek egin zituzten unean asmo hori zutela egiaztatzen duten elementu objektiboak kreditatzeko modua izan beharko dute, eta zerga administrazioak kreditazio hori eskatu ahalko die.

**2.** Aurreko paragrafoan aipatzen den kreditazioa zuzenbidean onartutako frogabideetako edozein erabiliz egin ahalko da.

Horretarako inguruabar hauek hartu ahalko dira kontuan, besteak beste:

a) Erosi edo inportatutako ondasun edo zerbitzuen izaera garatu nahi den jardueraren ezaugarriekin bat etorriko da.

b) Ondasun edo zerbitzu horiek erosi edo inportatu direnetik zenbat denbora igaro den enpresa edo profesio jardueraren helburu diren ondasun entregak edo zerbitzu emateak benetan gauzatu diren arte.

c) Zergari buruzko araudiak, Merkataritzaren Kodeak edo enpresaburu eta profesionalei ezarri behar zaien beste edozein arauk eskatutako forma, erregistro eta kontularitza betebeharrak konplitzea.

   Horri dagokionez, betebehar hauek konplitzen diren hartuko da kontuan bereziki:

   a’) Aitorpen bat aurkeztu beharra: horren bidez, Administrazioari jakinaraziko zaio enpresa edo profesio jarduerei ekin zaiela ondasunak edo zerbitzuak erosi edo inportatu direlako jarduera horietan erabiltzeko asmoz; Zergaren Araudiaren 164. artikuluaren Bat paragrafoko 1. zenbakian aipatzen da hori.

   b’) Araudi honen IX. Tituluan eskatutako kontularitza betebeharrak behar bezala arteztea eta, bereziki, jasotako ordainagirien erregistro liburua eta, hala badagokio, inbertsio ondasunen erregistro liburua.

d) Garatu nahi den jarduerarako behar diren administrazio baimenak edo lizentziak edukitzea edo eskatu izana.

e) Enpresa edo profesio jarduera horri dagokionez, Balio Erantsiaren Zergaz besteko zergen aitorpenak aurkeztu izana.

**3.** Artikulu honetako 1. paragrafoan aipatzen den ondasun edo zerbitzu erosle edo inportatzaileak ezin badu kreditatu ondasunak edo zerbitzuak erosi edo inportatu zituenean enpresa edo profesio jardueretan erabiltzeko asmoa zuela, erosketa edo inportazio horiek ez dira joko enpresaburu edo inportatzaile batek egindakotzat eta, horrenbestez, eragiketa horiek direla kausa jasaten edo ordaintzen dituen zerga kuotak ez dira kengarriak izango, nahiz eta ondasun edo zerbitzu horiek erosi edo inportatu ondoren erabaki horiek enpresa edo profesio jarduera batean erabiliko dituela.

**4.** Dagoeneko horrelako jardueretan ari direlako enpresaburu edo profesional izaera dutenek eta beste enpresa edo profesio jarduera bati ekiten diotenek ere artikulu honetako aurreko paragrafoetan ezarritakoa bete beharko dute, baldin eta jarduera horiek aurrekoak ez bezalako alor batekoak badira.

**28. artikulua.- (20) Aukera eta eskabideak kenketen alorrean.**

**1.** Kenketen alorrean, subjektu pasiboak aukeraz baliatuko ahalko dira eta ondoren zehazten diren kenketa eskabideak aurkeztu, adierazten diren epeetan eta ondorioekin:

1. (41) Hainbanaketa bereziaren erregela aplikatzea aukeratzea; zergaren arauaren 103. artikuluko Bi idatz zatiko 1. paragrafoan aipatzen da hori.

Aukera hori honela baliatu ahal izango da:

a) Orokorrean, urte natural bakoitzeko azken aitorpen-likidazioan. Halakoetan urte horretan egindako kenketak erregularizatuko dira.

b) Enpresa edo lanbide jarduerak abiaraztean, aldez aurretik, hala badagokio, egiten zirenez besteko sektore berezitua osatu zeinez, harik eta jarduera horiei dagozkien ondasunak entregatzeari edo zerbitzuak eskaintzeari ekiten zaion aldiaren gaineko aitorpen-likidazioa aurkezteko epea bukatzen den arte.

Subjektu pasiboak baliogabetu ezean, eragina izango du hainbanaketa bereziaren erregela aplikatzea aukeratzeak; nahiz eta aukera horrek gutxienez hiru urte naturalerako balioa izango duen, baliatutako aukerak adierazitako urte naturala barne hartuta.

Baliogabetzea egin ahal izango da, aipatutako gutxieneko epea igarotakoan, urte natural bakoitzeko azken aitorpen-likidazioan. Halakoetan urte horretan egindako kenketak erregularizatuko dira.

2.a Zergaren Arauaren 9. artikuluko 1. zenbakiko c) letrako a') letran sartzen diren alor berezituentzako kenketa erkidearen erregimena ezartzeko eskabidea; Arauaren 101. artikuluko Bi paragrafoan aurreikusten da hori.

2. zenbaki honetan aipatzen den eskabidea epeotan eskatu ahalko da:

a) Oro har, zein urtetatik aurrera nahi den ondorioak izan ditzan, aurreko urteko

azaroan.

b) Enpresa edo profesio jarduera hasten denean, edo aurretik egiten ari zirenaz besteko alorreko jarduera hasten denean, jarduera horiei dagozkien ondasun entregak edo zerbitzu emateak ohikotasunez gauzatzen hasi eta hurrengo hilabetea amaitu arte.

Baimentzen den kenketa erregimena bakarrik ezarri ahalko zaie enpresa edo profesio jarduerei dagozkien ondasun entregak edo zerbitzu emateak egiten hasten direnez geroztik jasaten edo ordaintzen diren kuotei, baldin eta ondoren zehazten diren datetatik aurrera egiten badira, bai Administrazioak subjektu pasiboari hilabeteko epean artikulu honetako Bi paragrafoan jakinarazi behar dion erregimen baimenaren kasuan, bai hilabeteko epea igaro ondoren Administrazioaren jakinarazpena jaso ez delako emandakotzat jo behar diren baimenen kasuan:

a) Eskabidea zein urtetan aurkeztu den, hurrengo urteko urtarrilaren 1ean, 2. zenbaki honetako bigarren paragrafoko a) letran ezarritakoaren babespean aurkeztuko eskabideen kasuan.

b) Ondasun entregak eta zerbitzu emateak ohikotasunez egiten hasten diren eguna, 2. zenbaki honetako bigarren paragrafoko b) letran ezarritakoaren babespean aurkeztuko eskabideen kasuan.

Baimendutako kenketa erkidearen erregimena Administrazioak ezeztatzen ez duen bitartean edo subjektu pasiboak uko egiten ez dion bitartean izango ditu ondorioak. Uko egiteak zein urtetatik aurrera nahi den ondorioak izan ditzan, aurreko urteko abenduan egin beharko da.

Aurreko lerroaldean adierazitakoaren salbuespenez, baimendutako kenketa erkidearen erregimena ez da aplikatuko baldin eta urte batean kenketa erkidearen erregimena aplikatzearen ondorioz ken daitezkeen kuoten zenbateko osoa alor bakoitzean bere aldetik kenketa erregimena aplikatzetik aterako litzatekeenaren %20tik gorakoa edo handiagoa bada.

3.a Aurreko urterako behin betikotzat ezarritako kenketa ehunekoaz besteko behin-behineko ehunekoa ezartzeko eskabidea; Zergaren Arauaren 105. artikuluaren Bi paragrafoan aipatzen da hori.

3. zenbaki honetan aipatzen den eskabidea epeotan eskatu ahalko da:

a) Oro har, zein urtetatik aurrera nahi den ondorioak izan ditzan, urte horretako urtarrilean.

b) Dena delakoagatik urte jakin batean aurreko urtean behin betikotzat ezarritako ehunekoa ez bada egokia behin-behineko ehunekotzat hartzeko, hori eragin duten inguruabarrak gertatu eta hurrengo hilabetea amaitu arte.

Baimendutako behin-behineko ehunekoa egun hauetatik aurrera izango ditu ondorioak jasandako kuotei dagokienez:

a') Kenketaren behin-behineko ehunekoaren baimena hilabeteko epean jakinarazten

badio Administrazioak subjektu pasiboari artikulu honetako 2. paragrafoa , baimen horretan Administrazioak aipatzen duen data.

b') Hilabeteko epea igaro ondoren Administrazioaren jakinarazpena jaso ez delako emandakotzat jo behar den kenketaren behin-behineko baimenen kasuan, epe hori amaituz gero zerga likidatzeko hasten den epearen lehen eguna.

4.a (27) Behin-behineko murrizketa ehunekoari buruzko eskaera, Zergaren Arauaren 111. artikuluaren bigarren paragrafoan xedatutakoa. Murrizketa hori aplikatuko da enpresa edo lanbide jardunak abiaraztean eta aldez aurretik egiten zirenez besteko jardunei ekitean, baldin eta jardun horiei dagozkien ondasunak entregatu edo zerbitzuak eskaini aurretik ordaintzen ziren kuotak badira.

Ez da aipatutako eskaera hori aurkeztu beharko, baldin eta abiarazten diren jardunen helburu diren ondasunen entrega edo zerbitzu eskaintza edo aldez aurretik egiten zirenez besteko jardunak Zergaren Arauaren 94.1 artikuluan zerrendatutakoak badira, zeren horiek besterik gabe aitortzen baitute murrizteko eskubidea. Ondorio horietarako, ez dira kontuan izango Arauaren 104. artikuluaren Hiru paragrafoan aipatzen diren eragiketak.

Jarduera abiarazten dela jakinarazten dion aitorpenarekin batera aurkeztuko zaio administrazioari 4. zenbakian aipatzen den eskaera.

5.a Zergaren Arauaren 105. artikuluaren Hiru paragrafoaren bigarren lerroaldean aipatzen den kenketaren behin-behineko ehunekoaren eskabidea; enpresa edo profesio jarduera hasten denean, edo aurretik egiten ari zirenaz besteko alorreko jarduera hasten denean ezar daiteke hori. Jarduera horiei dagozkien ondasun entregak edo zerbitzu emateak ohikotasunez gauzatzen hasten diren urtean ezar daiteke ehuneko hori, jardueren hasieratik jasandako edo ordaindutako kuotei dagokienez eta aurreko 4. zenbakian aipatzen den kenketaren behin-behineko ehunekoa ezin bada ezarri, azken hori ez delako zehaztu.

(50) Ez da beharrezkoa izango aipatutako eskaera aurkeztea, baldin eta hasten diren jardueren xede izango diren ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak, eta, behar denean, lehenago egiten zirenak, Zergaren Arauaren 94. artikuluaren Bat atalean zerrendatutako eragiketak badira, eta eragiketa horiek egiteak kentzeko eskubidea sortzen badu.

Jardueren helburu diren ondasun entregak edo zerbitzu emateak ohikotasunez hasi eta hurrengo hilabetea amaitu artekoa izango da 5. zenbaki honetan aipatzen diren eskabideak aurkezteko epea.

**2.** (41) Eskaerak, ukoa, eta aukera eta azken horren baliogabetzea, aurreko idatz zatian adierazitakoak, Arabako Foru Aldundiari aurkeztuko zaizkio, hala badagokio.

Aipatutako eskaeren kasuan, administrazioak hilabete izango du, Arabako Foru Aldundiaren erregistroan sartu zireneko datatik zenbatzen hasita, horiek izapidetzeko, interesdunari eskaerei buruzko ebazpena jakinarazteko. Eskaerak onartutzat jo behar dira, epe hori igarotakoan jakinarazi ez arren.

## II. KAPITULUA
## ITZULKETAK (38)

### 29. artikulua.- Ofiziozko itzulketak.

Zergaren Arauaren 115. artikuluan aipatzen diren ofiziozko itzulketak Arabako Foru Aldundiak horretarako erabili eta zehazten duen moduan egingo dira.

### 30. artikulua.- (30) Likidazioaldi bakoitzaren amaierako itzulketak. (31)

**1.** (50) Araudi honen 30. artikuluan ezarritakoa gorabehera, bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzeko jardueran aritzen diren subjektu pasiboek zergaren araubide sinplifikatuaren arabera ordaintzen dituzte zergak, eta, erregelamendu honen 30. artikuluaren 2. atalaren b) eta c) letretan ezarritako baldintzak betez, jarduera horiei lotutako garraiobideak erostearen ondorioz zergaren kuota kengarriak jasan badituzte, kuota kengarriak itzultzeko eskatu ahal izango dute garraiobideak eskuratu dituzten hilaren hurrengo egutegiko lehen 20 egunetan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak horretarako ezartzen duen prozedura, leku eta moduaren arabera.

Salgaiak errepidez garraiatzen dituzten subjektu pasiboek erositako garraiobideek N1 kategorian egon beharko dute, eta, gutxienez, 2.500 kiloko baimendutako gehieneko masa izan beharko dute, edo N2 eta N3 kategorietan. Horiek guztiak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/858 (EB) Erregelamenduaren 4. artikuluan jasota daude. Erregelamendu hori ibilgailu motordunen eta horien atoien merkatua homologatu eta zaintzeari buruzkoa da, bai eta ibilgailu horiei zuzendutako sistemak, osagaiak eta unitate tekniko independenteak homologatzeari eta zaintzeari buruzkoa ere. Erregelamendu horrek 715/2007 (EE) eta 595/2009 (EE) Erregelamenduak aldatzen ditu, eta 2007/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du."

**2.** Erregistroan inskribatzeko, subjektu pasiboek eskabidea aurkeztu behar dute eta ondoko betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Inskripzioa aitorpen baten bitartez eskatu behar dute. Eskabidea baliabide telematikoen bitartez aurkeztu behar dute.

b) Zerga betebeharrak egunean eduki behar dituzte, foru dekretu honetako bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari lotuta.

c) Ezin dira egon hileko itzulketen erregistroan kautelaz baja ematea eragiten duten kasuetan (foru dekretu honetako hirugarren xedapen gehigarria), ez eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren ezeztapena eragiten dutenetan ere (identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautu dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuko 17. artikuluko 1. idatz zatiko a), b) eta c) letrak).

d) Ezin dute egin araubide erraztuan kargatzen den jarduerarik.

e) Zergari buruzko Foru Arauko IX. tituluko IX. kapituluan araututako erakunde taldeen araubide bereziari heldutako erakundeen kasuan, erregistroan inskribatzeko ezinbestekoa da araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakunde guztiak horretan bat etortzea eta idatz zati honetan ezarritako betekizunak betetzea.

Erakunderen batek betekizunen bat betetzen ez badu, araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakunde guztiak Zergaren hileko itzulketen erregistrotik kanpo utziko dira, edo ez dira onartuko.

Erregistroan inskribatzeko eskabidea, bai eta baja emateko eskabidea ere, taldeko erakunde nagusiak aurkeztu behar dio Zerga Administrazioari. Eskabideak araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakunde guztiak hartuko ditu.

Erregistroan inskribatzeko edo baxa emateko jarduketak, bai eta inskribatutako erakundeek betekizunak betetzen jarraitzen dutenez egiaztatzeko jarduketak ere, taldeko erakunde nagusiarekin egingo dira, taldearen ordezkaria den aldetik, Zergari buruzko Foru Arauko 163 nonies.Bi artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

**3.** Urte batean erregistroan inskribatuta egoteko, eskabidea aurreko urteko azaroan aurkeztu behar da. Inskripzioa ondorioak sortu behar dituen urteko urtarrilaren 1ean egingo da.

Hala ere, erregistroan inskribatzeko eskabidea aurreko paragrafoan ezarritako epealdian aurkezten ez duten subjektu pasiboek eta, enpresa edo lanbide jarduerei dagozkien ondasun emate edo zerbitzugintzak egiten hasi ez arren, jarduera horietarako ondasunak edo zerbitzuak eskuratu dituzten enpresaburu edo profesionalek (ondasun edo zerbitzuen xedea elementu objektiboen bidez berretsi behar da) aldizkako aitorpen-likidazioak aurkezteko epealdian eskatu ahal izango dute erregistroan inskribatzeko. Batera zein bestera, erregistroko inskripzioak aitorpen-likidazioak likidatzeko epealdiko azken egunaren biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Erakunde talde batek Zergari buruzko Foru Arauko IX. tituluko IX. Kapituluan araututako erakunde taldeen araubide bereziari heldu nahi badio eta erakunde guztiek erregistroan inskribatzeko eskatzea hitzartu badute, taldeko erakunde nagusiak inskripzio eskabidea araubide berezia hautatzeko agiriarekin batera aurkeztu behar du, eta honetarako ezarritako moduan, tokian eta epealdian. Eskabideak egutegiko hurrengo urtearen hasieratik aurrera sortuko ditu ondorioak. Erregistroan inskribatzeko akordioa geroago hitzartzen bada, eskabidea aldizkako aitorpen-likidazioak aurkezteko epealdian aurkeztu behar da, eta likidazioaldiko azken egunaren biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Erregistroan inskribatzeko eskabide bat epez kanpo aurkezten bada, ezezkoa emango zaio eta artxibatu egingo da, eta izapide bakarra subjektu pasiboari jakinaraztea izango da.

**4.** Subjektu pasiboek ezezkoa emantzat jo dezakete erregistroan inskribatzeko eskabidea aurkeztu eta hurrengo hiru hiletan espedientearen ebazpenaren berariazko jakinarazpena jasotzen ez badute.

**5.** Aurreko 2. idatz zatian ezarritako betekizunetako bat betetzen ez bada edo egiaztatzen bada Zerga Administrazioari emandako zentsu informazioa oker dagoela edo faltsua dela,

hori nahikoa izango da erregistroan inskribatzea ukatzeko edo, subjektu pasiboa inskribatuta badago, Zerga Administrazioak erregistrotik kanpo uzteko.

Subjektu pasibo baten bazterketak erabakia jakinarazten den likidazioaldiko lehen egunetik sortuko ditu ondoreak, erabakian besterik ezarri ezean. Honen ondorioetarako, aski izango da ebazpenaren testu osoa jakinarazteko ahalegin bat egin dela egiaztatzea.

Erregistrotik kanpo geratzen direnek ezin aurkeztu izango dute inskripzio eskaerarik hurrengo hiru urteetan, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denetik aurrera.

**6.** Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzen diren subjektu pasiboak bertan egon beharko dira inskripzio eskabidean adierazitako urtean, gutxienez. Beste alde batetik, inskribatzeko eskabidea aldizkako aitorpen-likidazioak aurkezteko epealdiaren barruan aurkezten duten subjektu pasiboak eta enpresa edo lanbide jarduerei dagozkien ondasun emate edo zerbitzugintzak egiten hasi ez diren enpresaburuak eta profesionalak gutxienez inskribatzeko eskabidean adierazitako urtean eta hurrengoan egon beharko dira erregistroan.

**7.** Urte batean erregistrotik norberaren borondatez irteteko eskabideak aurreko urteko azaroan aurkeztu behar dira. Zergari buruzko Foru Arauko IX. tituluko IX. kapituluan arautbutako erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten taldeei dagokienez, borondatezko bajaren eskabidea erakunde nagusiak aurkeztu behar du araudi honetako 61 bis artikuluko 5. idatz zatian ezarritako epealdian eta bertan azaldutako ondorioekin.

Hala ere, subjektu pasiboek baja eskabidea aurkeztu behar dute artikulu honetako 2. idatz zatiko d) letrako betekizuna betetzeari utziz gero. Eskabidea betekizuna betetzeari uzten zaion hileko aitorpen-likidazioa aurkezteko epealdiaren barruan aurkeztu behar da, eta hileko lehen egunetik sortuko ditu ondorioak.

Baja eskatuz gero, subjektu pasiboak ezin eskatu izango du berriz inskribatzeko egutegiko urte berean.

**8.** Subjektu pasibo bat hileko itzulketen erregistroan inskribatuta ez badago, egutegiko azken urtea ez beste likidazioaldi bati buruzko aitorpen-likidazio batean aurkezten duen itzulketa eskabideak ez du abiaraziko artikulu honetan ezarritako itzulketa prozedura.

**9.** (43) Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatutako subjektu pasiboek hilero aurkeztu behar dituzte zergaren aitorpen likidazioak, eta nahitaez baliabide elektronikoak erabiliz.

**30 bis artikulua.- (30) Bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzen dituzten subjektu pasiboei kuota kengarriak itzultzea.**

**1.** (49) Araudi honen 30. artikuluan ezarritakoa gorabehera, bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzeko jardueran ari diren subjektu pasiboek, zergaren araubide erraztuaren arabera ordaintzen badituzte zergak, eta, erregelamendu honen 30. artikuluaren 2. apartatuaren b) eta c) letretan ezarritako baldintzak betez, jarduera horiei lotutako garraiobideak erostearen ondorioz zergaren kuota kengarriak jasan badituzte, kuota kengarri horiek itzultzeko eskatu ahal izango dute garraiobideak erosi ondoko hilaren lehenengo 25 egun naturaletan, salbu eta abenduan egiten bada; kasu horretan,

hurrengo urtarrilean eskatu ahal izango dituzte, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak horretarako ezartzen dituen prozedura, leku eta moduari jarraituz. (32)

(45) Salgaiak errepidez garraiatzen dituzten subjektu pasiboek aurreko paragrafoan aipatutakoa aplikatu ahal izateko, eskuratzen dituzten ibilgailuak N1 kategoriakoak izan behar dira (eta gutxienez 2.500 kiloko masa baimendua eduki) edo N2 edo N3 kategorietakoak. Kategoria horiek zuzentarau honetan arautzen dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko irailaren 5eko 2007/46/EE Zuzentaraua, ibilgailu motordunak eta atoiak eta horien sistemak, osagaiak eta unitate tekniko lokabeak homologatzeko esparruan eratzen duena; II. eranskina.

**2.** Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko kuota kengarriak bidezko aitorpen-likidazioetan adieraztea hautatzen duten subjektu pasiboei, araudi honetako 38. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoari lotuta.

**30 ter artikulua. Zergaren aplikazio lurraldeko, Kanariar Uharteetako, Ceutako eta Melillako enpresaburuek edo profesionalek Batasunean egindako eragiketengatik (zergaren aplikazio lurraldean egindakoak ez besteak) jasandako kuotak itzultzeko eskabideak. (41)**

**1.** Zergari buruzko Arauko 117 bis artikuluan araututako itzulketa eskabideak bide elektronikoz aurkeztuko dira, Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren atari elektronikoan horretarako dauden formularioen bitartez. Organo horrek atzerapenik gabe jakinarazi dio eskabidea jaso duela, hartu agiri elektroniko bat igorrita, eta kuotak jasan direneko Europar Batasuneko estatuari eskabidea bide elektronikoz bidaltzea erabakiko du 15 eguneko epean, eskabide jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

**2.** Hala ere, eskatzaileari bide elektronikoz jakinaraziko zaio bere eskabidea bidaltzea ez dela egokia, honako egoera hauetako bat gertatu denean eskabideari dagokion aldian:

a) Enpresaburua edo profesionala ez izatea halakotzat jardun duen bitartean.

b) Zerga osoaren kenkaria egiteko eskubidea sortzen ez duten eragiketak bakar-bakarrik egin izana.

c) Zerga nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezian edo baliokidetasun errekarguaren araubide berezian ordaintzen duten jarduerak bakar-bakarrik egin izana.

**3.** Eskatzaileak izena emanda eduki behar du mezu elektronikoen bidezko jakinarazpenen zerbitzuan artikulu honetan aipatutako eskabideen inguruan Arabako Foru Aldundiak egiten dituen komunikazioak jasotzeko.

**31. artikulua.- (34) (47) Zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dauden baina Erkidegoan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan ezarrita dauden enpresaburuei edo profesionalei egindako itzulketak.**

**1.** Zerga aplikatzen den lurraldean finkatu gabe baina Erkidegoan, Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan kokatuta dauden enpresaburuek edo profesionalek zergaren arauaren 119. artikuluan aipatzen den balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak itzultzeko eskatu ahal izango dute, honako baldintza hauek bete beharko dituen eskaera baten bidez:

a) Eskatzailea kokatuta dagoen estatu kideko zerga administrazioaren atari elektronikoan horretarako ezarritako formularioaren bidez egingo da aurkezpena bide elektronikoz, agintaritza eskudunak onartutako edukiarekin.

Kanarietan, Ceutan edo Melillan ezarritako eskatzaileen kasuan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren atari elektronikoaren bidez aurkeztuko da eskaera.

Organo horrek izango du artikulu honetan aipatzen diren eskabideak izapidetzeko eta ebazteko eskumena, eta eskatzaileari edo haren ordezkariari jakinaraziko dio eskaera noiz jaso duen, elektronikoki bidalitako mezu baten bidez.

b) Eskaerak barne hartuko ditu ondasun edo zerbitzuakeskuratzeagatik jasandako kuotak, baldin eta kuota horien ondorioz zerga sortu bada eta dagokion aldian dagokion faktura egin bada. Ondasun inportazioen kasuan, artikulu honetako 3. paragrafoan zehaztutako itzulketa aldian egindakoak jaso beharko dituzte eskabidean.

Era berean, urte natural bati dagokion beste eskaera bat aurkeztu ahal izango da, eta, hala denean, aurreko beste batzuetan jaso ez diren eragiketengatik jasandako kuotak jasoko ditu, betiere kontuan hartutako urte naturalean egin badira.

c) Agintaritza eskudunak erabaki ahal izango du eskabidearekin batera dagozkion fakturen edo inportazio agirien kopia elektronikoa aurkeztea, baldin eta horietako bakoitzeankontsignatutako zerga oinarria 1.000 eurotik gorakoa bada oro har, edo 250 eurotik gorakoa, erregaia bada.

d) Itzulketa eskaerak informazio hau jaso beharko du:

1. Eskatzailearen izen-abizenak edo sozietate izena eta helbide osoa.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikazio zenbakia edo eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia.

3. Posta elektronikoko helbide bat.

4. Itzuli nahi diren zergaren kuotei dagozkien ondasun eta zerbitzuakeskatzailearen enpresa edo lanbide jardueraren deskribapena. Ondorio horietarako, agintari eskudunak ezarri ahal izango du deskribapen hori jarduera kode batzuen bidez egitea.

5. Eskabideari dagokion itzulketa aldiaren identifikazioa, artikulu honen 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

6. Eskatzailearen aitorpen bat, non adierazten duen ez duela egiten zergaren aplikazio lurraldean zergaren arauaren 119. artikuluaren 2. apartatuko 2 zenbakian jasotzen ez den eragiketarik.

Halaber, baldin eta zergaren aplikazio lurraldean kokatuta dagoen establezimendu iraunkor baten titular den enpresaburu edo profesional bat bada, aitorpen horretan adierazi beharko da ez dela ondasunik entregatu ez zerbitzurik eman establezimendu iraunkor horretatik, eskaerak jasotzen duen aldian.

Hala ere, zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dauden baina Erkidegoan, Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan ezarrita dauden enpresaburuek edo profesionalek ez dute 6. zenbaki honetan xedatutakoa bete beharrik izango araubide horiek aplikagarri zaizkien eragiketei dagokienez, baldin eta araubide berezi horiek urrutiko salmentei eta ondasunen eta zerbitzu prestazioen barne emate jakin batzueiaplikatzen bazaizkie, horiek zergaren arauaren IX. tituluko XI. kapituluan araututa baitaude.

7. Banku kontuaren identifikazioa eta titulartasuna, dagozkion IBAN eta BIC kodeak berariaz aipatuta.

Zerga aplikatzen den lurraldean (Kanariar Uharteak, Ceuta edo Melilla) kokatutako kreditu erakunde bateko establezimendu batean irekitako kontua ez bada, transferentziak eragindako gastu guztiak adostutako itzulketaren zenbatekotik kenduko dira.

8. Faktura edo inportazio agiri bakoitzekoeskatzen diren datu gehigarriak eta kodetze datuak, paragrafo honetako a) letran adierazitako formularioan.

**2.** Itzulketa eskaera aurkeztutzat joko da artikulu honen aurreko paragrafoaren d) idatz zatiak aipatutako informazio guztia duenean bakarrik.

**3.** Itzulketa eskaeran, gehienez ere urte naturalean eta gutxienez hiru hilabetean jasandako kuotak sartu ahal izango dira.

Hala ere, eskaerak hiru hilabetetik beherako epean jasandako kuotak jaso ahal izango ditu, baldin eta aldi hori urte naturalari geratzen zaiona bada.

**4.** Itzulketa eskaera aurkezteko epea hiruhileko natural bakoitza edo urte natural bakoitza amaitu eta hurrengo egunean hasiko da, eta dagokion kuotak jasan diren urte naturalaren ondorengo irailaren 30ean amaituko.

**5.** Itzulketa eskaera urte natural batetik beherako itzulketa aldiari badagokio, baina ez hiru hilabetetik beherakoa, itzulketa eskaeran jasotako zergaren zenbatekoa ezingo da 400 eurotik beherakoa izan.

Itzultzeko eskaera urte natural bateko itzulketa aldiari edo urte natural bateko gainerako zatiari badagokio, eskabidean jasotako zergaren zenbatekoa ezin izango da 50 eurotik beherakoa izan.

**6.** Artikulu honetan aipatzen diren itzulketak eskatu ondoren, eskatzailea ezarrita dagoen estatu kidean behin-behinean kalkulatutako kenkari ehunekoa erregularizatzen bada,

itzulketa eskaera batean zuzendu beharko da haren zenbatekoa, eta ehuneko hori zuzendu zaion itzulketa aldiaren hurrengo urte naturalean aurkeztu beharko da.

Urte horretan itzulketa eskaerarik aurkeztu ez bada, zuzenketa eskaera bat bidaliko da bide elektronikoz, ezarpen estatuko zerga administrazioaren atari elektronikoaren bidez, agintaritza eskudunak onartutako edukiarekin.

**7.** Aurkeztutako eskaera ebazteko eskumena duen organoak uste badu ez duela behar duen informazio guztia, beharrezko informazio gehigarria eskatu ahal izango dio eskatzaileari, eskaera ezarrita dagoen estatu kideko agintaritza eskudunari edo hirugarrenei, mezu elektroniko baten bidez, eskaera jaso eta lau hilabeteko epean. Era berean, organo horrek beharrezkotzatjotzen duen geroko edozein informazio eskatu ahal izango du.

Itzulketa eskaera batean edo fakturen edo dagozkion inportazio dokumentuen kopia elektronikoan jasotako datuen baliozkotasunari edo zehaztasunari buruzko zalantzak daudenean, izapidetzeko eskumena duen organoak, hala badagokio, jatorrizko datuak aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari. Jatorrizko horiek Zerga Administrazioaren esku utzi beharko dira zergaren preskripzio epean.

Informazio gehigarriaren edo ondorengoaren eskaerei jasotzaileak hilabeteko epean erantzun beharko die, jasotzen dituenetik zenbatzen hasita.

**8.** Itzulketa eskaera onartzeko eskumena duen organoak jaso eta hurrengo lau hilabeteetan eman beharko zaio ebazpena eskatzaileari.

Hala ere, informazio gehigarria edo geroagokoa eskatu behar denean, ebazpena hartu eta eskatzaileari jakinarazi beharko zaio bi hilabeteko epean, eskatutako informazioa jasotzen denetik edo informazio hori eman zenetik hilabeteko epea amaitzen denetik, baldin eta hartzaileak eskaera horri erantzuten ez badio. Kasu horietan, itzultzeko prozedurak gutxienez sei hilabeteko iraupena izango du, ebazteko eskumena duen organoak eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, informazio gehigarria edo geroagokoa eskatu behar denean, itzultzeko eskaera ebazteko gehieneko epea zortzi hilabetekoa izango da, eskaera jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezetsitzat joko da zenbaki honetan aipatzen diren epeak igaro ondoren ez bada ebazpenaren berariazko jakinarazpenik jaso.

**9.** Itzulketa egin ondoren, artikulu honen aurreko paragrafoan aipatutako epeak amaitu eta hurrengo 10 egunetan ordaindu beharko da.

**10.** Eskatzaileakerrekurtsoa jarri ahal izango du aurkeztutako eskabidearen ezespen osoaren edo partzialaren aurka, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren V. tituluan xedatutakoaren arabera.

**11.** Agintari eskudunak ezarri ahal izango du zein hizkuntzatan bete behar den itzulketa eskaera eta organo eskudunak izapidetzeko eta ebazteko eskatzen duen informazio gehigarria edo gerokoa.

**31 bis artikulua.- (34) Itzulketak egitea ez Zergaren aplikazio lurraldean, ez Batasunean, ez Kanarietan, ez Ceutan, ez Melillan establezimendurik ez duten enpresaburu eta profesional batzuei.**

**1.** (47) Zerga aplikatzen den lurraldean eta Erkidegoan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan ez dauden enpresaburuek edo profesionalek zergaren arauaren 119 bis artikuluan aipatzen den balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak itzultzeko eskatu ahal izango dute, honako baldintza hauek bete beharko dituen eskaera baten bidez:

a) Aurkezpena bide elektronikoz egingo da, agintari eskudunak onartutako ereduaren bidez eta egiaztapen betekizunak beteta; horiek Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren atari elektronikoan egongo dira, hura baita izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna.

b) Itzulketa eskaerak gehienez ere urte naturalean eta gutxienez hiru hilabetean jasandako kuotak jaso ahal izango ditu.

Hala ere, eskaerak hiru hilabetetik beherako epean jasandako kuotak jaso ahal izango ditu, baldin eta aldi hori urte naturalari geratzen zaiona bada.

c) Eskaeran, ondasun edo zerbitzuen eskuraketengatik jasandako kuotak kontsignatuko dira, baldin eta kuota horien ondorioz zerga sortu bada eta dagokion aldian dagokion faktura egin bada. Ondasunen inportazioen kasuan, eskaera paragrafo honetako b) letran zehaztutako itzultze aldian egindakoak izan beharko dira.

Era berean, urte natural bati dagokion beste eskaera bat aurkeztu ahal izango da, eta, hala denean, aurreko beste batzuetan jaso ez diren eragiketengatik jasandako kuotak jasoko ditu, betiere kontuan hartutako urte naturalean egin badira.

d) Itzulketa eskaerak honako hauek jaso beharko ditu:

1. Eskatzaileak edo bere ordezkariak sinatutako aitorpen bat, non adierazten duen ez duela egiten zergaren aplikazio lurraldean zergaren arauaren 119. artikuluaren 2. apartatuko 2 zenbakian jasotzen ez den eragiketarik.

Halaber, baldin eta zergaren aplikazio lurraldean kokatuta dagoen establezimendu iraunkor baten titular den enpresaburu edo profesional bat bada, aitorpen horretan adierazi beharko da ez dela ondasunik entregatu ez zerbitzurik eman establezimendu iraunkor horretatik, eskaerak jasotzen duen aldian.

Hala ere, Erkidegoan finkatuta ez dauden enpresaburuek edo profesionalek, Zergaren Arauaren IX. tituluko XI. kapituluan araututako urrutiko salmentei eta ondasunen barne emate eta zerbitzu emate jakin batzuei aplika dakizkiekeen araubide bereziei heltzen badiete, ez dute 1. zenbaki honetan xedatutakoa bete beharrik izango araubide horiei atxikitako eragiketei dagokienez.

2. Eskatzaileak edo haren ordezkariak izenpetutako konpromisoa, bidegabeak diren itzulketen zenbatekoa Ogasun Publikoari itzultzeko.

3. Eskatzailea kokatuta dagoen estatuko agintari eskudunek emandako ziurtagiria, zeinetan egiaztatuko baita balio erantsiaren gaineko zergari edo antzeko zerga bati

lotutako enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituela bertan, itzultzekoeskatzen diren kuotak sortu diren aldian.

4. (50) Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko titularrak erabaki ahal izango du eskabidearekin batera fakturen edo inportazio dokumentuen kopia elektronikoa aurkeztea, baldin eta horietako bakoitzean esleitutako zerga oinarria 1.000 eurotik gorakoa bada oro har, edo 250 eurotik gorakoa erregaiaren kasuan.

5. (50) Ordezkari batek eskatzaile jakin baten kontura aurkezten duen lehen eskaera denean, edo aurretik aurkeztutako ahalordea indarrean ez dagoenean, eskaerarekin batera ordezkaritza-ahalordea aurkeztu beharko da, itzulketa eskaera aurkeztu aurretik emana, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko titularraren aginduz zehaztutako baldintzakbetetzen dituena.

Eskabidea ez da aurkeztutzat joko, harik eta letra honen 3. eta 5. aspartatuetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu arte.

**2.** Eskabideak aurkezteko epealdia egutegiko hiruhileko edo urte bakoitza amaitzen denetik eskabideko kuotak jasan diren hurrengo urteko irailaren 30era artekoa izango da.

**3.** Jatorrizko fakturak eta itzulketa jasotzeko eskubidearen inguruko gainerako jatorrizko egiaztagiriak Zerga Administrazioaren eskura egongo dira Zergaren preskripzio aldian.

**4.** (47) Itzulketa eskaera urte natural batetik beherako itzulketa aldiari badagokio, baina ez hiru hilabetetik beherakoa, itzulketa eskaeran jasotako zergaren zenbatekoa ezingo da 400 eurotik beherakoa izan.

Itzultzeko eskaera urte natural bateko itzulketa aldiari edo urte natural bateko gainerako zatiari badagokio, eskabidean jasotako zergaren zenbatekoa ezin izango da 50 eurotik beherakoa izan.

**5.** Artikulu honetan aipatutako itzulketa eskabideak araudi honetako 31. artikuluko 6 – 11 bitarteko idatz zatietan xedatutakoarekin bat etorriz izapidetu eta ebatziko dira.

## 32. artikulua.- Garraiagailu berriak lantzean behin emateagatik egiten diren itzulketak.

Enpresariek edo profesionariek Zergaren Arauaren 5. artikuluko lehenengo atalaren e) letran aipatzen diren kuotak jasan eta gero haiek itzultzeko eskabidea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartzen duen ereduaren arabera egin beharko da eta Arabako Foru Aldundian aurkeztu beharko da, Ekonomia Ituneari jarraiki hala behar duten kasuetan. Eskabide horrekin batera bi agiri hauek aurkeztuko dira:

1.a Itzultzeko eskatzen den kuota agertzen duen jatorrizko faktura. Bertan eragiketaren gaia den garraiagailuaren datu teknikoak azalduko dira.

2.a Garraiagailua inoiz emateari dagokion jatorrizko faktura. Eskabide egileak egina izango da eta bertan eragiketaren gaia den garraiagailuaren datu teknikoak eta ematearen hartzailea identifikatzekoak azalduko dira.

## VIII. TITULUA
## ERREGIMEN BEREZIAK

### I. KAPITULUA (13)
### ARAU OROKORRAK

**33. artikulua.- (13) Erregimen berezien ezarpena onartu eta uko egin.**

**1.** (18)

**2.** (14) Erregimen berezi erraztuak eta nekazaritza, abelzaintza eta arrantzari buruzkoak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauak horretarako aipatzen dituen betebeharrak bete eta haiei berariaz uko egiten ez dieten subjektu pasiboei aplikatuko zaie.

Jarduerari ekiten zaiola adierazten duen aitorpena aurkeztearekin batera egin beharko da ukoa edo, bestela, ondorioak izan behar dituen urtearen aurreko abenduan. Erregimen erraztua edo nekazaritza, abelzaintza edo arrantzaren erregimena aplikatu beharreko jarduerari ekiten zaionean uko egiteak jarduera hau hasten denetik izango situ ondorioak. (15)

Uko egin dela ulertuko da baldin eta erregimen orokorra aplikatuz ondorioak izango ditueneko urtea naturalaren lehenengo hiruhilabetekoari dagokion aitorpen-likidazioa epean aurkezten bada. Era berean, jarduerari ekinez gero, uko egin dela ulertuko da, baldin eta erregimen orokorra aplikatuz, jarduerari ekin ondoren subjektu pasiboak aurkeztu beharreko lehenengo aitorpen-likidazioa epean aurkezten bada.

Subjektu pasiboak erregimen erraztuan, nekazaritza, abelzaintza eta arrantzaren erregimenean sartzen den jarduera bat burutzen duenean eta urte hartan aipaturiko erregimenen batean sar daitekeen beste bati ekiten badio, dagokion erregimen bereziari uko egiteak urte horretan ez du baliorik izango lehendik burutzen zen jarduerarako.

Uko egitearen eraginak hiru urteko iraunaldia izango du gutxienez eta erregimen bereziak aplikatu behar diren urteetara luzatzen dela ulertuko da baldin eta ondorioak izaten hasi behar deneko urte naturala hasi aurreko abenduan ezerezten ez bada.

Erregimen erraztuari, nekazaritza, abeltzaintza edo arrantzaren erregimenari uko egiteak ondorioak izan behar dituen urtearen aurrekoan bere aplikazio eremuaren muga gainditzen badu, aipaturiko ukoa egin izan ez balitz bezala ulertuko da.

Erabilitako ondasunen, arte-lanen, zaharkinen eta bildumako objektuen erregimen berezia Zergari buruzko Arauak zehaztutako baldintzak betetzen dituzten eragiketei aplikatuko zaie, baldin eta subjektu pasiboak bere jarduera enpresarial edo profesionalei ekiteari dagokion aitorpena, zein aipaturiko Arauaren 164. artikuluaren Bat atalaren 1 zenbakian

xedatzen den, aurkeztu badu. Hala ere, eragiketaren etekinaren marginaren bidez zehaztutako zerga oinarriaren modalitatean, subjektu pasiboak erregimen bereziari uko egin diezaioke eta burutzen duen eragiketa bakoitzari erregimen orokorra aplika diezaioke, uko egite hau administrazioari berariaz adierazi behar ez diolarik eta beste inolako baldintzarik bete behar ez delarik.

**3.** (14) Oraingo artikulu honetan xedatzen diren aukerak eta uko egiteak, baita berriztapenak ere, Arabako Foru Aldundian aurkeztutako idatzi bidez egingo dira.

Arreko paragrafoan xedatutakoa aurreko atalaren hirugarren paragrafoan zehaztutako uko egitearen modalitatean ez da aplikatuko.

## II. KAPITULUA (13)
## ERREGIMEN SINPLIFIKATUA (40)

### 34. artikulua.- (13) Luzapen subjetiboa.

Honako baldintzak betetzen dituzten subjetu pasiboek erregimen sinplifikatuaren bidez ordainduko dituzte zergak:

**1.** Pertsona Fisikoen Gaineko Zergaren araberako errentaren atribuzio erregimena duten pertsona fisikoak edo entitateak izango dira, beti ere, azken kasuan behintzat, bazkide guztiak, oinordekoak, komuneroak edo parte hartzaileak pertsona fisikoak badira.

Aurreko lerroaldian jasotako entitateei erregimen berezi sinplifikatua ezarriko zaie, entitatea osatzen duten norbanakoek gertaerak kontuan hartu gabe.

**2.** Araudi honetako 37. artikuluan jasotako edozein jarduera ekonomiko egitea, beti ere, Arabako Foru Aldundiak jarduera horiei ezarritako mugak gainditzen ez badira.

### 35. artikulua.- (13) Erregimen sinplifikatuari uko egitea.

Subjetu pasiboek uko egin ahalko diote erregimen sinplifikatuari, eta horretarako, Araudi honetako 33. artikuluan jasotako epe eta formari jarraituko diote.

Atribuzio erregimena duten entitateek uko egin ahalko diote erregimen berezi sinplifikatuari, baina entitateko bazkide, oinordeko komunero zein parte hartzaile guztiek egin beharko diote uko.

### 36. artikulua.- (21) Erregimen erraztua ez aplikatzea.

**1.** Honako hauek dira erregimen erraztua ez aplikatzeko baldintza erabakigarriak:

a) Arabako Foru Aldundiak, jarduera bakoitzerako, ezartzen dituen mugak gainditzea. Egoera hori gertatu, eta ondoko urterako izango ditu horrek ondorioak, jardueraren hasiera bada izan ezik, orduan jarduera hasten denetik bertatik ez da aplikatuko erregimen erraztua. Arrazoi horrengatik erregimen erraztua aplikatzetik kanpo gelditu diren subjektu pasiboak, hurrengo ekitaldietan aipaturiko mugak ez badituzte gainditzen, erregimen erraztuari lotuta geldituko dira, uko egiten badiote izan ezik.

b) (42) Urte natural batean zenbateko hauetatik edozein gainditu izana:

a’) Enpresa edo lanbide jarduera guztiak batuta (nekazaritza, basogintza eta abeltzaintzakoak ez beste guztiak), 150.000 euro urtean.

Horren ondorioetarako, eragiketa guztiak hartuko dira kontuan, faktura egin beharra egon ala ez, maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuan, fakturazio betebeharrak xedatzen dituen arautegia onartzen duenean, xedatutakoarekin bat etorriz.

b’) Zerga Administrazioak zehaztutako nekazaritzako, basozaintzako eta abeltzaintzako jarduera guztiak batuta, 250.000 euro urtean.

Horren ondorioetarako, arautegi honetako 40. artikuluaren 1. paragrafoko hirugarren idatz zatian eta 47. artikuluaren 1. paragrafoan xedatutako erregistro liburuetan jaso beharreko eragiketak baino ez dira kontuan hartuko.

Aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, zenbateko horien urte osoko kopurua hartuko da kontuan.

Erregimenetik kanpo gelditzeko arrazoi horrek arrazoia bera gertatu eta hurrengo urtean izango du eragina. Arrazoi horrengatik erregimenetik lehenago kanpo gelditu diren eta hurrengo ekitaldietan muga horiek gainditzen ez dituzten subjektu pasiboek erregimen berezi erraztua beteko dute, salbu eta hari uko egiten badiote.

c) Erregimen erraztua aplikatzeko xede eremuaren arauzko aldaketa, aldaketa horrek subjektu pasiboak egiten dituen enpresa jarduerei erregimen erraztua ez aplikatzea xedatzen badu. Xede eremua aldatzen duen arauak ezarritako unetik aurrera izango du eragina aldaketa horrek.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren erregimena aplikatzetik kanpo gelditzea.

e) Erregimen berezi erraztuetan, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen berezian, edo baliokidetasun errekarguko erregimen berezian sartzen ez diren jarduerak egitea. Hala ere, ez da erregimen erraztua aplikatzetik kanpo geldituko, subjektu pasiboak beste jarduera batzuk garatzen baditu, Zergaren Arautegiko 20. artikulua aplikatuta, zergatik salbuetsita dauden eragiketak bakarrik eginez, edo higiezinak alokatzen baditu, alokatze horrek ekonomia jarduera bat garatzea ekartzen ez duenean (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen araudian zehaztuta dagoen bezala).

f) (42) Subjektu pasiboaren enpresa edo lanbide jarduera guztietarako egin diren ondasun eta zerbitzuen eskuraketengatik edo inportazioengatik, ibilgetuko elementuenak salbu utzita, urte natural batean 150.000 euro (BEZa kenduta) gainditu izana.

Aurreko urtean jardueraren bati ekin bazaio, eskuraketa eta inportazioen urte osoko kopurua hartuko da kontuan.

Erregimenetik kanpo gelditzeko arrazoi horrek arrazoia bera gertatu eta hurrengo urtean izango du eragina. Arrazoi horrengatik erregimen erraztua aplikatzetik kanpo geldittu diren subjektu pasiboak, hurrengo ekitaldietan aipaturiko mugak ez badituzte gainditzen, erregimen erraztuari lotuta geldituko dira, uko egiten badiote izan ezik.

**2.** (41) Aurreko idatz zatiko d) letran xedatutakoak ondorioak izango ditu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboko araubidea aplikatzetik kanpo gelditzen den urtean bertan.

Aurreko idatz zatiko e) letran xedatutakoak egoera horiek gertatu eta hurrengo urtean izango ditu ondorioak, subjektu pasiboak enpresa edo lanbide jarduerarik egiten ez baditu izan ezik; halakoetan, jarduera horiek hasten diren unetik ez zaio aplikatuko erregimen erraztua.

**3.** Subjektu pasiboaren zerga egoera egiaztatu eta ikertzean, erregimen erraztua ez aplikatzeko baldintza erabakigarriak daudela egiaztatzen denean, erregimen orokorrean erregularizatuko da.

**37. artikulua.- (13) Eremu objetiboa. (40)**

**1.** Pertsonen Fisikoen Gaineko Zergaren estimazio objetiboaren erregimenean sartutako jarduera bakoitzaren erregimen sinplifikatua ezarriko da erregimen amankomuneko lurraldean indarrean dagoen Zerga honen araudiaren arabera, Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren Araudiaren IX. tituluan ezarritako beste erregimen berezi bat ezarri behar zaien jardueren kasuan izan ezik, eta horrek ez dio kalterik egingo Pertsona Fisikoen Gaineko Zerga dela-eta dagokion zerga-ordainketari, Arabako Lurralde Historikoan indarrean dagoen araudiak hala agintzen baitu.

Erregimen sinplifikatu ezartzeko, jarduera independientetzat joko dira erregimen hau arautzen duen Foru Dekretuak jasotzen dituen guztiak.

**2.** Artikulu honetako 1. atalean jasotako operazio ekonomikoak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duten araudiaren arabera zehaztuko dira, ezargarriak baldin badira.

**38. artikulua.- (21) Erregimen erraztuaren edukina. (40)**

**1.** Zergaren Arautegiko 123. artikuluko Bat idatz ataleko A) letrak jasotzen dituen ordaintzeko kuotak subjektu pasiboak berak zehaztuko ditu. Sortutako kuoten zenbatekoa kalkulatuko du bere ekonomia jarduerari egotziz Arabako Foru Aldundiak jarduera bakoitzerako eta dagokion urteko eperako finkatutako indizeak eta moduluak. Zenbateko horretatik kendu ahal izango dituzte 123. artikuluko Bat idatz zatiko A) letran (bigarren paragrafoa) adierazten diren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeagatik edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutako kuotak.

Arabako Foru Aldundiak, aurreko paragrafoan xedatutakoaren kalkulua garatuko duen prozeduran, ordaintzeko kuoten gutxieneko zenbateko bat ezarri ahal izango du erregimen berezi hori aplikatzen zaion jarduera bakoitzerako.

**2.** (27) Zergaren Arauaren 123.1.c idatz-zatian xedatutakoetarako, aipatutako arauaren VIII. kapituluaren I. tituluan xedatutakoaren arabera egingo da aktibo finkoak (ibilgetuko elementuak) erosteagatik ordaindu beharreko kuotengatiko murrizketa. Subjektu pasiboak ekitaldiko azken aldian aitortzen eta likidatzen baditu batasun barruko aktibo finkoen erosketari edo aktibo horiek subjektu pasiboaren inbertsio bidezko erosketari dagozkion kuotak, kuota horiek ezin izango dira likidatu aurretiko aitorpen-likidazio batean.

**3.** Erregimen erraztua aplika dakiekeen ekonomia jardueretan suteak, uholdeak edo ezohizko beste gertakizun batzuk gertatzen badira eta, horren ondorioz, sektore edo zona jakin bat hondaturik gelditzen bada, Arabako Foru Aldundiak, salbuespen gisa, indize edo moduluak murriztea baimen dezake.

**4.** Erregimen erraztua aplika dakiekeen jardueretan suteak, uholdeak, behera etortzeak edo industria ekipamenduan matxura larriak gertatzen badira eta, horren ondorioz, jardueran aldakuntza larriak gertatuz gero, interesdunek indize edo moduluak murrizteko eska diezaiokete Arabako Foru Aldundiari 30 eguneko epean, gertakizun horiek izan diren egunetik hasita. Egoki iruditzen zaizkion frogak aurkeztuko dituzte. Zerga Administrazioaren aurrean aldakuntza larri horiek frogatu ondoren, dagozkion indize edo moduluak murriztea erabakiko da.

Era berean, aurreko paragrafoan zehaztu den prozedura beraren bidez, jardueraren titularrak aldi baterako ezintasuna badu eta ez badu beste langile enplegaturik, indize edo moduluak murrizteko eskatu ahal izango da.

### 39. artikulua.- (21) Diru sarrerak aldizkakotzea.

Aurreko artikuluan xedatutakoa aplikatzearen emaitza, subjektu pasiboak zehaztuko du urte natural bakoitzaren bukaeran. Urte natural horretako lehen hiru hiruhilekoei dagozkien aitorpen eta likidazioetan, ordea, emaitza horren parte bat kontura ordainduko da. Parte hori Arabako Foru Aldundiak ezarriko duen prozeduraren arabera kalkulatuko da.

Zergaren Arautegiko 123. artikuluko Bat idatz zatiko B) letran jasotzen diren eragiketen likidazioa Zerga sortzen den likidazioaldiari dagokion aitorpen eta likidazioan gauzatuko da. Hala ere, subjektu pasiboak paragrafo honetan jasoriko eragiketak urte naturaleko azken aldiko aitorpen eta likidazioan likidatu ahal izango ditu.

**40. artikulua.- (21) Forma betebeharrak.**

**1.** Erregimen erraztuari atxikitako subjektu pasiboek jasotako fakturen erregistro liburu bat erabiliko dute. Zerga jasatea edo ordaintzea ekarri dieten ondasunen eta zerbitzuen erosketei eta inportazioei dagozkien faktura eta agirien idazpena egingo dute erregistro liburuan, ondasun eta zerbitzu horiek aipatutako erregimen berezia aplikatzen zaien jarduеretan erabiltzeko direnean. Erregistro liburu horretan, behar den tartea utziz, Zergaren Arautegiko 123. artikuluko Bat idatz zatiko B) eta C) letretan aipatzen dituen aktibo finkoen inportatzeak eta eskuratzeak idatziko dira. Aktibo finko horiei dagokienez, erregularizatzeko beharrezko diren datu guztiak adieraziko dira, erregularizatu behar izatekotan.

Erregimen erraztua ezin aplika dakiekeen jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek, behar den tartea utziz, jarduera sektore bereizi bakoitzari dagozkien erosketen fakturak jasoko dituzte.

Sarrera bolumenaren araberako indize edo moduluak dituzten jarduerengatik erregimen erraztuari loturiko subjektu pasiboek, halaber, erregistro liburu bat erabili beharko dute jarduera horietan egin dituzten eragiketak jasotzeko.

**2.** (23) Erregimen honetan sartzen diren subjektu pasiboak aplikatu zaizkien indize edo moduluen egiaztagiriak gorde beharko dituzte, horiek onartzen dituen foru dekretuak ezartzen duen moduan.

**41. artikulua.- (13) Likidazio-adierazpenak.**

**1.** Erregimen sinplifikatuaren menpe dauden subjetu pasiboek lau likidazio-adierazpen aurkeztuko dituzte, Hazienda, Ogasuna eta Aurrekontuetako Departamentuko foru diputatu titularrak zehaztutako eredua erabiliz horretarako.

**2.** Likidazio-adierazpen arruntak apirileko, uztaileko eta urriko lehenengo hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko dira.

Azken likidazio-adierazpena hurrengo urteko urtarrileko lehenengo hogeita hamar egun naturalen buruan aurkeztuko dira.

**42. artikulua.- (13) (40) Adierazleen moduluen eta gainontzeko parametroen onarpena.**

**1.** Arabako foru Aldundiak onartuko ditu adierazleak, moduluak eta parametroak, horrela Zergaren Araudiko 123. artikuluko Bat atalean jasotakoa bete dadin.

**2.** Foru Dekretuak urte bete baino luzeagoa izan daitekeen epea ezarri ahalko du. Horrela bada, urte bakoitzari dagokion kalkulu-metodoa bereiztuta zehaztuko da.

**3.** Foru Dekretu Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, urteko ezarpenaldia hasi aurreko abenduaren 1a baino lehen.

## III. KAPITULUA
## NEKAZARITZA, ABELTZANTZA ETA ARRANTZARI BURUZKO ERREGIMEN BEREZIA

### 43. artikulua.- (21) Aplikazio esparru subjetiboa.

**1.** Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren erregimen berezia nekazaritzako, basoetako, abeltzaintzako edo arrantzako ustiategien titularrei aplikatu ahal izango zaie, Zergaren Arauan eta Arautegi honetan adierazitako baldintzak betetzen dituztenean, eta ez badiote erregimen horri uko egin, Arautegiko 33. artikuluan jasotakoari jarraituz.

**2.** (42) Hauexek geldituko dira nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezitik kanpo:

a) Erregimen berezian sartuta dauden jarduerei buruzko eragiketa guztiak batuta, aurreko urtean 250.000 euro gainditu duten subjektu pasiboak, salbu eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duten arauek beste kopuru bat ezartzen badute aurreko paragrafoko jardueren etekina zehazteko egiten den zenbatespen objektiboko metodoa aplikatzeko; hala bada, kopuru hori aplikatuko da.

b) (45) Aurreko urtean egindako eragiketa guztietan, aurreko a) idatz zatian aipatzen direnak ez beste batzuetan, bertan ezartzen den zenbatekoa gainditzen duten subjektu pasiboak.

c) Subjektu pasiboaren enpresa edo lanbide jarduera guztietarako egin diren ondasun eta zerbitzu eskuraketengatik edo inportazioengatik, balio erantsiaren gaineko zerga salbu utzita, aurreko urtean 150.000 euro urtean gainditu dituzten subjektu pasiboak.

   Aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, aurreko idatz zatietan aipatutako zenbatekoen urte osoko kopuruak hartuko dira kontuan.

**3.** (42) Aurreko 2. paragrafoko a) eta b) idatz zatiek aipatzen dituzten eragiketen zenbatekoa arau hauek aplikatuz zehaztuko da:

a) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia eta Zerga Administrazioak zehaztutako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako jarduera guztientzako erregimen erraztua aplikatu zaien jardueretan egin diren eragiketen kasuan, arautegi honetako 40. artikuluaren 1. paragrafoko hirugarren zenbakian eta 47. artikuluko 1. paragrafoan jasoriko erregistro liburuetan idatzi behar direnak baino ez dira kontuan hartuko.

b) Zergaren erregimen orokorra edo aurreko a) idatz zatian aipatutako erregimen bereziez bestelako erregimen berezi bat oinarri zergak ordaindu dituzten jardueretan egin diren eragiketen kasuan, zergaren arauaren 121. artikuluan xedatutakoaren arabera hartuko dira kontuan. Edonola ere, ez dira kontuan hartuko ondasun higiezinen errentamendu eragiketak, baldin eta haiek egiteak ez badakar ekonomia jarduera bat egitea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duten arauek xedatutakoarekin bat etorriz.

**4.** Arautegi honetako 33. artikuluak zehazten dituen moduan eta epeetan uko egin behar izango zaio nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen bereziari. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan errentak esleitzeko erregimenean diren erakundeek lehen aipaturiko erregimenari uko egiteko, haien bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztiek uko egin beharko diote.

**5.** Erregimen berezi horren ondorioetarako, honako hauek ez dira nekazaritzako, basoetako, abeltzaintzako edo arrantzako ustiategien titulartzat joko:

a) Beren finkak edo ustiategiak errentan edo gasailan laga duten edo finka edo ustiategi horien ustiapena beste edozein eratan laga duten jabeak.

b) Abeltzaintza osatuko erregimenean diren abeltzaintza ustiapenak egiten dituztenak.

**44. artikulua.- Nekazaritza, baso, abeltzaintza eta arrantzako ustiapenaren kontzeptua.**

Nekazaritza, baso, abeltzaintza eta arrantzako ustiapentzat joko dira lurgintzatik, ustiapenetatik edo harrapaketatik zuzenean produktu naturalak lortzen dituztenak eta, bereziki, honako hauek:

1. Orohar nekazaritza iharduerak burutzen dituztenak. Horien artean, produktua non lantzen den -berotegi eta mintegietan izan arren- berdin delarik, honakoak lantzea dago: landare apaingarri eta aromatikoak, sendabelarrak, loreak, txanpinoiak, espezieak, haziak edo berlandatzeko landareak.

2. Basogintzako ustiapenak.

3. Abeltzaintza, horren barruan hegazti-hazkuntza, erlezaintza, untxi-hazkuntza, zetar-hazkuntza eta ehiza-espezieen hazkuntza, lurraren ustiapenari loturik badago, sartzen direlarik.

4. Ur gezako arrantza ustiapenak.

5. Molusku eta oskoldunen haztegiak eta arrain haztegiak.

**45. artikulua.- Transformakuntza prozesutzat jotzen ez diren iharduerak.**

Zergaren arauaren 126. artikuluaren 1. paragrafoko 1 zenbakian jasorikoaren ondorioetarako, honako hauek ez dira eraldatze prozesutzat joko (42):

a) Ondasunak iraunerazteko baino ez diren ekintzak. Honakoak, esaterako: pasteurizazioa, hozketa, izozketa, lehorketa, sailkapena, garbiketa, enbalajea edo egokipena, oskol kentzea, azal kentzea, ezpaltzea, zatitzea, desinfekzioa edo zomorro galketa.

b) Abereak hiltzea eskatzen ez duten lehen gai agropekuarioen ekoizte hutsa.

Transformakuntza ihardueren izaera zehazteko orduan ez da kontutan hartuko ekoizleen kopurua edo ihardueraren lan mekanikaren izaera eskulangintzazkoa edo usadiozkoa den.

**46. artikulua.- Erregimen berezian sartzen diren zerbitzu osagarriak.**

Zergaren Arauaren 127. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, honako zerbitzu hauek, besteak beste, izaera osagarrikotzat joko dira:

1. Landatu, erein, lur landu, uzta bildu eta garraiatzeko lanak.

2. Produktuen enbalaje eta egokipena, lehorketa, garbiketa, oskol kentzea, zatiketa, ziloan biltzea, biltegiratzea eta desinfekzioa barne.

3. Animaliak hazi, zaindu eta gizentzea.

4. Laguntza teknikoa.

   Laguntza tekniko horretan ez dira sartuko nekazaritzako ingeniari edo teknikoek ematen dituzten lanbide zerbitzuak.

5. Nekazaritza, baso, abeltzantza eta arrantzako ihardueak egiteko eskuarki erabiltzen diren lanabes, makineria eta instalakuntzen errentamendua.

6. Landare eta animalia kaltegarriak hiltzea eta landatutako sail eta alorrak gasez edo keaz desinfektatzea.

7. Lurrak ureztatzeko eta lehortzeko instalakuntzen ustiapena.

8. Arbolak moztu, entresaka egin, ezpaltzea eta azal kentzea, basoak garbitzea eta basogintzako horrelako beste zerbitzu osagarriak.

**47. artikulua.- (13) Betebehar formalak.**

**1.** Erregimen berezi honen menpe dauden subjetu pasiboek, erregimen berezian sartzen diren operazioak jasotzeko Erregistro Liburu bat erabili beharko dute orohar, Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta.

**2.** Honako subjetu pasiboen honako betebeharrak bete beharko dituzte:

1.a. Erregimen sinplifikatua edo baliokidetza errekarguko erregimen berezi ezarri ahal zaien jarduerak egiten dituzten subjetu pasiboek, hartutako ordainagirien Erregistro Liburua erabili beharko dute, eta ondo bereiztuta jasoko dituzte jarduera ezberdin bakoitzak egindako eroketei buruzko ordainagiriak, bai eta nekazaritza, abeltzantza eta arrantzako erregimenari buruzkoak ere.

2.a. 1. atalean jasotako erregimen berezia ez den beste edozein erregimen ezarri ahal zaien jarduerak egiten dituzten subjetu pasiboek, erregimen horiei buruz Araudi honetan jasotako guztia bete beharko dute. Edozelan ere, jasotako ordainagirien erregistro liburuan ondo bereiztuta jaso beharko dira nekazaritza, abeltzantza eta arrantzako erregimena ezartzen zaien jarduerei dagozkien erosketei buruzko ordainagiriak.

**48. artikulua.- Konpentsazioen itzulketa.**

**1.** (49) Zergari buruzko araudiaren 131. artikuluko 1. zenbakian xedatutakoaren arabera Ogasunak egin behar dituen konpentsazio itzulketen eskaerak Foru aldundian aurkeztu beharko dira, Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera, hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo lehenengo hogeita bost egun naturalen barruan.

Aitzitik, urteko azken hiruhileko naturaleko itzulketa eskaera hurrengo urtarrilean aurkeztu ahal izango da.

Eskaera onetsitako ereduari egokituko zaio.

**2.** (42) Zergaren arauaren 131. artikuluko 2 zenbakian xedatutakoarekin bat etorriz, erregimen berezian sartzen diren ondasun eskuratzaileei edo zerbitzu hartzaileei dagokie konpentsazioak itzultzea, eta konpentsazio horiek nekazaritza, baso, abeltzaintza edo arrantzako produktuak edo aipatu diren zerbitzu osagarriak ematen diren unean itzuliko dira, konpentsazio itzulketen oinarria den prezioa ordaintzeko finkatu den eguna gorabehera. Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren, fakturazio betebeharrak xedatzen dituen arautegia onartzen duenaren, 16. artikuluaren 1. paragrafoak aipaturiko ordainagiria eginda dokumentatuko da itzulketa.

Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, kasuan kasuko ondasun edo zerbitzuei dagokien prezio osoa edo partziala kobratzerakoan –ondasun eta zerbitzu horien proportzioan– itzuli ahalko dira konpentsazioak, interesdunak ados jarrita.

**49. artikulua.- (21) Konpentsazioen kenkaria.**

**1.** (42) Zergaren legearen 134. artikuluan aipatzen diren konpentsazioen kenkarirako eskubideaz baliatzeko, konpentsazioak ordaindu dituzten enpresaburu edo profesionalek maiatzaren 28ko Foru Dekretuaren, fakturazio beharrak xedatzen dituen arautegia onartzen duenaren, 16. artikuluaren 1. paragrafoak aipatutako ordainagiria, berek emandakoa, eduki beharko dute. Kenkari horren ondorioetarako egindako eskuraketen egiaztagiria izango da ordainagiri hori.

**2.** (42) Ordainagiri horiek aipatutako arautegiaren 16. artikulu horretan xedatutakoa betetzen badute eta eskuratzaile horiek bete behar duten erregistro liburu berezi batean jasotzen badira baino ez dute balio izango kenkarirako eskubidea egiaztatzeko. Jasotako fakturen erregistro liburürako ezartzen diren baldintza berdinak aplikatuko zaizkio erregistro liburu horri, hala egin behar izanez gero.

**3.** Aurreko 1. eta 2. idatz zatietan jasotzen diren ordainagirien originalak eta kopiak Zergaren preskripzio epean gordeko dira.

**49. bis artikulua.- (21) Erregimen berezia hastea edo uztea.**

**1.** Egiten ari diren jardueren kasuetan, erregimen berezia aplikatzen hasten zaienean edo aplikatzeari uzten zaionean, nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako edo arrantzako ustiategi horien titularrak bere jardueretan erabiltzeko diren eta erregimen berezia aplikatu ahal zaien ondasunen izakinen inbentarioa egin beharko du. Inbentario horren erreferentzia eguna erregimen berezia hasten den edo uzten den aurreko eguna izango da.

Halaber, ustiategietan lorturiko produktu naturalak, zerga erregimena aldatzen den eguna arte entregatu gabekoak, jaso beharko dira inbentario horretan.

Inbentarioa, titularrak izenpeturik, Arabako Foru Aldundian aurkeztu beharko da, 15 eguneko epean, erregimen berezia hasten den edo uzten den egunetik hasita.

**2.** Inbentario horrek jasotzen dituen egoerak erregularizatzetik sortzen den kenkaria gauzatuko da erregimen berezia utzi den likidazioaldiari dagokion aitorpen eta likidazioan.

Erregimen berezia hastean egin behar den erregularizatze horretatik sortzen den sarrera aitorpen eta likidazio berezi baten bidez egin behar da. Aitorpen eta likidazio horrek ez da aldizkakoa izango, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuak zehaztuko ditu aurkezteko tokia, modua, epea eta inprimakiak.

## IV. KAPITULUA (11)
## ONDASUN ERABILIEN, ETA ARTE-LANEN, ZAHARKINEN ETA BILDUMAKO OBJEKTUEN ERREGIMEN BEREZIA

**50. artikulua.- (11) Zerga oinarria irabazi osokoaren marginaren bidez zehazteko aukera.**

**1.** Zergaren Arauaren 137. artikuluko Bi zenbakian aipatzen den aukera jarduera-hasierako aitorpena aurkeztearekin batera erabili behar da edo, bestela, eragina izan behar duen urtearen has aurreko abenduan. Adierazi den epearen barruan berariaz uko egin ezean, hurrengo urteetarako luzatzen dela ulertuko da, eta, gutxienez, zerga-oinarria irabazi osokoaren marjinaren bidez zehazteko erregimena aplikatzen hasi den urtearen hurrengo urtea amaitu arte. Aurrekoa ez da oztopo izango Zerga Administrazioak irabazi osokoaren marjinaren modalitatea aplikatzeko eman duen baimena errebokatzeko, Zergaren Arauaren 137. artikuluko Bi zenbakiaren 1. puntuan azaldutako moduan.

Aurreko lerroartean aipatu den aukera eta haren errebokazioa Erregelamendu honen 33. artikuluan esandakoaren arabera egin behar dira.

**2.** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak baimena eman dezake, interesatuak aurretik eskatuta, zerga-oinarria irabazi osokoaren marjinaren bidez zehaztea aplikatzeko Zergaren Arauaren 137. artikuluko Bi zenbakiaren hirugarren lerroarteko 1. erregelaren a), b) eta c) lerroarteetan aipatzen diren ondasunez bestelakoen kasuan ere, baldin eta, eragiketen kopuru handia eta ondasunen prezio txikia direla-eta, zailtasunak badaude ondasun horien entregei eragiketa bakoitzaren irabazi-marginaren bidez zerga-oinarria zehazteko modalitatea aplikatzeko.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak eskaeraren bidezkotasunaz iritzia eman beharko du aurkeztu eta hurrengo hiru hilabeteetan. Epe hori igaro eta berariazko iritzirik eman ezean, ezezkoa ematen zaiola ulertu behar da.

**3.** Zerga-oinarria zehazteko modalitate hori hautatu zuten subjektu pasibo bersaltzaileek Arauaren 137. artikuluko Bi idazatiaren 4. puntuan aipatzen den urteko erregularizazioa egin beharko dute urteroko abenduaren 31rako, erregimen horretan dauden bitartean, haren emaitza kasuan kasuko urtearen aldiari dagokion likidazio-aitorpenari aplikatuko zaiolarik.

Modalitate hori aplikatzen uzten denean, erregularizazioa uztea gertatu den aldiaren likidazio-aitorpenean egingo da.

**51. artikulua.- (21) Forma eta erregistro betebehar bereziak.**

Betebehar orokorrez gain, ondasun erabilien, arte objektuen, antigoaleko gauzen eta bilduma objektuen erregimen berezia aplikatzen duten subjektu pasiboek honako betebehar berezi hauek bete beharko dituzte erregimen berezi horri lotutako eragiketei dagokienez:

a) Erregistro liburu espezifikoa erabili beharko dute. Erregistro liburu horretan, banan-banan eta behar den tartea utziz, subjektu pasiboak egindako erosketa, inportazio eta emateak jasoko dira, eragiketa bakoitzaren mozkin marjinaren bidez zerga oinarria zehaztea aplikagarria zaienean.

Erregistro liburu horrek datu hauek izan beharko ditu:

1. Eskuratu edo inportatu den ondasunaren deskribapena.

2. Ondasun horren fakturaren, erosketa agiriaren edo inportazio agiriaren zenbakia.

3. Erosketaren prezioa.

4. (41) Subjektu pasiboak ondasun hori eskualdatzean egindako fakturaren zenbakia.

5. Salmentaren prezioa.

6. Salmentari dagokio Balio Erantsiaren gaineko Zerga edo, hala dagokionean, aplikatzen den salbuespena adierazi behar da.

7. Hala badagokio, ondasunak entregatzean erregimen orokorra aplikatu dela adierazi behar da.

b) Erregistro liburu espezifikoa erabili beharko dute, aurreko a) letran aipaturikoa ez dena. Erregistro liburu horretan, subjektu pasiboak likidazioaldi bakoitzean egindako erosketa, inportazio eta emateak jasoko dira, mozkin marjina orokorraren bidez zerga oinarria zehaztea aplikagarria zaienean.

Erregistro liburu horrek datu hauek izan beharko ditu:

1. Eragiketa bakoitzean eskuraturiko, inportaturiko edo entregaturiko ondasunen deskribapena.

2. Ondasunen fakturaren, erosketa agiriaren edo inportazio agiriaren zenbakia.

3. Erosketaren prezioa.

4. (41) Subjektu pasiboak ondasunak eskualdatzean egindako fakturaren zenbakia.

5. Salmentaren prezioa.

6. Hala badagokio, aplikatu den salbuespena adierazi behar da.

7. Urte natural bakoitzaren hasierako eta bukaerako izakinen balioa, Zergaren Arautegiko 137.bi artikuluan xedatutako erregularizatzea egiteko. Balio horiek kalkulatzeko, Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako balioztatze arauak aplikatuko dira.

c) Oinarria zehazteko, mozkin marjina orokorraren modalitatea aplikatzen hasten den edo uzten den kasuetan, eta Zergaren Arautegiko 137.bi.6. artikuluan xedaturiko erregularizatzearen ondorioetarako, subjektu pasiboek beren izakinen inbentarioak egin beharko dituzte, eta zerga aplikagarria zaien izakinak jaso behar dituzte. Inbentario horien erreferentzia eguna modalitate hori aplikatzen hasten den edo aplikatzeari uzten zaion aurreko eguna izango da.

Inbentarioak, subjektu pasiboak izenpeturik, Arabako Foru Aldundian aurkeztu beharko dira, 15 eguneko epean, zerga oinarria zehazteko modalitate hori aplikatzen hasten den edo aplikatzeari uzten zaion egunetik hasita.

## (18) IV. BIS KAPITULUA
## INBERTSIORAKO URREAREN ERREGIMEN BEREZIA

**51 bis artikulua.- (18) Inbertsiorako urrearen erregimen berezia.**

Zergari buruzko arauaren Eranskineko bederatzigarren paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, lingoteen merkatuan onartutako eran pisu hauek egokitzen direla joko da:

a) 12,5 kilogramoko lingoteen kasuan, 350 eta 430 ontza bitarteko urre puruzko edukia dutenak.

b) Aipatutako gainerako pisuen kasuan, benetako pisuan haiekin alderatuta %2 baino gehiagoko diferentziarik ez duten piezak.

**51 ter artikulua.- (18) Salbuespenari uko egitea.**

**1.** Arauaren 140 ter artikuluko Bat paragrafoan arautzen den salbuespenaren ukoa eskualdatzaileak egindako eragiketa bakoitzeko egin beharko da. Inbertsiorako urrea entregatu baino lehen, edo aldi berean, eskuratzaileari ukoaren berri eman beharko zaio, idatziz. Halaber, entregari Zerga ezarri behar bazaio, Zergaren subjektu pasiboa hura izango dela jakinarazi beharko dio idatziz eskualdatzaileak eskuratzaileari, Arauaren 140 quinque artikuluan ezarritakoari jarraituz.

**2.** Arauaren 140 ter artikuluko Bi paragrafoan arautzen den salbuespenaren ukoa zerbitzua ematen duenak egindako eragiketa bakoitzeko adierazi beharko da; hark zerbitzuaren jasotzaileak sinatutako agiri bat eduki beharko du, non adierazi beharko baita bitartekaritza zerbitzuaren gai den urrearen entregan uko egin zaiola Balio Erantsiaren gaineko Zergaren salbuespenari.

**51 quater artikulua.- (18) Erregistratzeko berariazko betebeharrak.**

Inbertsiorako urrea gaitzat duten eragiketak edo erregimen berezia ezartzen ez zaien beste jarduera batzuk burutzen dituzten enpresaburu edo profesionalek jasotako ordainagirien Erregistro Liburuan jaso beharko dituzte jarduerako atal bereizi bakoitzari dagozkion eskuraketa edo inportazioak, behar bezala bananduta.

## V. KAPITULUA
## BIDAI AGENTZIEN ERREGIMEN BEREZIA

### 52. artikulua.- (42) Zergaren erregimen orokorra aplikatzeko aukera.

Zergaren arauaren 147. artikuluan aipatzen den zergaren erregimen orokorra aplikatzeko aukeraz subjektu pasiboak egindako eragiketa bakoitzeko baliatuko da. Aukera horretaz baliatu dela jakinarazi beharko zaio idatziz eragiketaren hartzaileari, ostatu edo garraiobide zerbitzuak edo zerbitzu horiei osagarri zaizkien zerbitzuak eman baino lehen edo haiek emateaz batera. Edonola ere, jakinarazpena egin dela ulertuko da, baldin eta egiten den fakturak ez badu jasotzen maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren, fakturazio betebeharrak xedatzen dituen arautegia onartzen duenaren, 6.1.n) eta 7.1.i) artikuluetako aipamena.

### 53. artikulua.- Erregistroei buruzko betekizun berariazkoak.

Subjektu pasiboek bidaiariaren intereserako zuzenean burutu diren ondasun edo zerbitzuen eskuraketei dagozkien fakturak anotatuko dituzte jaso diren fakturen Erregistroko Liburuan behar bezala bereizirik.

## VI. KAPITULUA
## BALIOKIDETASUN-ERREKARGUAREN ERREGIMEN BEREZIA (18)

### 1. SEKZIOA
### (18)

### 54. artikulua.- Transformakuntzakotzat jotzen ez diren eragiketak.

Zergaren Arauaren 149. artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako, segidan zerrendatzen diren eragiketak ez dira joko transformakuntzako eragiketatzat eta, beraz, ez dute galaraziko txikizkako merkatari izaera. Hona hemen:

1. Produktuak transformatu gabe sailkatzeko eta ontzietan sartzeko eragiketak.

2. Markak eta etiketak jartzekoak, baita prestakuntza eta ebakitzekoak ere, eskualdatzen diren ondasunak eman aurretik egindakoak.

3. Elikagaiak garbitu, desinfektatu, eho, haiei azala kendu eta ikuzteko eragiketak eta, orohar, Araudi honetako 45. artikuluko a) letran deskribatzen diren erabilketak.

4. Haragi eta arrain freskoak hoztu, izoztu, zatitu edo haiei erraiak kentzeko prozesuak.

5. Gortina eta errezelak egin eta jartzea.

6. Beste batzuek egindako janzkiak egokitze hutsa.

**55. artikulua.- (18)**

**2. SEKZIOA**
**(18)**

**56. artikulua.- (18)**

**57. artikulua.- (18)**

**58. artikulua.- (18)**

**3. SEKZIOA**
**(18)**

**59. artikulua.- Aplikazio betekizunak.**

**1.** Baliokidetasun errekarguaren erregimen berezia txikizkako merkatariei aplikatuko zaie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez errenta eratxekipenaren erregimenean dauden pertsona fisiko edo entitateak badira eta artikulu honetako 2. atalean salbuesten ez diren edozein izaeratako salgai edo produktuak txikizka salerosten badituzte.

Aurreko idazatian aipatzen den errenta eratxekipenaren erregimenean dauden entitateak erregimen honen menpe egongo dira beren bazkide, oinordeko, erkide eta partaide guztiak pertsona fisikoak direnean bakarrik.

**2.** (18) Erregimen berezi hau ez da inola ere ezarriko artikulu edo produktu hauei dagokienez:

1. Errepidez ibiltzeko ibilgailu motordunak eta horien atoiak.

2. Itsasontziak.

3. Hegazkinak, abionetak, beste aerontzi batzuk eta belaontziak.

4. Aurretik aipatutako garraiobideentzako osagarriak eta aldatzeko piezak.

5. Bitxiak, harribitxiak, perla natural edo kultibatuak, urrez edo platinoz erabat edo zati batean landutako objektuak, edo kalitateko bisuteria, harribitxiak, perla naturalak edo aipatu metalak baditu, nahiz eta bainua edo txapatua izan.

   Zerga honen ondorioetarako honakoak baizik ez dira joko harribitxitzat: diamantea, errubia, zafiroa, esmeralda, akuamarina, opaloa eta turkesa.

   Zenbaki honetan ezarritakotik honakoak salbuesten dira:

   a) Urrezko edo platinozko bainua edo txapatua duten objektuak horien lodiera 35 mikratik beherakoa bada.

   b) Damaskinatuak.

6. Luxuzko larruez egindako jantziak edo apaingarri pertsonalak.

   Ondorio hauetarako, animalia hauen larru depilatu gabeak joko dira luxuzkotzat: erbinude zuria, astrakana, breitschwanz-a, burunduky-a, kastorea, zibelina, zibelina txinatarra,zibeta, txintxila, txintxilatzarra, lepazuria, katamotz iberiarra, katajineta, jatuna, gepardoa, jaguarra, lehoia, leopardo zuria, katamotza, otsoa, lepahoria, Kanadako lepahoria, Japoniako lepahoria, mufloia, itsas igaraba, Kamtchatkako igaraba, ozelotea, hartza, panda, pantera, pekan-a, pisshiki-a, platipus-a, tigrea, ipurtatsa, bikuina, bisoia, azeri urdina, azeri zuria, azeri gurutzatua, azeri zilarkara eta shadow azeria.

   Zenbaki honetan ezarritakoaz kanpo geratuko dira poltsak, karterak edo antzeko objektuak, bai eta txatal edo hondakinez (buruak, hankak, isatsak, ebakinak, etab.) edo larru arruntez edo imitaziozkoez egindako jantziak.

7. Jatorrizko arte-objektuak, antigualeko eta bildumako objektuak, Zergari buruzko 136. artikuluan definituak.

8. Subjektu pasibo eskualdatzaileak edo hirugarren batzuek eskualdatu aurretik erabili dituzten ondasunak.

9. Hegazti-hazkuntzan eta erlezaintzan erabilitako tresnak eta osagarriak.

10. Petrolio-produktuak, horiek fabrikatu, inportatu edo saltzeagatik Zerga Bereziak ezarri behar direnean.

11. Industrian erabiltzeko makinak.

12. Eraikinak edo urbanizazioak egiteko materialak eta gaiak.

13. Mineralak, ikatza izan ezik.

14. Burdinak, altzairuak eta gainerako metalak eta aleazioak, manufakturatu gabeak.

15. Inbertsiorako urrea, Zergari buruzko Arauaren 140. artikuluan definitutakoaren arabera.

**60. artikulua.- Baliokidetasun errekargoaren erregimen bereziari lotutako iharduketetan hastea edo gelditzea.**

**1.** Erregimen berezi honetan hasten edo gelditzen denean, subjektu pasiboek salerosketarako dituzten ondasunen zerrendak egin beharko dituzte ondasun horiek erregimen berezia aplikatzekoak badira eta erregimenaren aplikazioan hasi eta gelditu den egunaren aurrekoa erreferentzia harturik.

Zerrenda horiek subjektu pasiboak izenpetuko ditu eta, haren helbide fiskala Araban badago, Arabako Foru Aldundian aurkeztu beharko dira hamabost eguneko epean, erregimen bereziaren aplikazioa hasi edo gelditzen den egunetik kontaturik.

**2.** Zerrenda horietan aipatzen diren egoeren erregularizazioak dakartzan dirusarrerak edo kenketak erregimen bereziaren aplikazioa hasi den edo gelditu den likidazio ekitaldiari dagozkion aitorpen eta likidazioetan egin beharko dira.

**61. artikulua.- Baliokidetasun errekargoaren erregimen bereziaren betekizunak, formari eta erregistroei buruzkoak.**

**1.** Araudi honetako 59. artikuluko lehenengo atalean aipatzen diren subjektu pasiboak behartuta egongo dira egiten dituzten eskuraketak edo inportazioak direla-eta baliokidetasun errekargoaren erregimen bereziak eragiten dien ala ez frogatzera beren hornitzaileen aurrean edo, hala behar denean, aduanan.

**2.** Erregimen berezi hau aplika dakiekeen subjektu pasiboak ez dira behartuta egongo kontularitzazko erregistroak egitera Balio Erantsiaren gaineko Zergarengatik.

Aurreko idazatian esandakotik salbuesten dira:

1.a Enpresariak, bestelako iharduerak egin eta haiei edo nekazaritza, abeltzantza edo arrantzaren erregimen berezia, edo erregimen erraztua aplika badakieke; enpresari

horiek jasotzen diren fakturen Erregistro Liburu bat eduki beharko dute. Bertan iharduera sektore bakoitzari dagozkion eskuraketei buruzko fakturak anotatuko beharko dituzte behar bezala bereizirik, baita baliokidetasun errekarguaren erregimen bereziari dagozkionak ere.

2.a Zergaren erregimen orokorra edo Zergaren beste erregimen berezietakoren bat, aurreko zenbakikoak salbu, aplika dakiekeen eragiketa edo beste iharduerak burutzen dituzten enpresariek Araudi honetan orokortasunez edo berariaz formari buruz ezartzen diren betekizunak kunplitu beharko dituzte haiei dagokienez. Hala ere, baliokidetasun errekargoaren erregimen berezia aplikatzen zaien iharduketei dagozkien eskuraketen fakturak anotatu beharko dira jasotzen diren fakturen Erregistro Liburuan behar bezala bereizirik.

**3.** (42) Erregimen berezi hau aplikatzen zaien subjektu pasiboek dagozkion aitorpen eta likidazioak ere aurkeztu beharko dituzte ondoren azaltzen diren kasuetan:

1. Batasunaren barruko eskuraketak egiten badituzte, edo zergaren arauaren 84. artikuluaren 2 zenbakiko 1. paragrafoak aipatzen dituen eragiketen hartzaileak badira.

Halako kasuetan, eragiketa horietan aipatzen diren ondasunei edo zerbitzuei dagozkien zerga eta, hala badagokio, errekargua ordainduko dituzte aipatu diren aitorpenen bitartez.

2. Zerga itzultzeko eskubidea daukaten bidaiariei ondasunak entregatzen badizkiete.

Aitorpen horien bitartez, bidaiariei ordaindu dizkieten zenbatekoak itzul dakiela eskatuko dute, zerga itzultzeko prozedura honetan jarduten duten interesdunei edo erakunde laguntzaileei egindako transferentzien bidez kreditatu beharko direlarik horretarako.

3. Zergari lotuta eta salbuetsita ez dauden ondasun higiezinak entregatzen badira, salbu eta zergaren arauaren 84. artikuluaren 1. paragrafoko 2 zenbakiko e) idatz zatiaren hirugarren gidoiak aipatutako eragiketak badira.

Halako kasuetan, egindako eragiketengatik zordundutako zergaren aitorpenen bidez izango dituzte diru sarrerak.

**4.** (21)

## (27) VII. KAPITULUA
## ENTITATE TALDEEN ARAUBIDE BEREZIA

### 61 bis artikulua.- Errolda argibideak eta atxikipenaren definizioa (42).

**1**. (42) Erakunde talde bateko kide diren eta zergaren arauaren IX. tituluko IX. kapituluan jasoriko erregimen berezia aplikatu behar duten erakundeek gorabehera hori jakinarazi beharko diote Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzari.

Ondorioak izan behar dituen urteko aurreko abenduan egin beharko du entitate nagusiak jakinarazpen hori. Jakinarazpenak ondoko datuak jasoko ditu:

a) (42) Taldea osatzen duten eta erregimen berezia aplikatu behar duten erakundeen identifikazioa.

b) Entitate nagusiaren izaera duen entitate ez-egoiliarra luzerorako kokatzen bada zergapeko eremuan, entitate ez-egoiliarra dagokion zergapeko eremuan identifika dezatela eskatuko da.

c) Erabakien kopia, zeinen bidez entitateek araubide berezia aukeratu duten.

d) Araubide berezia aplikatuko duten entitateak direla eta, entitate nagusiak horietan duten zuzeneko edo zeharkako partaidetzaren portzentajearen zerrenda eta partaidetza hori erosi zeneko eguna.

e) Bai entitate nagusiak, bai haren mendekoek, aitortuko dute Zergaren Arauaren 163 quinquies artikuluak xedatutakoak betetzen dituztela.

f) Zergaren Arauaren 163 sexies.bost artikuluan xedatutako aukera edo hari uko egiten zaionekoa. Aukera horrek berekin ekarriko du Zergaren Arauaren 163 octies artikuluaren bat eta hiru paragrafoetan xedatutakoa aplikatzea.

Entitate taldeari eman zaion zenbakia jakinaraziko diote entitate nagusiari informazio hori jasotzeko eskumena duten administrazio organoek.

Halaber, entitate nagusiak jakinarazi egin beharko du araubide bereziaren mendeko taldeko entitateren bati eragiten dion aldaketa oro. Likidatuko den aldiari dagokion aitorpen-likidazio aldian aurkeztuko da jakinarazpen hori.

**2.** (42) Taldeko kideak izanik erregimen berezia aplikatzea aukeratzen duten erakundeek, aurreko idatz zatiak xedatutakoarekin bat etorriz, zergaren arauaren 163 sexies. Bost artikuluan xedatutakoa ere aplikatu ahal izango dute. Edonola ere, erregimen berezia aplikatzen duten eta erakunde talde bereko kide diren erakundeentzat izango da aukera hori.

Aukera hori erregimen berezia aplikatzeko aukerarekin batera baliatu ahalko da, edo hura aplikatzen hasi ondoren, baina betiere jakinarazi egin beharko da, erregimen berezia aplikatzeak ondorioak sortu behar dituen urte naturalaren aurreko abenduan.

Aukera horrek behintzat urte natural bateko balioa izango du, eta luzatu egingo da, uko egiten ez bazaio. Aukerari uko eginez gero, horrek urtebeteko balioa izango du behintzat, eta hari uko egitekotan Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio. Aukera horri uko egiteak ez du eragotziko aukera horretaz baliatzen diren erakundeek erakunde taldearen erregimen berezia aplikatzen jarraitzea, salbu eta zergaren arauaren 163 sexies. Bost artikuluan xedatutakoa, artikulu horretako 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera.

**3.** (42) Zergaren arauaren 103. Bi.1 artikuluak aipatzen duen hainbanaketa bereziaren erregela aplikatuko dute zergaren arauaren 163 sexies. Bost artikuluan arautzen den aukeraz baliatu diren erakundeek, talde barruko eragiketen sektore berezituari dagokionez. Hala ere, taldeko erakunde bakoitzak gainerako sektore berezituei dagokienez izango lukeen aukerez ere baliatu ahalko dira.

**4.** Abenduetan jakinaraziko dio entitate nagusiak Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzari talde barruko zer entitatek aplikatuko duen araubide berezia. Halaber, aurreko urtearekin erkatuz zer alde dagoen zehaztuko du. Bestalde, abendu horretan taldean beste entitateren bat sartu bada, entitate horri buruzko informazioa hurrengo urteko urtarrilaren 20a baino lehen eman beharko da.

Taldera entitaterik sartu bada, entitateek araubide berezia aukeratzen duteneko erabakiaren kopia aurkeztuko dute aurreko argibideekin batera. Araubide berezia aplikatu nahi bada, nahi horri buruzko erabakia araubide berezia aplikatu aurreko urtean onartutakoa izango da. Dena den, artean araubide berezia aplikatzen duen talderen batera sartzen den entitate sortu berriak erabaki hori hartu ahal izango du araubide berezia aplikatzeari dagokion banakako lehen aitorpena-likidazioa aurkezteko epea bukatu aurretik. Horrelakoetan, araubide berezia aitorpenari-likidazioari dagokion likidazio aldiko lehen egunetik aurrera aplikatuko zaio.

**5.** Araubide bereziari uko egiten bazaio, Ogasun Zuzendaritzari jakinaraziko zaio. Jakinarazi ere ukoak eragina izan dezan nahi den urteko aurreko abenduan.

**6**. (42) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak berariazko eredua onartu ahalko du, zeinaren bidez artikulu honen aurreko paragrafoetan aipatzen diren jakinarazpenak funtsatuko baitira, aurkezteko modua, lekuak eta epeak arautuko direlarik.

**7**. (42) Finantza atxikipena egongo da, erakunde nagusiak, ehuneko 50eko baino gehiagoko partaidetzaren bidez kapitalean edo taldeko erakundeek boza emateko daukaten eskubideetan, haiengan benetako kontrola daukanean.

Ekonomia atxikipena egongo da, taldeko erakundeek ekonomia jarduera berdina egiten dutenean, edo jarduera desberdinak egin arren elkarren osagarri direnean edo haiek egiten laguntzen dutenean.

Antolamendu atxikipena egongo da zuzendaritza berdina egoten denean taldeko erakundeetan.

Pentsatuko da, kontrakoa frogatzen ez bada behintzat, finantza atxikipenaren baldintza betetzen duen erakunde batek ekonomia eta antolamendu atxikipenaren baldintzak ere betetzen dituela.

**61 ter artikulua.- Aitorpenak-likidazioak.**

**1.** Araubide berezia aplikatzen duten elkarteko entitateen aitorpen-likidazio guztien aitorpena-likidazioa aurkeztuko du entitate nagusiak, baita orokorra ere.

Nahiz eta elkarteko entitateren bateko aitorpena-likidazioa epe barruan aurkeztu ez, entitate nagusiaren aitorpena-likidazioa aurkeztu ahal izango da. Banakako aitorpen-likidazio hori ez aurkezteak ondorioak izan ditzake, ordea.

**2.** Araubide berezitik kanpo gelditzen diren entitateek zergaren araubide orokorra aplikatuko dute likidazio aldian kanpoan gelditzen diren unetik bertatik. Entitate horiek, 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, beren aitorpenak-likidazioak, eragiketa bolumenaren arabera, hilean behin edo hiru hilabeterik behin aurkeztuko dituzte. Hiruhilekoaren hasierarekin bat ez datorren egunen batean gelditzen bada entitateren bat

araubide berezitik kanpo eta entitate horrek hiru hilabeterik behin aurkeztu behar baditu aitorpenak-likidazioak, entitate horrek hiruhilekoa osatu arte gelditzen den denborari dagokion aitorpena-likidazioa aurkeztuko du.

Entitate taldearen araubide berezitik kanpo gelditzen bada entitateren bat eta entitate horrek 30. artikuluan xedatutakoak betetzen baditu, artikulu horretan arautzen den itzulketa bereziaren prozedura aukeratu ahal izango du.

**3.** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartuko ditu araubide berezia aplikatzeko beharrezkoak diren banakako eta taldekako aitorpen-likidazio ereduak. Aitorpen-likidazio horiek hileko likidazioa egiteko aldiaren hurrengo hileko lehenengo hogei egunen barruan aurkeztuko dira.

Dena den, ondoren zehazten diren aitorpen-likidazioak aipatutako epe berezietan aurkeztu beharko dira:

1.º Uztaileko likidazio aldiari dagozkionak abuztuan edo irail eko lehen hogei egunetan.

2.º Urteko azken aldiari dagozkionak, urtarrileko lehen hogeita hamar egunetan.

Paragrafo honen aurreko lerroaldeetan araututakoa gorabehera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak, arrazoi teknikoetan oinarrituta, luzatu ahal izango du aitorpenak bide telematikoz aurkezteko epea.

**4.** Ezin izango dute erabili zerga alorreko kontu korronte sistema araubide berezia aplikatzen duten enpresaburuek eta profesionalek, halaxe xedatzen baitu Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 70. artikuluaren 3. paragrafoan.

**61 quater artikulua.- Salbuespenei uko egitea.**

**1.** Zergaren Arauaren 163.sexies.bost artikuluan xedatutako salbuespenei uko egiteko eskumena gauzatu ahal izango da aipatutako artikuluan adierazten diren talde barruko eragiketen trataera berezia aplikatzea erabaki dutenean. Erabaki horrek sasoiz eta era egokian hartutakoa izan beharko du.

Eskumen hori eragiketaz eragiketa gauzatu ahal izango da, eta hurrengo paragrafoan xedatutako eran egiaztatuko.

Eskumen hori gauzatu ahal izateko ez da ezinbesteko baldintza izango enpresaburuak edo profesionalak ukoaren gai diren eragiketen jasotzailearen kuotak murrizteko eskubidea izatea.

**2.** Zergaren zenbatekoa adierazten duen ordainagiri bat emanez gauzatuko da ukoa, eta, behar izanez gero, Zergaren Arauaren 163 sexies.bost artikuluari egingo zaio aipamen.

(45) Faktura horretan maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak, fakturazioaren inguruko betebeharren arautegia onartzen duenak, 6. artikuluan ezartzen dituen baldintza guztiak bete behar dira.

**3.** Ukoaren helburu diren eragiketei Zergaren Arauaren 20.2 artikuluak xedatutakoak ere aplikatu ahal bazaizkie, arau horren 163 sexies.bost artikuluan xedatutakoek izango dute lehentasuna.

Ondasuna eman aurretik edo ematean, berariaz jakinarazi beharko zaio erosleari salbuespenei buruzko ukoa. Jakinarazitzat emango da, baldin eta eragiketak direla-eta egiten den ordainagirian Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa jasota badago.

**61 quinquies artikulua.- Araubide bereziaren forma betebehar berariazkoak.**

**1.** Entitate taldeak erabakitzen badu Zergaren Arauaren 163 sexies.bost artikuluan xedatutakoak aplikatzea, informazio-sistema analitikoa izango du entitate nagusiak. Hona hemen informazio-sistema horren edukia:

a) Talde barruko eragiketetan zuzenean edo zeharka erabilitako ondasunen eta zerbitzuen deskripzioa, baldin eta horiengatik zerga ordaindu behar izan bada.

   Zerrenda horretan jasoko dira hirugarrenei erositako ondasun eta zerbitzuak eta, hirugarrenei erositakoak izan ez arren, zergari lotutako eragiketak izateagatik kuota ordaindu beharra ekarri dutenak.

b) Zerga-oinarriaren eta ondasun eta zerbitzu horiengatik ordaindutako kuoten zenbatekoa. Ordainagiriak aurkeztuko dira frogagiri gisa.

   Ondasun eta zerbitzu horiengatik ordaindutakoen kuota murriztuen zenbatekoa, orokorra edo berezia, araubide berezia aplikatzen ari diren entitate guztiena. Prorrata erregela adieraziko da.

c) Inbertsio ondasunak direla eta, arautzeko egindako urratsen zenbatekoa adieraziko da, bai berei dagokienez, bai haien erabileraren hastapenari dagokionez.

d) Talde barruko eragiketen zerga oinarriari eta eragiketok eratutako sektore berezituari ondasunen eta zerbitzuen kostuaren zenbatekoa egozteko irizpideak. Irizpide horiek txosten batean jasoko dira; txosten hori informazio sistemaren zati izango da, eta kuantifikatu egin beharko da. Ezinbestekoa izango da erabilitako magnitudeen zuribideak gordetzea; behar izanez gero, informazio sistema kontserbatu behar deneko denbora guztian. Irizpideok, ahal denetan, talde barruko ondasunen eta zerbitzuen benetako erabilerari erantzungo diote, beste zernahi erabili gorabehera, hala nola, lehia askeko baldintzetan emandako eragiketak merkatuan izan dezakeen balioari dagokion proportzio esleipena, baldin eta zehaztu ezineko benetako erabilerari dagozkion ondasunak eta zerbitzuak badira. Zerga administrazioak aldez aurretik balioetsi ahal izango ditu irizpide horiek. Arabako Foru Aldundiak ezinbesteko manuak emango ditu aldez aurretiko balioespen hori garatzeko eta aplikatzeko.

**2.** (45) Arautegi honetako 61 quater artikuluko 2. idatz zatian xedatzen dena gorabehera, Zergaren Arauko 163 sexies. Bost artikuluan xedatzen dena aplikatzen duten entitateen arteko talde barruko eragiketak faktura bidez dokumentatu behar dira, eta faktura horretan maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak, fakturazioaren inguruko betebeharren arautegia onartzen duenak, 6. artikuluan ezartzen dituen baldintza guztiak bete behar dira. Hala ere, eragiketa horien zerga oinarri gisa Zergaren Arauko 163 octies.bat artikuluan xedatzen dena aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa zein arau bereko 78. eta 79. artikuluetan xedatzen dena aplikatzearen ondoriozkoa agertu behar dira, kasuan kasukoa identifikatuta.

Ordainagiri horiek segida berezi batean emango dira eta banaka jarriko idatziz; hain zuzen ere, egindako ordainagirien errolda liburuan.

**61 sexies artikulua.- Kontrol prozedurak.** (44)

**1.** Entitate nagusia eta entitate taldea egiaztatzea prozedura bakar batean egingo da, eta prozedura horretan sartuko da prozeduraren xede diren taldearen eta entitate nagusiaren zerga betebeharrak egiaztatzea.

**2.** Entitate multzo bat egiaztatzearen ondorioz egiaztatzen den mendeko entitate bakoitzean prozedura bakar bat garatuko da. Prozedura horretan sartuko da Balio erantsiaren gaineko zergako bakarkako tributazio araubidearen ondoriozko zerga betebeharrak egiaztatzea eta prozeduraren xede diren gainerako zerga betebeharrak egiaztatzea, eta taldeari entitate taldearen araubidearen arabera dagokion tributazioari buruzko elkarlan jardunak ere sartzen dira hor.

**3.** 6/2005 Foru Arauaren 67.1a) artikuluan ezarritakoaren arabera (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa, Arabako Zergen Orokorra), entitate taldearen balio erantsiaren gaineko zergaren preskripzioa eten egingo da:

a) Taldeko entitate nagusiarekin balio erantsiaren gaineko zerga dela-eta egindako edozein egiaztapen jardunengatik.

b) Mendeko entitateetako edozeinekin balio erantsiaren gaineko zerga dela-eta egindako edozein egiaztapen jardunengatik, betiere entitate nagusiak jardun horiek formalki ezagutzen baditu.

**4.** Taldeko edozein entitate dela eta gauzatzen diren jardunetan zerga prozedurak direla eta gertatzen diren preskripzio epearen eteteak justifikatuak badira eta atzeratzeak ezin bazaizkio egotzi zerga administrazioari, entitate nagusiaren eta entitate taldearen inguruan gauzatutako prozeduraren iraupen epeari eragingo diote, betiere entitate nagusi horrek horren berri formala badu. Inguruabar horiek gertatu arren, taldea osatzen duten gainerako entitateekiko jardunek aurrera jarraituko dute.

**5.** Mendeko entitate bakoitzaren inguruan gauzatutako prozeduraren dokumentazioa xehatu egingo da, izapidetzeari begira; hona nola:

a) Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko espediente bat, 41/2006 Foru Dekretuaren 14.4 h) artikuluak aipatzen duen laburpen eginbidea jasotzen duena (41/2006 Foru Dekretua, ekainaren 6koa, onesten duena Arabako lurralde historikoko zergak ikuskatzeari buruzko araudia). Espediente hori entitate nagusia eta entitate taldea egiaztatzeko jardunak gauzatzen ari den organoari igorriko zaio.

b) Beste espediente bat prozeduraren xede diren gainerako zerga betebeharrei buruzkoa.

**6.** Taldeko entitate nagusiaren inguruan gauzatutako prozeduraren dokumentazioa xehatu egingo da, izapidetzeari begira; hona nola:

a) Espediente bat entitate taldearen balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoa, aurreko atalean aipatzen diren laburpen eginbideak jasotzen dituena.

b) Beste espediente bat prozeduraren xede diren gainerako zerga betebeharrei buruzkoa.

## (41) VIII. KAPITULUA
## KUTXA IRIZPIDEAREN ARAUBIDE BEREZIA

**61 septies artikulua. (41) Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzea aukeratzea.**

**1.** Zergaren arauaren 163 undecies artikuluan adierazitako aukera baliatu beharko da jarduera hastearen aitorpena aurkeztearekin batera edo, bestela, ondorioak izan behar dituen urte naturala hasi aurreko abenduan. Aukera hori hurrengo urteetara luzatzen dela ulertuko da araubide horri uko egin ezean edo araubide horretatik kanpo geratu ezean.

**2.** Aukera horrek subjektu pasiboak egindako eragiketa guztietarako balio beharko du, baldin eta araubide berezitik kanpo ez badaude zergaren arauaren 163 undecies artikuluko bigarren idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

**61 octies artikulua. (41) Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzeari uko egitea.**

Araubide bereziari uko egin nahi izanez gero, jakinarazpena egin beharko zaio Arabako Foru Aldundiari, errolda aitorpena aurkeztuz, ondorioak izan behar dituen urte naturala hasi aurreko abenduan.

Uko egiteak hiru urterako izango ditu ondorioak, gutxienez.

**61 nonies artikulua. (41) Kutxa irizpidearen araubide berezitik kanpo uztea.**

Araubide berezi hori aplikatzeko aukera egin duten subjektu pasiboak hortik kanpo geratuko dira urte naturalean egiten duten eragiketen bolumena 2.000.000 eurotik gorakoa denean.

Subjektu pasiboak enpresa edo lanbide jarduerak urte naturalean hasi baditu, zenbateko hori urte batera arte izango da.

Kutxa irizpidearen araubide berezitik kanpo utziko dira subjektu pasiboak, urte naturalean zehar jasotzaile jakin batekin egin dituen eskudiruzko kobrantzak guztira 100.000 eurotik gorakoak badira.

Dena delako inguruabarrak gertatu eta hurrengo urtean bertan geratuko dira araubide berezitik kanpo. Arrazoi horiengatik araubide berezitik kanpo utzitako subjektu pasiboek hurrengo ekitaldietan ez badituzte esandako mugak gainditzen, araubide berezia berriz aplikatzeko aukera izan lezakete, arautegi honen 61 septies artikuluan ezarritako moduan.

**61 decies artikulua. (41) Erregistroko berariazko betebeharrak.**

**1.** Kutxa irizpidearen araubide bereziari helduko dioten subjektu pasiboek arautegi honen 63. artikuluan aipatzen den egindako fakturen erregistro liburuan honako argibideak idatzi beharko dituzte:

1. Eragiketa kobratu zen eguna (zati bat edo osorik), eta bereiz adierazi behar dira zenbatekoak, hala badagokio.

2. Banku kontua edo kobratzeko erabilitako bidea, zati bat edo osorik kobratu den egiaztatzeko moduan.

**2.** Kutxa irizpidearen araubide bereziari helduko dioten subjektu pasiboek, baita kutxa irizpidearen araubide bereziari heldu ez baina araubide horretako eragiketen jasotzaileak diren subjektu pasiboek ere, arautegi honen 64. artikuluan aipatzen den jasotako fakturen erregistro liburuan honako argibideak idatzi beharko dituzte:

1. Eragiketa ordaindu zen eguna (zati bat edo osorik), eta bereiz adierazi behar dira zenbatekoak, hala badagokio.

2. Eragiketaren zati bat edo osorik ordaintzeko erabilitako bidea.

**61 undecies artikulua. (41) Fakturazioko berariazko betebeharrak.**

**1.** Fakturazioko betebeharren arautegiak, maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 6. artikuluan ezarritakoa betez, kutxa irizpidearen araubide bereziari heldu dioten subjektu pasiboek egindako faktura guztiek eta horien kopiek, araubide hori aplikagarri zaien eragiketenak badira, honakoa adierazita izan behar dute: “kutxa irizpidearen araubide berezia”.

**2.** Fakturazioko betebeharren arautegiak, maiatzaren 28ko18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 11. artikuluan ezarritakoa betez, kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri zaien eragiketak egiten diren unean bertan egin behar dira fakturak; aldiz, eragiketaren jasotzailea enpresaburua edo profesionala bada eta hori gisa jarduten badu, eragiketak egin eta hurrengo hilaren 16a baino lehen egin behar dira fakturak.

## (42) (47) IX. KAPITULUA
## URRUNEKO SALMENTEN ETA BATASUNAREN BARRUKO ONDASUN EMATE ETA ZERBITZUGINTZA BATZUEN ARAUBIDE BEREZIAK

**61 duodecies artikulua. (47) Definizioak.**

Kapitulu honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) "Batasunaren kanpo araubidea": zergaren arauaren IX. tituluko XI. kapituluko 2. atalean araututako araubide berezia.

b) "Batasunaren araubidea": zergaren arauaren IX. tituluko XI. kapituluko 3. atalean araututako araubide berezia.

c) "Inportazio araubidea": zergaren arauaren IX. tituluko XI. kapituluko 4. atalean araututako araubide berezia.

**61 terdecies artikulua. (47) Aukeratzea eta uko egitea. Ondorioak.**

**1.** Kapitulu honetan aipatzen diren araubide berezietako bat aukeratzeko, araubide berezietan hasteko adierazpena aurkeztu beharko da identifikazioko estatu kidean, eta ondoreak izango ditu:

a) adierazpena aurkeztu eta hurrengo hiruhileko naturaleko lehen egunetik aurrera, Batasunaren kanpo araubidearen eta Batasunaren araubidearen kasuan; edo

b) enpresaburuari edo profesionalari edo bere kontura jarduten duen bitartekariari identifikazio zenbaki indibiduala esleitzen zaion egunetik aurrera, inportazio araubiderako zergaren ondorioetarako.

Espainiako Erresuma identifikazioko estatu kidea bada, zergaren arauaren 163 noniesdecies, 163 duovicies eta 163 septvicies artikuluetan arautzen da hasierako adierazpena.

Aurrekoa gorabehera, Batasunaren kanpo araubidean edo Batasunaren araubidean, enpresaburu edo profesional batek aurreko a) letran aipatutako eragin data baino lehen hasten baditu araubide berezi horietan jasotako eragiketak, dagokion araubide bereziak lehen entregaren edo zerbitzu ematearen datatik aurrera izango ditu ondorioak, baldin eta enpresaburuak edo profesionalak hasiera adierazpen hori aurkezten badu, beranduenez ere, horiek hasteko data izan eta hurrengo hilabeteko hamargarren egunean.

Paragrafo honetan ezarritakoak ez dio kalterik egingo estatu kideko tributu administrazioak kapitulu honetan aipatzen diren araubide bereziei erregistroa ukatzeko duen ahalmenari, enpresaburuak edo profesionalak ez baditu betetzen kasuan kasuko araubideez baliatzekobaldintzak.

**2.** Kapitulu honetan aipatzen diren araubide berezietako edozeini borondatez uko egiteko, araubide bereziei uzteko adierazpena aurkeztu beharko zaio identifikazioko estatu kideari. Adierazpen hori honela egin beharko da:

a) araubide berezia erabiltzeariutziko dion hiruhileko naturala amaitu baino hamabost egun lehenago gutxienez, eta uzte adierazpena aurkeztu eta hurrengo hiruhileko naturalaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak, Batasunaren kanpo araubidearen eta Batasunaren araubidearen kasuan.

b) gutxienez inportazio erregimena erabiltzeariutziko dion hilaren aurreko hilabetea baino hamabost egun lehenago, eta uzte adierazpena aurkeztu eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Kasu horretan, enpresaburuak edo profesionalak

araubide berezi hori data horretatik aurrera egiten dituen ondasun emateetarako erabiltzeariutziko dio.

Identifikazioko estatu kidea Espainiako Erresuma duen bitartekariak, inportazio erregimenari atxikitako enpresaburuen edo profesionalen kontura egiten duen jarduerari amaiera ematen badio, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi beharko dio hartutako erabakia, bitartekari gisa jarduteari utzi nahi zaion hilaren aurreko hilabete naturala amaitu baino gutxienez hamabost egun lehenago.

Espainiako Erresuma identifikazioko estatu kidea bada, zergaren arauaren 163 noniesdecies, 163 duovicies eta 163 septvicies artikuluetan arautzen da kargu uztearen adierazpena.

**3.** Erkidegoan finkatutako enpresaburu edo profesional batek, edo, hala badagokio, bere kontura diharduen bitartekari batek, bere jarduera ekonomikoaren egoitza estatu kide batetik beste batera aldatzen duenean, edo identifikazioko estatu kide batean finkatuta egoteari uzten dionean, baina Erkidegoan finkatuta jarraitzen badu eta Batasuneko edo inportazioko araubide bereziei atxikita jarraitu ahal izateko baldintzakbetetzen baditu, egoitza edo establezimendu iraunkorra aldatzen den egunean, identifikazioko estatu kidean uzte adierazpena aurkeztu ahal izango du, eta beste estatu kide batean hasiera adierazpena aurkeztu ahal izango du.

Ondasunak entregatzeko Batasunaren araubidea erabiltzen duen enpresaburuak edo profesionalak Erkidegoan finkatuta egoteari uzten dionean, identifikaziorako estatu kide berri gisa adieraziko du ondasunak jaulkitzeko edo garraiatzeko estatu kide bat.

Identifikazioko estatu kidearen aldaketak gertatzen den egunetik izango ditu ondorioak, betiere enpresaburuak edo profesionalak, edo, hala badagokio, bere kontura jarduten duen bitartekariak, ukitutako identifikazioko estatu kide bakoitzari dagokion adierazpena aurkezten badu. Adierazpen horretan identifikazioko estatu kidearen aldaketaren berri emango du, beranduenez, egoitza edo establezimendu iraunkorraren aldaketa gertatu eta hurrengo hilabeteko hamargarren egunean, edo enpresaburu edo profesional horrek estatu kide horretatik ondasunak igortzeari edo garraiatzeari uzten dion egunetik aurrera.

**4.** Aurreko 3. paragrafoan aipatzen diren kasuetan, eta identifikazioko estatu kidearen aldaketa dagokion likidazio aldiko lehen egunaren ondoren gertatzen bada, enpresaburuak edo profesionalak, edo, hala badagokio, bere kontura jarduten duen bitartekariak, identifikazioko bi estatu kideetan aldaketa gertatu den hiruhileko edo hilabete naturalari dagokion zergaren aitorpen likidazioa aurkeztu beharko du, estatu kide bakoitza identifikazioko estatu kide izan den aldietan egindako eragiketak kontuan hartuta.

**61 quaterdecies artikulua. (47) Erregimenetik kanpo uztea eta ondorioak.**

**1.** Enpresaburu edo profesional bat kapitulu honetan aipatutako araubide berezietako edozeinetatik baztertzea identifikazioko estatu kideak bakarrik onartuko du, eta horren erabakia enpresaburu edo profesional horri jakinarazi beharko zaio bide elektronikoz, eta ondoreak izango ditu:

a) jakinarazpena egin eta hurrengo hiruhileko naturaleko lehen egunetik aurrera, Batasunaren kanpo araubidearen eta Batasunaren araubidearen kasuan; edo

b) jakinarazpena egin eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera, inportazio araubidearen kasuan, salbu eta baztertzea araubide honetako arauak behin eta berriz ez betetzearen ondorio bada; kasu horretan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Enpresaburuak edo profesionalak bitartekariarekin jarduten duenean, bitartekaria hurrengo paragrafoaren arabera kanporatzeko erabakiak bitartekariaren kontura jarduten zuten enpresaburuak edo profesionalak inportazio araubidetik kanpo uztea dakar. Enpresaburu edo profesional horiek arrazoi horrengatik kanporatzen badira, horietako bakoitzari jakinaraziko zaio, eta jakinarazpena egin eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak, bitartekaria kanporatzeko arrazoia edozein izanda ere.

Aurrekoa gorabehera, baztertzearen arrazoia bada jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkorra aldatzea edo enpresaburuak edo profesionalak ondasunak bidali edo garraiatzen hasteko tokia aldatzea, aldaketa horren datatik aurrera izango ditu ondorioak, baldin eta enpresaburuak edo profesionalak aldaketa adierazpena aurkezten badio ukitutako identifikazioko bi estatu kideetako bakoitzari, eta, bertan, identifikazioko estatu kidearen aldaketaren berri ematen badu, beranduenez ere, egoitza edo establezimendu iraunkorra aldatu eta hurrengo hilaren hamargarren egunean.

**2.** Inportazio erregimenari atxikitako enpresaburu edo profesional baten kontura diharduen bitartekari bat baztertzea identifikazioko estatu kideak bakarrik onartuko du. Estatu kide horren erabakia bide elektronikoz jakinarazi beharko zaio, eta jakinarazpen hori egin eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hala ere:

a) baztertzea jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkorra aldatzeansortzen bada, aldaketa horren datatik aurrera izango ditu ondorioak, baldin eta bitartekariak aldaketa adierazpena aurkezten badio ukitutako identifikazioko estatu kide bakoitzari, eta bertan jakinarazten badu identifikazioko estatu kidea aldatu dela, beranduenez egoitza edo establezimendu iraunkorra aldatu eta hurrengo hilabeteko hamargarren egunean; edo

b) araubide horretako arauak behin eta berriz ez betetzearen ondorio bada baztertzea, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Nolanahi ere, bitartekariak azken hilabete naturaleko aitorpen likidazioa aurkeztu beharko du, bere kontura diharduen enpresaburu edo profesional bakoitzari dagokion araubidean.

**3.** Kapitulu honetan aipatzen diren araubide berezietatik baztertzeko arrazoiak izango dira jarraian zerrendatzen diren hauetatik edozein:

a) Enpresaburu edo profesionalak erregimenari uzteko aitorpena aurkeztea edozein erregimen bereziren barruan dauden zerbitzuak emateari uzteagatik; horretarako, enpresaburu edo profesionalak aitorpen hori aurkeztu beharko dio identifikazioko estatu kideari, gehienez ere, egoera hori gertatu ondorengo hilabeteko hamargarren egunean.

Espainiako Erresuma identifikazioko estatu kidea bada, zergaren arauaren 163 noniesdecies, 163 duovicies eta 163 septvicies artikuluetan arautzen da kargu uztearen adierazpena.

b) Enpresaburuak edo profesionalak bere jarduerak araubide berezietako edozeinetan egiteari utzi diola uste izatea ahalbidetzen duten gertaerak egotea. Aurrekoa gertatu dela joko da enpresaburuak edo profesionalak kontsumoko estatu kide batean ere araubide bereziek aipatzen dituzten eragiketetako bat bi urtez egiten ez duenean.

c) Araubide berezi hauetako bati heltzeko behar diren betekizunak ez betetzea.

d) Behin eta berriz ez betetzea erregimen berezi horien araudiak ezarritako betebeharrak. Ez betetze hori honelakoetan gertatuko da, besteak beste:

a') enpresaburuari edo profesionalari aurreko hiru aitorpen aldietan aitorpen bat aurkezteko betebeharraren jakinarazpenak edo oharrak bidali izana, eta dagokion zergaren aitorpena hamar eguneko epean aurkeztu ez izana, ohar edo jakinarazpen bakoitzabidaltzen denetik zenbatzen hasita;

b') enpresaburuari edo profesionalari aurreko hiru aitorpen aldietan ordainketa bat egiteko betebeharraren jakinarazpenak edo oharrak bidali izana, eta batuketa osoa hamar eguneko epean ordaindu ez izana, ohar edo jakinarazpen bakoitzabidaltzen denetik zenbatzen hasita, salbu eta aitorpen bakoitzari dagokion eta ordaintzeke dagoen zenbatekoa 100 eurotik beherakoa denean;

c') enpresaburuak edo profesionalak ez duenean bete bere erregistroak identifikazioko estatu kidearen edo kontsumoko estatu kidearen esku baliabide elektroniko bidez uzteko betebeharra identifikazioko estatu kideak bidalitako ohar edo jakinarazpena egin zenetik hilabeteko epean.

d') inportazio erregimenari atxikitako enpresaburuak edo profesionalak araubide berezia behin eta berriz erabiltzea 150 eurotik gorako berezko balioa duten edo zerga bereziei lotuta dauden ondasunak inportatzeko.

e) Bitartekari baten bidez jarduten duen eta inportazio araubideari atxikitako enpresaburu edo profesionalarentzat, bitartekari horrek zerga administrazioari jakinaraz diezaiola hura ordezkatzeariutzi diola; horretarako, bitartekariak hori jakinarazi beharko dio identifikazioko estatu kideari, gehienez ere egoera hori gertatu eta hurrengo hilabeteko hamargarren egunean.

Baztertzea aurreko d) letran aipatutako kasuetan gertatzen denean, bazterketaren eragin datatik zenbatzen hasita, gutxienez bi urteko epean izango ditu ondorioak, hiru araubide bereziei dagokienez.

**4.** Inportazio erregimenari atxikitako enpresaburu edo profesional baten kontura jarduten duen bitartekaria baztertzeko arrazoiak izango dira:

a) Bitartekari gisa bi hiruhileko naturaletan ez jardutea.

b) Bitartekari gisa aritzeko ezarritako baldintzak ez betetzea.

c) Araubide berezi horretako araudiak ezarritako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea; besteak beste, honako kasu hauetan:

a') bitartekariari aurreko hiru aitorpen aldietan aitorpen bat aurkezteko betebeharraren jakinarazpenak edo oharrak bidali izana, eta hamar eguneko epean dagokion zergaren aitorpena aurkeztu ez izana, ohar edo jakinarazpen bakoitzabidaltzen denetik zenbatzen hasita;

b') aurreko hiru aitorpen aldietan ordainketa bat egiteko betebeharra jakinarazteko edo gogorarazteko jakinarazpenak bitartekariari bidali izana, eta batuketa osoa hamar eguneko epean ordaindu ez izana, ohar edo jakinarazpen bakoitzabidaltzen denetik zenbatzen hasita, salbu eta aitorpen bakoitzari dagokion eta ordaintzeke dagoen zenbatekoa 100 eurotik beherakoa bada;

c') bitartekariak ez badu bete identifikazioko estatu kidearen edo kontsumoko estatu kidearen esku bere erregistroak bide elektronikoz jartzeko betebeharra, hilabeteko epean, identifikazioko estatu kideak dagokion oharretik edo jakinarazpenetik zenbatzen hasita;

d') Bitartekariak erregistro liburuetan jasotako eragiketei buruzko informazioa emateko betebeharra arautzen duen otsailaren 10eko 12/2009 Foru Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 1. zenbakiko c) letran ezarritako baldintzakbetetzen baditu.

c) idatz zati honen kasuan, bitartekariak ezin izango du horrela jardun araubide berezitik baztertua izan den hilabetearen ondorengo bi urteetan.

**5.** Batasuneko kanpo araubidetik edo Batasuneko araubidetik kanpo geratu diren enpresaburuek edo profesionalek zuzenean ordaindu beharko dituzte, dagokion kontsumoko estatu kideko zerga agintarien aurrean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez beharrezko betebehar guztiak, Bazterketa gauzatu den dataren ondoren sortutako ondasun entregengatik edo zerbitzu prestazioengatik.

**61 quinquiesdecies artikulua. (47) Informazio betebeharrak.**

Kapitulu honetan aipatzen diren araubide berezietako edozeini atxikita dagoen enpresaburuak edo profesionalak, edo bere kontura diharduen bitartekariak, hala badagokio, aldaketa adierazpen bat aurkeztu beharko dio identifikazioko estatu kideari, hari emandako informazioan edozein aldaketa gertatuz gero; adierazpen hori aldaketa gertatu eta hurrengo hilaren hamargarren egunean aurkeztu beharko da, beranduenez.

Espainiako Erresuma identifikazioko estatu kidea bada, zergaren arauaren 163 noniesdecies, 163 duovicies eta 163 septvicies artikuluetan arautzen da aldaketa adierazpena.

**61 sexiesdecies artikulua. (47) Betebehar formalak.**

**1.** Batasunaren kanpo araubidera eta Batasunaren araubidera bildutako enpresaburuek eta profesionalek araubide berezi horietan jasotako eragiketen erregistroa eraman behar dute, behar besteko xehetasunez, kontsumoko estatu kideko zerga administrazioak

zergaren aitorpenetan jasotako datuak egiaztatu ahal izateko. Horretarako, erregistro horrek ondorengo informazioa izango du:

a) eragiketak egin diren kontsumoko estatu kidea;

b) egindako zerbitzu emate mota edo entregatutako ondasunen deskribapena eta kopurua;

c) eragiketa egin den eguna;

d) zerga oinarria, zein moneta erabili den adierazita.

e) zerga oinarrian ondoren egin den edozein gehitze edo murrizketa;

f) aplikatu den zerga tasa;

g) zergaren zenbateko zordundua, erabilitako moneta adierazita.

h) jasotako ordainketen data eta zenbatekoa;

i) eragiketa egin aurretik jasotako edozein aurrerakin;

j) fakturan jasotako informazioa, jaulkiz gero.

k) bezeroaren establezimendua zehazteko erabilitako informazioa, edo haren ohiko bizilekua, zerbitzu prestazioak direnean, eta, ondasunen kasuan, horien bidalketa edo garraioa hasten eta amaitzen den tokia zehazteko erabilitako informazioa;

l) Ondasunen balizko itzulketen edozein froga, zerga oinarria eta aplikatutako zergaren tasa barne.

**2.** Enpresaburuek edo profesionalek, edo beren kontura diharduten bitartekariek, inportazio araubideari helduta, araubide berezi honetan jasotako eragiketen erregistro bat eraman beharko dute, behar besteko xehetasunez, kontsumoko estatu kideko zerga administrazioak zergaren aitorpenetan jasotako datuak egiaztatu ahal izan ditzan. Horretarako, erregistro horrek ondorengo informazioa izango du:

a) ondasunak ematen diren kontsumoko estatu kidea;

b) entregatutako ondasunen deskribapena eta kopurua;

c) ondasunak noiz entregatu diren;

d) zerga oinarria, zein moneta erabili den adierazita.

e) zerga oinarrian ondoren egin den edozein gehitze edo murrizketa;

f) aplikatu den zerga tasa;

g) zergaren zenbateko zordundua, erabilitako moneta adierazita.

h) jasotako ordainketen data eta zenbatekoa;

i) fakturan jasotako informazioa, jaulki bada;

j) bezeroari zuzendutako ondasunen bidalketa edo garraioa non hasten eta amaitzen den zehazteko erabilitako informazioa;

k) ondasunen balizko itzulketen edozein froga, zerga oinarria eta aplikatutako zergaren tasa barne;

l) eskaera zenbakia edo transakzio zenbaki bakarra;

m) bidalketaren zenbaki bakarra, enpresaburuak edo profesionalak entregan zuzenean esku hartzen duenean.

**3.** Aurreko paragrafoetan aurreikusitako informazioa elektronikoki, berehala eta egindako eragiketa bakoitzekoerabiltzeko moduan gorde beharko da, eta eskuragarri egongo da bai kontsumoko estatu kidearentzat, bai identifikazioko estatu kidearentzat.

**4.** Fakturaren jaulkipena, bidezkoa den kasuetan, identifikazioko estatu kidearen arauen arabera zehaztu eta doituko da.

Espainiako Erresuma identifikazioko estatu kidea bada, fakturaren jaulkipena eta entrega indarreko legerian aurreikusitakoaren arabera egingo da.

**61 septiesdecies artikulua. (47) Inportazio erregimenean bitartekari gisa jarduteko baldintzak eta betekizunak.**

Operadore batek Espainiako Erresuman bitartekari gisa jardun ahal izateko inportazio erregimenaren ondorioetarako, erregimenaren eskubideak eta betebeharrak bere gain hartuz, 163 quinvicies artikuluan ezarritako baldintzetan (Zergaren Arauaren bi zenbakiko b) letra) honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Zergaren Arauaren 164. Bat.2. artikuluan aipatzen den identifikazio fiskaleko zenbakia izatea.

b) Zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta egotea.

c) Bitartekari gisa jarduteko eskaera aurkeztu aurreko lau urteetan Ogasun Publikoaren aurkako delitu bat edo zerga arloko arau hauste larri bat egiteagatik kondenatua edo zigortua ez izatea, bere jarduera ekonomikoari dagokionez, epai edo administrazio ebazpen irmo baten bidez.

Baldintza hori betetzat joko da honako pertsona hauetako bat ere ez badago aurreko paragrafoan adierazitako egoeran bere jarduera ekonomikoari dagokionez, eskatzailearen jarduera ekonomikoa barne, hala badagokio:

a') operadorea,

b') aduana eta/edo zerga gaiez arduratzen diren langileak,

c') operadoreaz arduratzen den edo haren zuzendaritzakontrolatzen duen pertsona edo pertsonak.

Aurrekoa gorabehera, betekizun hori betetzat jo ahal izango da baldin eta Zerga Administrazioak uste badu arau hauste bat ez dela garrantzitsua lotutako eragiketen kopuruari edo magnitudeari dagokionez, eta zalantzarik ez badu eskatzailearen fede onari dagokionez.

Operadorea ez den c') tartekian aipatzen den pertsona hirugarren herrialde batean ezarrita badago edo bertan bizi bada, zerga administrazioak irizpidea betetzen den ebaluatu beharko du, dituen erregistroetan eta informazioan oinarrituta.

Operadoreak lau urte baino gutxiagobadaramatza ezarrita, zerga administrazioak irizpidea betetzen den ebaluatu beharko du, dituen erregistroetan eta informazioan oinarrituta.

d) Finantza kaudimena; egiaztatutzat joko da operadoreak bere konpromisoak betetzeaahalbidetzen dion finantza maila duenean, dagokion jarduera motaren ezaugarriak behar bezala kontuan hartuta.

Betekizun hori egiaztatutzat joko da eskatzaileak honako baldintza hauek betetzen dituenean:

a') ez dagoela konkurtso prozedura batean sartuta;

b') bitartekari gisa jarduteko eskaera aurkeztu aurreko azken lau urteetan, aduana eta zerga zorrak ordaintzeari dagokionez dituen finantza betebeharrak bete dituela;

c') Eskabidea aurkeztu aurreko azken lau urteetarako eskuragarri dauden erregistroetan eta informazioan oinarrituta, erakusten du finantza gaitasun nahikoa duela bere betebeharrak betetzeko eta merkataritza jardueren izaerari eta bolumenari buruzko konpromisoei aurre egiteko, bereziki aktibo garbi negatiborik ez duela, estali ahal badira izan ezik.

Operadoreak lau urte baino gutxiagobadaramatza ezarrita, finantza kaudimena erregistroetan eta eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta ebaluatuko da.

Baldintza horiek betetzen direla ulertuko da operadorea operadore ekonomiko baimendua denean, Batasuneko Aduana Kodearen eta haren aplikazio xedapenen arabera.

Zerga administrazioak bitartekari izaera ukatu ahal izango du inportazio araubidearen ondorioetarako, operadoreak ez baditu betetzen aurrez ezarritako baldintza guztiak.

## IX. TITULUA
## SUBJEKTU PASIBOEN KONTULARITZAZKO BETEKIZUNAK

**62. artikulua.- (21) Balio Erantsiaren gaineko Zergako erregistro liburuak.**

**1.** Enpresaburu edo profesionalek eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren beste subjektu pasibo batzuek, oro har eta Arautegi honek xedatzen dituen baldintzetan, honako erregistro liburu hauek erabili beharko dituzte:

a) Egindako fakturen erregistro liburua.

b) Jasotako fakturen erregistro liburua.

c) Inbertsio ondasunen erregistro liburua.

d) Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan egindako eragiketa jakin batzuen erregistro liburua.

**2.** (45) (47) Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko araubide berezi erraztuei, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari eta baliokidetasun errekarguari lotutako jarduerei dagokienez, araubide berezi horien arau erregulatzaileetan ezarritako salbuespenekin, ez eta Zergaren Arauaren 5. artikuluko bat paragrafoko e) idatz zatian aipatzen diren pertsonek noizbehinka garraiobide berriak entregatzeari dagokionez ere.

**3.** Enpresaburu edo profesionalek eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren beste subjektu pasibo batzuek, zerga edo kontabilitate betebeharrak betetzeko, erabili behar dituzten liburu edo erregistroak informatikoak ere bai , Zerga horren ondorioetarako erabili ahal izango dira, baldin eta Arautegi honetan ezarrita dauden baldintzak betetzen badituzte.

**4.** Zergaren aplikazio lurraldean dagoen hainbat establezimenduren titularrek 1. idatz zatian ezarri diren erregistro liburuak erabili ahal izango dituzte haietako bakoitzean. Erregistro liburu horietan bereizita jasoko dira establezimendu horietatik egindako eragiketak. Hori egiteko, beti ere, establezimendu horien laburpen idazpenak dagozkien erregistro liburu orokorretara (zerga egoitzan erabili behar direnak) aldatu behar dira.

**5.** (44) Arabako Foru Aldundiak baimena eman dezake, egoki deritzen egiaztapenak egin ondoren, honetarako:

a) Artikulu honen 1. zenbakian aipatzen diren erregistro liburuak ordezteko beste erregistro sistema batzuekin, bai eta erregistroko idazpenetarako eskatzen diren baldintzak aldatzeko ere, betiere enpresarien edo profesionalen edo subjektu pasiboen administrazio eta kontabilitate antolaketari badagozkio, eta, aldi berean, erabat bermatzen bada ezen egiaztatu egingo direla haiek balio erantsiaren gaineko zerga dela eta dauzkaten zerga betebeharrak.

b) Faktura jaulki eta jasoen erregistro liburuetan ez daitezen jasota ageri araudi honetako 63. artikuluko 3. zenbakian eta 64. artikuluko 4. zenbakian egiten diren aipamen guztiak edo informazio guztia, eta, orobat, idazpen laburpenak 63. artikulu horren 4. zenbakian eta 64. artikulu horren 5. zenbakian aipatzen direnez besteko baldintza batzuekin egin daitezen, baldin eta irizten bazaio dena delako jarduera sektore horretako merkataritza edo administrazio jardun moldeen ondorioz edo fakturak, kontabilitate frogagiriak eta

aduanetako dokumentuak jaulkitzeko baldintza teknikoen ondorioz zailagoa dela aipamen eta informazio horiek idatziz jartzea.

Baimen horiek edozein unetan ezezta daitezke.

**6.** (43) (48) Aurreko apartatuetan xedatzen dena gorabehera, artikulu honen lehenengo apartatuan aipatutako erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez eguneratu beharko dira, enpresaburu edo profesionalek eta zergaren beste subjektu pasibo batzuek fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz, egutegiko hilabetearekin bat datorren likidazio aldia badute, araudi honen 71.3 artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz.

Gainera, aurreko paragrafoan aipatu ez diren enpresaburu edo profesionalek eta zergari lotutako beste subjektu pasibo batzuek 40. artikuluaren 1. apartatuan, 47. artikuluaren 2. apartatuan, 61. artikuluaren 2. apartatuan, eta artikulu honen lehenengo apartatuan aipatutako erregistro liburuak eguneratzea aukeratu ahalko dute, Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez, araudi honen 68 bis artikuluan ezarritako inguruabarretan.

Aurreko laugarren apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, erregistro liburu bakarrak osatuko dira, eta horietan zergaren aplikazio lurraldean kokatutako establezimendu guztietako eragiketak jasoko dira.

TicketBAI betebeharra betetzeko Zerga Administrazioari bidalitako informazioak erregistro-liburuak paragrafo honetan aipatzen den egoitza elektronikoaren bidez eramateko betebeharra betetzeko balioko du. Hala ere, betebehar hori dela bide, bidalitako TicketBAI alta fitxategian jasotakoaz gain, informazio gehiago eman behar bada, hala badagokio, dagokion informazio gehigarria eman beharko da, erregelamendu honen 69 bis artikuluak ezarritako epean.

Fakturazio erregistroak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez emango dira era elektronikoan, web bidezko zerbitzuren bat erabiliz edo, hala badagokio, inprimaki elektroniko baten bitartez, betiere Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren aginduz onartutako erregistro esparruekin bat etorriz.

**62 bis artikulua.- (47) Eragiketen erregistroa.**

**1.** Baldin eta enpresaburu edo profesional batek, hala diharduela, ez enpresaburu ez profesional ez diren pertsonei ondasunak ematea edo zerbitzuak egitea bideratzen badu interfaze digital baten bidez (lineako merkatua, plataforma, ataria edo antzekoren bat) eta ez bada ondasun emate eta zerbitzugintza horien subjektu pasiboa, eragiketa horien erregistroa eduki beharko du.

Erregistroa behar bezain zehatza izango da, Zerga Administrazioak zerga behar bezala deklaratu den egiaztatu ahal izateko, eta honako hauek jaso beharko ditu:

a) hornitzailearen izena, posta helbidea eta helbide elektronikoa edo webgunea, zeinaren entregak edo prestazioak interfaze elektronikoaren bidez ematen baitira, eta eskuragarri dauden:

a') identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, edo hornitzailearen identifikazio fiskaleko zenbaki nazionala; eta

b') hornitzailearen banku kontuaren edo kontu birtualaren zenbakia;

b) ondasunen deskribapena, horien balioa, bidalketa edo garraioa iritsi den lekua, entregatzeko unea eta, eskuragarri badaude, eskaera zenbakia edo transakzio zenbaki bakarra;

c) zerbitzuen deskribapena, horien balioa, zerbitzua non eta noiz emango den zehazteko informazioa eta, eskuragarri badaude, eskaera zenbakia edo transakzio zenbaki bakarra.

**2.** Aurreko paragrafoan aipatutako erregistroak elektronikoki egon beharko du, aldez aurretik eskatuta, estatu kide interesdunen eskura.

Erregistroa hamar urtez gorde beharko da eragiketa egiten den urtea amaitu ondoren.

**62 ter artikulua.- (50) Ordainketa zerbitzuen hornitzaileen erregistroen edukia.**

**1.** Zerga arauaren 166 quater artikuluaren a) letran arautzen diren ordainketa zerbitzuen hornitzaileek mantentzen dituzten erregistroek honako informazio hau jaso beharko dute:

a) BIC kodea edo ordainketa zerbitzuen hornitzailea zalantzarik gabe identifikatzen duen erakundearen beste edozein identifikazio kode; baita haren izena edo izen soziala eta onuradunaren izenean betetzen duen funtzioa ere;

b) onuradunaren izena edo izen komertziala, ordainketa zerbitzuen hornitzailearen erregistroetan agertzen denaren arabera;

c) halakorik izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako edozein identifikazio zenbaki, bai eta onuradunaren identifikazio fiskal nazionaleko beste edozein zenbaki ere;

d) IBAN zenbakia edo, zenbaki hori eduki ezean, onuraduna zalantzarik gabe identifikatzeko eta haren kokapena emateko beste edozein identifikazio bitarteko;

e) BIC kodea edo erakundearen beste edozein identifikazio kode, zalantzarik gabe identifikatzen duena eta onuradunaren izenean jarduten duen ordainketa zerbitzuen hornitzailearen kokapena ematen duena, azken horrek ordainketa konturik gabe funtsak jasotzen dituenean;

f) Onuradunaren helbidea edo helbideak, ordainketa zerbitzuen hornitzailearen erregistroetan jasotakoaren arabera; eta eskura dauden, onuradunaren helbide elektronikoaren edo webguneen helbideak;

g) Zergaren Arauaren 166 quater artikuluaren a) letran aipatzen diren mugaz gaindiko edozein ordainketaren xehetasunak;

h) g) letran aipatzen diren mugaz haraindiko ordainketei dagokienez, ordainketa gisa aitortutako edozein itzulketaren xehetasunak.

**2.** 1. apartatuaren g) eta h) letretan aipatutako informazioan honako datu hauek agertu behar dira:

a) ordainketaren edo ordainketaren itzulketaren data eta ordua;

b) ordainketaren edo ordainketaren itzulketaren zenbatekoa eta dibisa;

c) onuradunak edo haren izenean jasotako ordainketaren jatorriko estatu kidea, itzulketaren xedeko estatu kidea, behar denean, eta ordainketaren edo ordainketaren itzulketaren jatorria edo xedea zehazteko erabilitako informazioa, Zergaren Arauaren 166 quinquies artikuluaren arabera;

d) ordainketa zalantzarik gabe identifikatzen duen edozein erreferentzia;

e) behar denean, ordainketa merkatariaren lokal fisikoetan hasi delako datua.

**3.** Zergaren Arauaren 166 ter artikuluan aurreikusitako definizioak ere aplikatuko dira artikulu honen ondorioetarako.

**4.** Zerga Administrazio eskudunak bermatuko du emandako informazioaren tratamendua, izaera sentikorra eta datu pertsonalen beharrezko babesa kontuan hartuta, proportzionaltasun- eta beharrizan mugen arabera egingo dela, datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat etorriz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan jasotako datuak babesteko Europako ereduaren lege-oinarrien arabera (2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, haien datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, bai eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentaraua ere, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa, eta datu horiek askatasunez zirkulatzeko eskubidea, Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia indargabetzen duena, bai eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako baldintzetan ere, eta oinarrizko eskubideak errespetatzea eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean aitortutako printzipioak betetzea, bereziki datu pertsonalak babesteko eskubidea.

**63. artikulua.- (21) Egindako fakturen erregistro liburua.**

**1.** Enpresaburu edo profesionalek egindako fakturen erregistro liburua erabili eta gorde beharko dute. Erregistro liburu horretan, behar den tartea utziz, agiri horien guztien idaztoharra egingo da. (41)

Betebehar bera izango dute, enpresaburu edo profesional izan gabe, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, zerga horren subjektu pasiboak direnek, izaera horrekin egiten dituzten fakturei dagokienez.

**2.** (43) Onargarria izango da, hala ere, idazpenak egitea, edozein prozedura egoki erabiliz, orri solteetan. Gerora, orri horiek korrelatiboki zenbakitu eta koadernatu beharko dira, aurreko idatz zatiak aipatutako erregistro liburua osatzeko.

Hala ere, araudi honetako 62.6 artikuluak aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, emandako fakturen erregistro liburu hori Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eguneratu beharko da, fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz.

**3.** (43) (44) (50) Egindako fakturen erregistro liburuan banan-banan inskribatuko dira egin diren fakturak. Horiez gain, baita ondokoak idatzi ere: zenbakia eta, hala badagokio, seriea, noiz egin den (data), eragiketak noiz egin diren, aurrekoaren desberdina bada, hartzailearen izena eta abizenak, sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eragiketen zerga oinarria, zergaren arauaren 78. eta 79. artikuluen arabera ezarritakoa, eta, hala badagokio, aplikatutako zerga tasa eta, aukeran, "BEZ barne" esapidea, zerga kuota eta eragiketa kutxa irizpidearen araubide bereziarekin bat etorriz egin den; hala bada, araudi honetako 61 decies artikuluko 1. idatz zatian egindako aipamenak jaso beharko dira.

Faktura zuzentzailerik egin behar ez denean, jaulkitako fakturen erregistro liburuan idatziko dira zerga oinarriaren eta kuotaren erregularizazioak edo doikuntzak, hasieran kalkulatuak bidaia agentzien araubide bereziari edo ondasun erabilien, arte objektuen, zaharkinen eta bildumako objektuen araubide bereziari atxikitako eragiketetan, deskontuengatik edo eragiketa sortu ondorengo beste inguruabar batzuengatik.

Erregelamendu honen 62. artikuluaren 6. apartatuan aipatzen diren pertsona eta erakundeen kasuan, informazio hau ere jaso beharko da:

a) (45) Egindako faktura mota, faktura osoa edo erraztua den zehaztuz.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatuaren foru agindu bidez onetsitako erregistro elektronikoko eremuek faktura jakin batzukidentifikatzeko balio duten beste zehaztapen batzuksartzeko eskatu ahal izango dute, hala nola hirugarrenek jaulkitako fakturen kasua, bai eta enpresa edo lanbide jardueran erabiltzeko dokumentu elektronikoen identifikazioa ere, erregelamendu honen 9. artikuluaren lehen zenbakiaren 2. zenbakiaren B) letran, 16. artikuluaren 1. zenbakian eta fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren lehen xedapen gehigarrian (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartua) aipatzen direnak.

b) Erregelamendu honen 70. artikuluak aipatutako erregistro zuzenketa bat den identifikatzea, behar denean.

c) Eragiketen deskribapena.

d) Zuzenketa fakturen kasuan, hala identifikatu beharko dira, eta zuzendutako fakturaren erreferentzia jasoko dute edo, behar denean, zuzentzen diren xehetasunak.

e) Lehenago emandako faktura erraztuen ordez edo trukean ematen diren fakturen kasuan, ordeztu edo trukatu den fakturaren erreferentzia jasoko da, edo, behar denean, ordeztu edo trukatu diren zehaztasunak.

f) Araudi honen 51 quater artikuluan eta 61 quinquies artikuluaren 2. atalean aipatzen diren aipamenak, eta maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak onartutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 6. artikuluaren 1. atalaren j) eta l) eta p) letrak.

g) Emandako fakturetan erregistratutako eragiketen likidazio aldia.

h) Behar denean, eragiketa balio erantsiaren gaineko zergaren mende ez dagoela adieraztea.

i) Faktura fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartua) arautzen den fakturazio arloko baimen bati jarraiki egin bada, emandako baimenaren erreferentzia jasoko da.

j) Erabilitako ondasunen, arte objektuen, antigoaleko objektuen eta bilduma objektuen arau-
bide berezia aplikatzekoa den eragiketetan, eragiketaren guztirako zenbatekoa jasoko da.

k) Bidaia agentzien araubide berezia aplikatzekoa den eragiketetan, eragiketaren guztirako zenbatekoa jasoko da.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu bidez xedatu ahalko du ezen, aurreko datuekin batera, zerga aldetik garrantzia daukaten gainerako guztiak ere adierazi beharko direla, hain zuzen ere Diputatuen Kontseiluarenmartxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuaren 3. artikulutik 5. artikulura bitartean (biak barne) aipatzen direnak (21/2009 Foru Dekretua, martxoaren 3koa, hirugarren pertsonekiko eragiketei buruzko informazioa emateko betebeharra arautzen duena).

**4.** (43) (44) Aurreko zenbakian adierazitako fakturak banan-banan idazteko betebeharraren ordez laburpen idazpenak egin ahal izango dira. Horietan, honako hauek idatziko dira: faktura noiz jaulki den (data edo aldia), zerga oinarria, zerga tasa bakoitzari dagokion guztirakoa, zerga tasak, data berean jaulki eta hurrenez hurren zenbakitutako fakturen kuota guztira eta fakturen hasierako eta bukaerako zenbakiak, eta ea kutxa irizpidearen araubide bereziarekin bat etorrita egin den eragiketa; kasu horretan, arautegi honetako 61 decies artikuluko 1. zenbakian adierazitakoak idatzi beharko dira. Hori guztia baldin eta aldi berean baldintza hauek betetzen badira:

a) Jaulkitako fakturetan ez izatea aginduzkoa hartzailea identifikatzea, 18/2013 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz (18/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 28koa, fakturazio betebeharrak arautzen dituena).

b) Eragiketa dokumentatuen sortzapena hil berean gertatu izana.

Baliozkoa izango da, era berean, faktura baten idatzoharra segidako hainbat idazpenetan egitea, zerga tasa ezberdinen arabera tributatzen duten eragiketak jasotzen baditu hark.

**5.** (36)

**6.** (41) Halaber, fakturazioko betebeharren arautegiak, maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 15. artikuluan aipatzen dituen faktura zuzentzaileen idaztoharrak bereizita egingo dira, eta, era berean, datu hauek idatziko dira: zenbakia, noiz egin den (data), hornitzailea identifikatzeko datuak, zerga oinarria, zerga tasa eta kuota.

**64. artikulua.- (21) Jasotako fakturen erregistro liburua.**

**1.** (36) Enpresarioek edo profesionalek korrelatiboki zenbakitu beharko dituzte beren enpresa edo lanbide jardueretan eskuraturiko edo inportaturiko ondasunei edo jasotako zerbitzuei dagozkien fakturak, kontularitzako agiriak eta aduanako agiriak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako. Serie bereizien bidez zenbakitu ahal izango dira, baldin eta horrela egitea justifikatzen duten arrazoi objektiboak badaude.

**2.** (36) Jasotako fakturen erregistro liburuan egingo dira aurreko idatz zatian aipaturiko agirien idazpenak.

Bereziki, enpresarioek edo profesionalek Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan egindako eta zergari lotutako ondasun erosketak sortzen dituzten entregatze fakturak idatziko dira.

Era berean, fakturak ere jasoko dira edo Zerga Arauaren 97. artikuluaren 1. paragrafoaren 4. puntuan aipatzen diren kontularitzako frogagiriak.

**3.** (43) Onargarria izango da, hala ere, idazpenak egitea, edozein prozedura egoki erabiliz, orri solteetan. Gerora, orri horiek korrelatiboki zenbakitu eta koadernatu beharko dira, artikulu honetan araututako erregistro liburua osatzeko.

Hala ere, araudi honen 62.6 artikuluak aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, jasotako fakturen erregistro liburu hori Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eguneratu beharko da, fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz.

**4.** (43) (44) Jasotako fakturen erregistro liburuan banan-banan idatziko dira jasotako fakturak eta, behar izanez gero, aduanetako agiriak eta arestian aipatutakoak. Horiez gain, honako hauek ere idatziko dira: jasotze zenbakia, jaulkitze data, eragiketak noiz egin diren, eta, jaulkitze dataz bestekoa bada eta hala ageri bada jasota agiri horretan, jaulkitzeko obligazioa duenaren izen-deiturak, sozietate izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga oinarria (zergaren arauaren 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoaren arabera determinatua) eta, hala balegokio, zerga tasa, zerga kuota, eta ea eragiketa kutxa irizpidearen araubide bereziaren pekoa den edo ez, eta, hala bada, araudi honetako 61. decies artikuluaren 2. zenbakian aipatzen diren aipamenak ere bai.

Artikulu honen 2. zenbakiko bigarren paragrafoan adierazitako fakturei dagokienez, haietan dokumentatu diren entregen ondorioz gertatzen diren Europar Batasunaren barneko

eskuraketei dagozkien zerga kuotak birkalkulatu egin beharko dira eta faktura horiei dagokien idatzoharrean idatzi.
Era berean, fakturei edo artikulu honen 2. zenbakiaren hirugarren paragrafoan aipatzen diren kontabilitate frogagiriei dagokienez, faktura edo kontabilitate frogagiri horien idatzoharra egitean kalkulatu eta idatziko dira berorietan jasotako ondasun emate edo zerbitzu eskaintzei dagozkien zerga kuotak.

Araudi honen 62.6 artikuluak aipatutako entitate eta pertsonen kasuan, honako informazio hau ere jaso beharko da:

a) Zenbakia eta, hala badagokio, seriea, fakturan ageri direnak; hain zuzen, araudi honen 62.6 artikuluan aipatzen ez direnek erabiltzen duten jasotze zenbakiaren ordez erabiltzen da seriea.

b) Adieraztea ea araudi honen 70. artikuluan aipatzen den erregistro zuzenketa bat den.

c) Eragiketen deskribapena.

d) Araudi honen 61 quinquies artikuluko 2. zenbakian egiten diren aipamenak, eta 18/2013 Foru Dekretuko 6. artikuluko 1. zenbakiko l) eta p) letra artekoetan egiten direnak (18/2013 Foru Dekretua, fakturazio betebeharrak arautzen dituena), eta ea Europar Batasunaren barneko eskuratze bat den.

e) Idatzoharra egiten den likidazio aldiari dagokion zerga kuota kengarria. Kengarriaren erregularizazioa, hala badagokio, Zergaren Arauaren 105. Lau, 109, 110, 111 eta 112 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da, dagokion gisan; horrek ez du eragingo erregistratutako kuota kengarria aldatu beharra.

f) Jasotako fakturetan erregistratutako eragiketen likidazio aldia.

g) Erabilitako ondasunen, arte objektuen, antigoaleko objektuen eta bilduma objektuen araubide berezia aplikatzekoa den eragiketetan, eragiketaren guztirako zenbatekoa jasoko da.

h) Eragiketei bidaia agentzien araubide berezia aplikatu behar zaienean, eragiketaren guztirako zenbatekoa jaso beharko da.

Inportazio eragiketen kasuan, eragiketaren kontabilizazio data jaso beharko da, bai eta aduana agiriari dagokion zenbakia ere.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak, foru agindu bidez, xedatu ahal izango du ezen aurrekoarekin batera beste informazio batzuk ere jaso daitezela, zergetarako axolazkoak direnak, martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuaren 3. artikulutik 5.era artekoetan aipatzen direnak (21/2009 Foru Dekretua, martxoaren 3koa, hirugarren pertsonekiko eragiketen informazioa emateko betebeharra arautzen duena).

**5.** (43) Egun berean jasotzen diren faktura guztiak laburpen idazpen orokor batera bildu daitezke, datu hauek adierazita: hornitzaile berak emanik jasotako fakturen lehen eta azken zenbakiak, hartzaileak jarriak; zerga oinarriaren guztirako zenbatekoa, zerga tasa bakoitzari dagokiona, eta zerga kuota osoa, eta kutxa irizpidearen araubide bereziarekin bat etorrita egin bada eragiketa (halakoetan, arautegi honetako 61 decies artikuluko 2.

paragrafoan adierazitakoak idatzi beharko dira), baldin eta eragiketa guztien batura, balio erantsiaren gaineko zergarik gabe, 6.000 euro baino gehiago ez bada eta haietako bakoitzean dokumentatutako eragiketen zenbatekoa 500 euro baino gehiago ez bada, balio erantsiaren gaineko zergarik gabe.

Baliozkoa izango da, era berean, faktura baten idatzoharra segidako hainbat idazpenetan egitea, zerga tasa ezberdinen arabera tributatzen duten eragiketak jasotzen baditu hark.

**65. artikulua.- Inbertsio ondasunen Erregistro Liburua.**

**1.** Subjektu pasiboek, Zergaren Arauaren 107-110 artikuluetan agindutakoaren arabera, inbertsio ondasunengatik egiten diren kenketen erregularizazioa egin behar badute, inbertsio ondasunen Erregistro Liburu bat eduki beharko dute, eta Araudi honetako 68. artikuluko betekizun formalei lotuko zaie.

**2.** Liburu horretan subjektu pasiboek eskuratu eta inbertsiotzat jotzen diren ondasunak erregistratuko dira behar bezala bereizirik. Inbertsiotzat jotzen diren ondasunak Zergaren Arauaren 108. artikuluan aipatzen dira.

**3.** Subjektu pasiboek, era berean, eskualdatu diren inbertsio ondasunetako bakoitzari dagozkion faktura eta aduana agiriak zehatz-mehatz identifikatzeko behar diren xehetasunak jarriko dituzte Erregistro Liburuan.

**4.** Ondasunak banan-banan hartu eta bakoitza noiz hasi zen erabiltzen, behin-betiko hainbanaketa urtekoa zein duen eta, hala behar bada, bere kenketen urteko erregularizazioa zein den ere anotatuko da.

**5.** Inbertsio ondasunen emateak erregularizazio aldian egiten direnean, eman diren inbertsio ondasunei baja emango zaie Erregistro Liburuan, bai egindako fakturen Erregistro Liburuan emate hori jasotzen duen idazpenaren erreferentzia, bai emate horregatik egiten den kenketaren erregularizazioa bertan anotatuz, Zergaren Arauaren 110. artikuluan aipatzen den prozeduraren bidez.

**6.** (43) Idazpenak edo anotazioak edozein prozedura egokiz orri berezietan egiteak balio izango du, gero zenbakiak jarri eta ondo ordenaturik azaleztatzen badira artikulu honetan arautzen den liburua haiekin osatzeko.

Araudi honen 62.6 artikuluak aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, erregistro liburu hori Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez eguneratu beharko da, fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz; erregistro guztiak urte natural bakoitzeko azken likidazio aldiari dagokion aurkezpen epearen barruan igorri beharko dira.

**66. artikulua.- Elkarte barruko zenbait eragiketaren Erregistro Liburua.**

**1.** (34) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek erregistro liburu bat eraman beharko dute Batasunaren barneko eragiketa batzuei buruz. Erregistro liburu horretan honako hauek jasoko dira:

1. Ondasunak igorri edo jaso izana Zergari buruzko Arauko 70. artikuluko lehenengo idatz zatiko 7. zenbakiko b) letran adierazitako peritu txostenak edo lanak egiteko.

2. Zergari buruzko Arauko 9. artikuluko 3. zenbakian eta 16. artikuluko 2. zenbakian jasotako ondasun transferentziak eta Batasunaren barruko ondasun eskuratzeak. Bi kasuetan 9. artikuluko 3. zenbakiko e), f) eta g) paragrafoetako salbuespenetan sartzen direnak ere jasoko dira.

3. (46) Kontsignako ondasun salmentari buruzko akordio batean (zergaren araudiaren 9 bis artikuluan aipatzen da) jasota dauden ondasunak bidaltzea edo jasotzea.

**2.** (46) Aipatu den Erregistro Liburuan honako datu hauek jasoko dira:

A) Aurreko apartatuaren 1 eta 2 zenbakietan aipatutako eragiketei dagokienez:

1. Eragiketa eta data.

2. Eragiketaren xede diren ondasunen deskribapena, hala dagokionean erosketaren faktura edo jabetza titulua adierazita.

3. Dena delako eragiketari buruzko beste faktura edo agiri batzuk.

4. Hartzailearen edo igorlearen identifikazioa, balio erantsiaren gaineko zergarako identifikazio zenbakia, sozietatearen izena eta helbidea adierazita.

5. Ondasunen jatorriko edo xedeko estatu kidea.

6. Aipatutako eragiketak egiteko zehaztu den epea, hala dagokionean.

B) (47) Aurreko apartatuaren 3 zenbakian aipatutako eragiketei dagokienez:

a) Saltzaileak honako datuak adieraziko ditu:

1. Zein estatu kidetatik igorri edo garraiatu diren ondasunak eta noiz (data).

2. Ondasunen xede den enpresaburuaren edo profesionalaren balio erantsiaren gaineko zergarako identifikazio zenbakia, ondasunak igorri edo garraiatuko diren estatu kideak emana.

3. Ondasunak zer estatu kidetara igortzen edo garraiatzen diren, ondasunen gordailuzainaren identifikazio zenbakia balio erantsiaren gaineko zergarako, gordailuzain hori eta aurreko 2 zenbakian aipatutako enpresaburu edo profesionala ez denean pertsona bera, ondasunak heldutakoan gordeta egongo diren biltegiaren helbidea eta ondasun horiek biltegira noiz (data) heldu ziren.

4. Biltegira heldu diren ondasunen balioa, deskribapena eta kopurua.

5. Hasiera batean ondasunen hartzailea zen enpresaburua edo profesionala ordezkatzen duen enpresaburuaren edo profesionalaren (zergaren arauaren 9 bis artikuluan, hirugarren apartatuan, bigarren paragrafoan, a’) letran aipatzen da) identifikazio zenbakia,

bai eta ordezkapena izango den data ere, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

6. Zergaren arauaren 9 bis artikuluaren bi apartatuaren lehen gidoian adierazitako egoeretan emandako ondasunen deskribapena, zergaren arauaren 78. eta 79. artikuluei jarraituz zehaztutako zerga oinarria, kopurua eta unitateko prezioa, noiz eman zen (data) eta enpresaburu edo profesional eroslearen identifikazio zenbakia balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

7. Zergaren arauaren 9 bis artikuluaren hiru apartatuaren lehen paragrafoan adierazitako egoeretan eskualdatutako ondasunen deskribapena, zergaren arauaren 78. eta 79. artikuluei jarraituz zehaztutako zerga oinarria, kopurua eta unitateko prezioa, ondasunak eskualdatzea eragin zuten egoeren data eta zergatik egin zen eskualdaketa.

8. Zergaren arauaren 9 bis artikuluaren hiru apartatuaren bigarren paragrafoaren b') letran adierazitako egoeretan itzulitako ondasunen deskribapena, kopurua eta balioa, bai eta noiz (data) itzuli zen ere.

b) Honako datuak emango dituzte ondasunen xede diren enpresaburuak edo profesionalak eta hura ordezkatzen dutenek:

1. Kontsigna bidezko ondasun salmentari buruzko akordio baten baitan ondasunak eskualdatzen dituen saltzailearen identifikazio zenbakia balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

2. Haren eskuragai jarri ahal izateko igorri diren ondasunen deskribapena eta kopurua.

3. Haren eskuragai jarri ahal izateko igorri diren ondasunak biltegira noiz heldu ziren (data).

4. Eskuratutako ondasunen deskribapena, zergaren arauaren 78. eta 79. artikuluei jarraituz zehaztutako zerga oinarria, kopurua eta unitateko prezioa, bai eta zergaren arauaren 9 bis artikuluaren bi apartatuaren bigarren gidoian aurreikusita dagoen Europako Batasunaren barruko ondasun eskuraketaren data.

5. Saltzaileak biltegitik atera dituen eta jadanik bereak ez diren ondasunen deskribapena eta kopurua, bai eta biltegitik noiz (data) atera diren.

6. Suntsitu edo desagerrarazi diren biltegiko ondasunen deskribapena, kopurua eta balioa, eta ondasun horiek noiz (data) suntsitu, galdu edo lapurtu diren edo horren berri noiz (data) izan den.

Dena den, enpresaburu edo profesionalak aurreko 1, 2 eta 4 zenbakietan aipatutako datuak baino ez ditu jasoko, ondasun horiek beste enpresaburu edo profesional bati igorri edo garraiatzen zaizkionean gordailuan izan ditzan.

**3.** (43) (46) Arautegi honen 62.6 artikuluak aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, erregistro liburu hori Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eguneratu beharko da, bertan jaso beharreko eragiketa bakoitzaren xehetasunen informazioa elektronikoki emanez.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak erregistro horien identifikazioa zehaztuko du foru agindu bidez.

**67. artikulua.- Erregistro agirien edukina.**

Erregistro Liburuek honako datuen berri eman beharko dute zehaztasunez:

**1.** Subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta bere bezeroei eragin dien zenbateko osoa.

**2.** (43) Subjektu pasiboak eskuratu edo inportatu dituen ondasunengatik, jaso dituen zerbitzuengatik edo, halakorik denean, egiten dituen autokontsumoengatik jasan beharreko zergaren zenbateko osoa eta zerga kuota kengarria.

**3.** Elkarte barruko zenbait eragiketen Erregistro Liburuan agertzen diren eragiketei dagokienez, bertan aipatzen diren ondasunen egoera, elkarte barruko emate edo eskuraketen zortzapena egiten ez den bitartean.

**68. artikulua.- (21) Baldintza formalak.**

**1.** Arautegi honetan aipatutako erregistro liburu guztiak, erabiltzen den prozedura edozein dela ere, argitasunez eta zehaztasunez idatzi beharko dira, egunen arabera ordenatuta, zuriunerik gabe eta tartekatzerik, karrakatzerik eta zirriborratzerik gabe. Erregistro idazpenetan aurkitzen diren akats edo hutsegite guztiak jarraian konpondu behar dira, haietaz ohartu eta berehala.

Erregistro idazpenak zenbatekoak eurotan adieraziz idatzi behar dira. Faktura euroa ez den kontu unitate batean edo dibisa batean egin bada, eurotara bihurtu beharko da erregistro liburuetan adierazteko.

**2.** Aurreko idatz zatian adierazita dauden baldintzek inbertsio ondasunen erregistro liburuko zuriuneei ez dietela eragiten ulertuko da, zuriune horiek behin betiko prorrataren kalkuluak eta doikuntzak egiteko baitira.

**3.** Erregistro liburuen orrialdeek korrelatiboki zenbakituta egon beharko dute.

**4.** (43) Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikagarria izango araudi honen 62.6 artikuluak aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, zenbatekoak eurotan adierazteko betebeharra salbu.

**68 bis artikulua.- (43) Erregistro liburuak elektronikoki eguneratzeko aukera.**

(45) Arautegi honetako 62.6 artikuluan aipatzen den hautapena ekitaldi osoan egin ahal izango da, zentsu aitorpen egokia aurkeztuz; hautapenak ondoko ekitaldiko lehen likidazioaldian sortuko ditu ondorioak.

Aukera hurrengo urteetarako luzatu dela ulertuko da, horri uko egiten ez bazaio.

Erregistro liburuak eguneratzeko sistema hau hautatzen dutenek gutxienez hautapena aurkezten den urte natural osoko fakturazio erregistroak aurkeztu beharko dituzte.

Aukera horri uko egin nahi izanez gero, jakinarazi egin beharko zaio Zerga Administrazioko organo eskumendunari ondorioak izan behar dituen urte naturala hasi aurreko azaroan, zentsu aitorpena aurkeztuta.

Araudi honetako 30.5 artikuluan ezarritakoa aplikatuz hileko itzulketa erregistrotik kanpo geratutako subjektu pasiboak, halaber, Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez erregistro liburuak eguneratu beharretik salbuetsita egongo dira, kanpo geratu izanari buruzko erabakia jakinarazi den likidazio aldiko lehen egunetik ondorioak izanik.

Zergaren arauko 163 septies artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, entitateen taldearen araubide bereziaren aplikazioa bertan behera uzteak zehaztuko du une horretatik erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez eguneratu beharra ere bertan behera uzten dela.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritakoa ez da aplikatuko araudi honen 71.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz hileko likidazio aldia daukaten profesional edo enpresaburuak direnean.

**68 ter artikulua. (45) Erregistro liburuak baliabide elektronikoez baliatuz arteztu aurreko aldiko informazioa.**

**1.** Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezten urte naturaleko lehen egunetik ez beste egun batetik aurrera hasi diren subjektu pasiboek urte natural horretako aurreko aldiko fakturazio erregistroak bidali beharko dituzte. Erregistro horietan aldi horretan egindako eragiketei buruzko informazioa adierazi beharko da, hau da, arautegi honetako 63.3, 64.4 eta 66.3 artikuluen arabera 62.6 artikuluan aipatzen diren pertsonek eta entitateek balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuetan idatzohartu behar dituzten eragiketei buruzko informazioa.

Informazioa ematearekin batera zehaztu beharko da eragiketak balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez arteztu beharra ezarri aurreko aldikoak direla, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak agindu batean ezartzen dituen zehaztapen teknikoekin, prozedurarekin, formatuarekin eta diseinuarekin bat etorriz (arautegi honetako 63. eta 64. artikuluak).

Aldi horretako fakturazio erregistroak bidaltzeko epealdia erregistro liburuak horrela arteztu beharra ezartzen denetik ekitaldiko abenduaren 31ra artekoa izango da.

**2.** Inbertsio ondasunen erregistro liburuan (arautegi honetako 65. artikulua) ekitaldi osoko ida idatzoharrak agertu behar dira.

**3.** Zergetan eragina duen informazioa (arautegi honetako 63.3 eta 64.4 artikuluetan aipatzen dena) ematen denean, ekitaldi osoko eragiketak xehatu behar dira.

**69. artikulua.- (21) Erregistro idazpenetarako epeak.**

**1.** Erregistro idazpenean adierazi beharreko eragiketek dagokien Zerga likidatu eta ordaintzen den momentuan egon behar dute idatzita beren erregistro liburuetan, edo, nolanahi ere, borondatezko aldian likidatzeko eta ordaintzeko legezko epea bukatu baino lehen.

**2.** (41) Hala ere, subjektu pasiboak fakturarik gabe egindako eragiketak zazpi egunen epean idatzi beharko dira, eragiketak edo agiriak egin diren unetik hasita, baldin eta epe hori aurreko idatz zatian aipatutakoa baino laburragoa bada.

**3.** Jasotako fakturen idazpenak jasotzen diren ordenan egin behar dira dagokien erregistro liburuan, eta haien kenkaria egitea egoki den likidazioaldiaren barruan.

**4.** 66.1 artikuluan aipatutako eragiketak zazpi eguneko epean jaso beharko dira, dagozkien ondasunak igortzen edo garraiatzen hasten den unetik hasita.

**5.** (41) Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri zaien eragiketak, zeinei buruz idaztoharra egin behar den, erregistro liburu orokorretan idatzita egon beharko dira, aurreko paragrafoetan ezarritako epeetan, eragiketa horiei aipatutako araubide berezia aplikatu ez balitzaie bezala, alde batera utzita eragiketak osorik edo zati bat kobratzean edo ordaintzean idatzi beharko diren datuak.

**69 bis artikulua.- (43) (44) Fakturazio erregistroak elektronikoki igortzeko aldiak.**

**1.** Araudi honen 62.6 artikuluan aipatzen diren pertsonen eta entitateen kasuan, fakturazio erregistroak honako epe hauetan egin beharko dira:

a) (50) Emandako fakturei buruzko informazioa lau eguneko epealdian eman beharko da, faktura egiten denetik hasita, salbu eta hartzaileak edo hirugarren batek zergaren arauko 164.bi artikuluan xedatutakoaren arabera jaulkitako fakturen kasuan; orduan, epealdi hori zortzi egunekoa izango da. Kasu batean nahiz bestean, erregistratu beharreko eragiketari dagokion zerga sortuko litzatekeen hila amaitu eta hurrengoaren 16a baino lehen eman beharko da informazio hori. Hala ere, faktura egin beharra ekarriko lukeen zergaren pean ez dauden eragiketak izanez gero, azken epealdi hori eragiketa egin den data hartutzaterreferentziatzat determinatuko da.

Faktura zuzentzailea egitea bidezkoa ez den kasuetan eta egindako fakturen erregistro liburuan idatzi behar direnean bidaia agentzien araubide bereziari edo ondasun erabilien, arte objektuen, zaharkinen eta bildumako objektuen araubide bereziari atxikitako eragiketetan hasieran kalkulatutako zerga oinarriaren eta kuotaren erregularizazioak edo doikuntzak, deskontuen edo eragiketaren sortzapenaren ondorengo beste inguruabar batzuen ondoriozkoak, erregularizazio edo doikuntza horiek hauteman eta hurrengo hilaren 16a baino lehen erregistratu beharko dira.

b) Jasotako fakturei dagokien informazioa, lau eguneko epean, fakturaren kontabilitate erregistroa egiten denetik hasita, eta, beti ere, dagozkion eragiketak sartu direneko likidazio epea amaitu eta hurrengo hilaren 16. baino lehenago.

Inportazio eragiketen kasuan, lau egun horiek kontatu beharko dira aduanek likidatutako kuota jasotzen deneko agiriaren kontabilitate erregistroa sortzen denetik, eta, betiere, inportazioak sartu direneko aitorpenari dagokion epea amaitu eta hurrengo hilaren 16.a baino lehenago.

c) (47) Erregelamendu honen 66.1 artikuluaren 1. eta 2. zenbakian aipatzen diren eragiketen informazioa, lau eguneko epean, bidaia edo garraioa hasten denetik hasita, edo, hala balegokio, dagozkion ondasunak jasotzen direnetik hasita.

Erregelamendu honetako 66.1 artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren eragiketei buruzko informazioa, ondasunak biltegira iritsi, eskuratzailearen esku utzi edo erregistratu beharreko eragiketaren hurrengo hilaren 16a baino lehen.

d) Jaulkitako eta jasotako zuzenketa fakturei dagokien informazioa, lau eguneko epean, dagokion faktura jaulkitzen edo erregistratzen denetik hasita, hurrenez hurren.

Hala ere, zuzenketak baldin badakar zergaren arauaren 114. artikuluaren bigarren zenbakiaren 1. puntuan xedatutakoaren arabera hasiera batean kenkari gisa aplikatutako zenbatekoak handitzea, epea izango da jasotako fakturetarako aurreko b) letran ezarritakoa.

Aurreko a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren lau edo zortzi eguneko epeak kontatzeko, kanpoan utziko dira egun baliogabeak.

**2.** Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzekoa zaien eragiketei dagokien informazioa ematea, berriz, aurreko zenbakian ezarritako epeetan gauzatu beharko da, eragiketa horiei araubide berezi hori aplikatzea ez balegokie bezala, hargatik eragotzi gabe eragiketen ordainketa oso edo partezkoek egitean eman beharreko datuak.

Kobrantzei eta ordainketei dagokien informazioa, berriz, dagokion kobrantza edo ordainketa egiten denetik hasi eta lau eguneko epean eman beharko da.

**3.** Araudi honen 70. artikuluan aipatzen diren erregistro zuzenketen kasuan, zuzenketa horiek jasotzen dituzten fakturazio erregistroak eman beharko dira zergapekoak berak egin duen akatsaren berri izan dueneko aldia amaitu eta hurrengo hilaren 16.a baino lehenago.

**70. artikulua.- (43) Erregistroko idazpenak zuzentzea.**

**1.** (44) Enpresariek edo profesionalek akats materialen bat egiten dutenean aurreko artikuluetan aipatzen diren erregistro idazpenak egitean, haietaz jabetu bezain laster zuzendu beharko dituzte. Zuzenketa hori egiteko, idatzohar bat edo idatzohar multzo bat egin beharko da, hartara determinatu ahal izateko likidazio aldi bakoitzerako zer zerga sortu eta jasanarazi den, behin zuzenketa hori eginik.

Aurreko hori araudi honen 62.6 artikuluan aipatzen diren pertsona eta entitateei aplikatuko zaie, araudi honen 69. bis artikuluaren 3. atalean ezarritakoaren arabera.

**2.** Horrela, sortutako zerga eta jasandakoa ezarri ahal izango dira likidazio epealdi bakoitzerako, zuzenketa egin ondoren. Inbertsio ondasunen kasuan, zuzenketak inbertsio ondasunen erregistroko liburuan jasoko dira, dagokin ondasunaren idazpenaren ondoan, eskuratu beharreko kenkariak erregularizatzeari dagokionez; zuzenketa gisa identifikatu beharko da.

## X. TITULUA
## ZERGAREN KUDEAKETA

### I. KAPITULUA
### LIKIDAZIOA ETA ZERGABILKETA

**71. artikulua.- (18) Zergaren likidazioa. Arau orokorrak.**

**1.** (20) Inportazioei dagokienez ezarritakoa salbu, subjektu pasiboek beren kabuz zehaztu beharko dute zerga zorra, hurrengo paragrafoetan ematen diren arauei lotutako aitorpen-likidazioen bidez.

Enpresaburu eta profesionalek artikulu honetako 3 eta 4. paragrafoetan aipatutako aldian-aldiko aitorpen-likidazioak aurkeztu beharko dituzte, bai eta 6. paragrafoan aurreikusitako urteko aitorpen laburpena ere, nahiz eta sortutako kuotarik edo jasandako edo ordaindutako kuoten kenketarik ez egon.

Zergaren Arauaren 20 eta 26. artikuluetan jasotzen diren eragiketa salbuetsiak baino egiten ez dituzten subjektu pasiboek ez dute izango aurreko lerroaldeetan ezarritako betebeharra.

**2.** Aitorpen-likidazioak Arabako Foru Aldundian aurkeztuko dira zuzenean, edo entitate laguntzaileen bidez, zehazten diren kasuetan.

**3.** (27) Likidazio aldia eta hiruhileko naturala bat etorriko dira.

Dena den, likidazio aldi hori hil naturalarekin bat etorriko da, ondoko enpresaburuei eta profesionalei dagokienean:

1. Zergaren Arauaren 121. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatutako eragiketa bolumena, aurreko urtekoa, 6.010.121,04 eurokoa baino gehiagokoa dutenei.

2. Zergaren Arauaren 121. artikuluaren 1. paragrafoaren bigarren lerroaldean adierazitako enpresaburuen eta profesionalen ondarearen zatia edo guztia erosi dutenei, baldin eta aurreko urteko eragiketen bolumena gehi ondare horren saltzaileak aldikada berean egindako eragiketen bolumena guztira 6.010.121,04 euro baino gehiago bada.

Puntu horretan xedatutakoa aipatutako eskualdaketa gertatzen denetik aurrera aplikatu ahal izango da, eta likidazio aldia bukatzen den egunaren hurrengotik aurrera izango ditu ondorioak.

(45) Zergaren Arauko 121. artikuluko idatz zatiko bigarren paragrafoan xedatzen denari dagokionez, enpresaburu edo profesional baten ondarea (osorik edo zati bat) eskualdatzea izango da eskuadatzailearen jardueraren adar bat edo batzukeratzen duen ondarea eskualdatzea (37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, sozietateen gaineko zergarena; 101,4 artikulua), eskualdaketa Zergaren Arauak 7. artikuluko 1. zenbakian ezartzen duenaren arabera kargapean egon zein ez egon.

3. Arautegi honen 30. artikuluan jasotakoak, likidazio aldia bukatzen denean, dagoen saldoa itzultzeko eska dezaketenak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu ahal izango da, nahiz eta subjektu pasiboei kuotarik itzuli behar ez izan.

4. Entitate taldeen araubide berezia, Zergaren Arauaren IX. tituluaren IX. kapituluan araututakoa, aplikatzen dutenak.

5. (43) (44) Ezabatuta.

**4.** (49) Aitorpen likidazioa Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak kasu bakoitzerako zehazten duen eredura egokitu eta bete beharko da, eta dagokion hileko edo hiruhilekoko likidazio aldiaren ondorengo hilaren lehenengo hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu beharko da, dagokionaren arabera.

Aitzitik, ondoren adierazten diren aitorpen likidazioak honako epe berezi hauetan aurkeztu beharko dira:

1. Uztaileko likidazio aldiari dagokiona, hurrengo abuztuan eta irailaren lehenengo hamar egun naturaletan.

2. Urteko azken aldiari dagokiona, urtero urtarrilean.

Apartatu honetako aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak, arrazoi tekniko oinarridunak kontuan hartuta, bide telematikoz aurkez daitezkeen aitorpenen epea luzatu ahal izango du.

**5.** (41) Subjektu pasiboari konkurtso adierazpena egin bazaio, bi aitorpen-likidazio aurkeztu beharko ditu, aurreko idatz zatian adierazitako epeetan, konkurtsoaren adierazpena egin den likidazioaldiagatik, dela hiru hilekoa dela hilekoa: batean konkurtsoaren adierazpena egin aurreko zerga gaiak jasoko ditu eta bestean, berriz, adierazpena egin ondorengo zerga gaiak.

Kasu honetan, konkurtso adierazpena egin aurreko zerga gaiei buruzko aitorpen-likidazioak subjektu pasiboaren onerako saldoa duenean, konkurtso adierazpenaren ondorengo zerga gaiei buruzko aitorpen-likidazioan konpentsatu ahalko da saldo hori.

Subjektu pasiboak ez badu aukeratzen aurreko lerroaldean aipatutako konpentsazioa, konkurtso adierazpena egin aurreko zerga gaiei buruzko aitorpen-likidazioan azaltzen den

haren onerako saldoak konpentsazioari eta itzultzea eskatzeko eskubideari buruzko arau orokorrak bete beharko ditu. Subjektu pasiboak konpentsazio hori aukeratzen badu, konkurtso adierazpenaren ondorengo zerga gaiei buruzko aitorpen-likidazioan azaltzen den haren onerako saldoak, aipatutako konpentsazioa gauzatu eta gero, konpentsazioari eta itzultzea eskatzeko eskubideari buruzko arau orokorrak bete beharko ditu.

**6.** (41) Enpresaburu edo profesional bakoitzak aitorpen-likidaziobakarra aurkeztuko du, aurreko idatz zatian adierazitako salbuespena kontuan hartuta, zergan ezarritako araubide berezien ezaugarriak direla-eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen duena eta arautegi honetako bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa gorabehera.

Hala ere, zerga administrazioak baimena eman dezake hainbat subjektu pasibori dagozkion aitorpen-likidazioak agiri bakar batean batera aurkezteko, baimen bakoitzean ezartzen diren kasuetan eta betebeharrekin.
Emandako baimenak edozein unetan ezeztatu ahalko dira.

**7.** (41) Artikulu honetako 4. eta 5. idatz zatietan aipatutako aitorpen-likidazioez gain, subjektu pasiboek urteko aitorpen-laburpen bat egin beharko dute, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak kasu bakoitzerako ezartzen dituen leku, era, epe eta inprimakietan.

Aitorpen-likidazio bateratuetan sartutako subjektu pasiboek ere egin beharko dute urteko aitorpen-laburpen hori, aurreko lerroaldean ezarritako leku, era, epe eta inprimakietan.

Zergaren arauaren 20. eta 26. artikuluetan aipatzen diren eragiketa salbuetsiak soilik egiten dituzten subjektu pasiboek ez dute aurkeztu beharrik idatz zati honetan ezarritako urteko aitorpen-likidazioa.

**8.** (41) Honakoek aitorpen-likidazio berezia aurkeztu beharko dute, aldizkakoa ez dena, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarritako leku, era, epe eta inprimakietan:

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren arauaren 5. artikuluko Bat idatz zatiko e) letran aipatutako pertsonak, beste estatu kide baterako garraiobide berriak entregatzeagatik.

2. Zergaren menpeko garraiobide berriak Europar Batasunaren barruan eskuratzen dituztenak, zergaren arauaren 13. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoarekin bat.

3. Enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoek, garraiobide berriak ez beste ondasunekin Europar Batasunaren barruko eskuraketak, zergaren kargapekoak, egiten dituztenean, baieta zergaren arauaren 5. artikuluko laugarren idatz zatian xedatutakoaren arabera enpresaburutzat edo profesionaltzat jotzen direnean ere.

4. Kenkari eskubiderik ez duten eragiketak bakarrik burutzen dituzten subjektu pasiboak edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezia edo baliokidetza errekarguaren erregimen berezia ezartzen zaizkien jarduerak burutzen dituztenak, zergaren menpeko ondasunak Europar Batasunaren barruan eskuratzen badituzte

edo zergaren arauaren 84. artikuluko Bat idatz zatiko 2. paragrafoan aipatutako eragiketen jasotzaileak badira.

5. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezia ezargarri zaien jarduerak bakarrik egiten dituzten subjektu pasiboak, higiezinekin lotutako inbertsio ondasunen entregak egiten dituztenean, zergaren menpekoak eta salbuespenik gabeak izanik likidazioa egin eta hura ordaindu beharra baitute, zergaren arauaren129. artikuluko Bat idatz zatiko bigarren lerroaldean ezarritakoari jarraituz.

6. (42) Baliokidetza errekarguaren erregimen berezia aplikagarri duten jarduerak baino egiten ez dituzten subjektu pasiboak, baldin eta Ogasun Publikoari eskatu badiote bidaiariei itzultzeko ordaindutako kuotak (zergapean ez dauden ondasun entregenak), zergaren arauaren 21. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoarekin bat etorriz, bai eta zergari lotutako eta zergatik salbuetsi gabeko ondasun higiezinen entrega eragiketak egiten badituzte ere, zergaren arauaren 84. artikuluak (lehenengo paragrafoa, 2. zenbakia, e) letra, hirugarren gidoia) aipatzen dituen eragiketak direnean izan ezik.

7. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez zehazten den beste edozein subjektu pasibo.

**9.** (41) Zerga administrazioa gizartearen laguntzaz baliatu ahalko da aitorpen-likidazioak aurkezteko prozesuan, beste administrazio publiko batzuekin edo gizartearen, langileen, enpresaburuen edo profesionalen sektoreak edo interesak ordezkatzen dituzten entitate, erakunde eta organismoekin hitzarmenak eginez.

Aurreko lerroaldean aipatutako hitzarmenak gai hauei buruzkoak izan daitezke, besteak beste:

1. Informazio eta zabalkunde kanpainak.

2. Aitorpen-likidazioak egiten eta zuzen eta zinez betetzen laguntzea.

3. Aitorpen-likidazioak zerga administrazioari bidaltzea.

4. Akatsak zuzentzea, subjektu pasiboek aldez aurretik baimena emanda.

5. Ofizioz egin beharreko itzulketen izapidetzearen berri ematea, subjektu pasiboek aldez aurretik baimena emanda.

Zerga administrazioak behar den laguntza emango du jarduera horiek gauzatzeko; dena dela, zerbitzu horiek oro har eskainiko dizkie subjektu pasiboei.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez ezarriko da hitzarmen horiek sinatu dituzten entitateek zein kasu eta baldintzatan aurkeztu ahalko dituzten bide telematikoez aitorpen-likidazioak, urteko aitorpen-laburpenak edo zerga araudiak eskatutako beste edozein agiri, hirugarren batzuen izenean.

Agindu horren bitartez, beste pertsona edo erakunde batzuei eman ahal zaie hirugarren pertsona batzuen izenean bide telematikoez aurkezteko sisteman sartzeko aukera.

**72. artikulua.- Zergaren bilketa. Arau orokorrak.**

Aitorpen eta likidazioetatik ateratzen diren kuoten sarrerak eta subjektu pasiboaren aldeko itzulketen eskea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak edo eskumendun agintariak ezartzen dituen inprimakietan, lekuan, moduan eta epeetan egingo dira.

**73. artikulua.- (23) Inportazioetako zergaren likidazioa.**

**1.** Zergaren pean dauden inportazio-eragiketak aduana-zergen eskubideekin batera likidatuko dira, edo horiek likidatu behar ziren epean, salbuetsita edo lotura-eza ez badute, eta beste karga batzuetatik ateratzen den likidazioa kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan sartutakotzat joko dira, eta, beraz, berdin likidatuko dira, 23. artikuluan zehazten diren eremuak uzten dituzten salgaiak, edo 24. artikuluan zehazten diren erregimenetik kanpo daudenak (artikulua biak, Zergaren Arautegikoak), aduanako gordailu-erregimena ez den bidetik entregatuak salbu, baldin eta salgaien inportazioa arautegi horren 18. artikuluaren bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat badator.

**2.** Hori dela eta, inportazio-eragiketak egiten dituzten subjektu pasiboek zerga-aitorpena aurkeztu behar dute aduanan, Ekonomia eta Ogasun ministroak onartutako ereduarekin bat etorriz, eta aduanako arautegian ezarritako epeetan eta eran.

**3.** Inportazioekin parekatutako eragiketen kasuan, subjektu pasiboak egingo du likidazioa aitorpen-likidazioetan, eta hori ere Ekonomia eta Ogasun ministroak horretarako propio ezarritako ereduan.

Inportazioekin parekatutako eragiketengatik egindako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak ereduan bertan kendu ahal izango dira, Zergaren Arautegiak VIII. tituluaren I. kapituluan ezartzen dituen baldintzekin bat etorriz.

Jarraian adierazten dira likidaziorako epeak:

a) Zergaren Arautegiaren 19. artikuluaren 1, 2, 3 eta 4. idatz-zatietan jasotzen diren eragiketak aitorpen-likidazio batean jasoko dira, eta hori zerga administrazioan aurkeztuko da, zuzenean edo erakunde laguntzaileen bitartez. Hona hemen horretarako epeak:

    1. Zergaren Arautegiaren 19. artikuluaren 1, 2 eta 3. idatz-zatietan jasotzen diren eragiketei dagokienean, zerga sortutako urte naturalaren hurrengo urteko urtarrilaren lehenengo 30 egunetan.

    2. Zergaren Arautegiaren 19. artikuluaren 4. idatz-zatian jasotzen diren eragiketei dagokienean, hiruhileko naturaletan sortutakoak badira, foru dekretu honen 71.4 artikuluan ezartzen den epean.

b) Zergaren Arautegiaren 19. artikuluaren 5. idatz-zatian ezartzen diren eragiketen kasuan, hau da, foru dekretu honen 71.3 artikuluan ezarritako likidazio-epean egindakoetan, aitorpen-likidazio batean sartuko dira, eta establezimenduaren, tokiaren, eremuaren edo gordailuaren kontrolerako eskumena duen zerga administrazioan aurkeztu behar da, zuzenean edo erakunde laguntzaileen bitartez, foru dekretu honen 71.4 artikuluak ezartzen duen epean.

c) Aurreko b) paragrafoko eragiketak aitorpen-likidazio bakar batean zentraliza daitezke, eta aipatutako epean aurkeztu zerga administrazioan, zuzenean edo erakunde laguntzaileen bitartez, honako kasu hauetan:

   1. Aurreko urte naturalean egin diren inportazioekin parekatutako eragiketen zerga-oinarrien batuketa 1.500.000 euro baino gutxiago bada.

   2. Zerga administrazioak hala baimentzen duenean, interesdunaren eskariz.

**74. artikulua.- Inportazioei buruzko Zergaren bilketa.**

**1.** (42) (44) (47) Zerga honi dagozkion eta ondasunak inportatzeko eragiketetan aduanek likidatutako zerga kuoten bilketa eta sarrera Zerga bilketako Erregelamendu Orokorrean xedatutakoaren arabera egingo dira.

Hala ere:

a) Aurreko hori gorabehera, inportatzailea enpresari edo profesional bat denean eta hala dihardueneam, eta haren likidazio epea bat datorrenean hil naturalarekin, Erregelamendu honen 71.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, aukeran izango du likidazio hori jasotzen duen agiria jasotzen dueneko epeari dagokion aitorpen likidazioan aduanek likidatutako kuota sartzea, eta, kasu horretan, inportazio eragiketetan likidatutako kuoten ordainketa egiteko epea bat etorriko da araudi honen 72. artikuluan ezarritakoarekin. Osoki Estatuaren Administrazioan tributatzen ez duten subjektu pasiboen kasuan, aduanek likidatutako kuota osorik sartuko da Estatuaren Administrazioari aurkeztutako aitorpen likidazioan. Zergak foru zerga administrazio baten aurrean soilik ordaintzen dituzten subjektu pasiboen kasuan, osorik sartuko da Estatuko Administrazioaren aurrean aurkezten duten aitorpen likidazio batean, agintaritza eskudunak ezarritako eredu, leku, modu eta epeetan.

Aukera hori baliatzeko, errolda aitorpen bat aurkeztu beharko zaio Estatuko Zerga Administrazioaren Agentziari, eragina izaten hasi behar duen urtea hasi aurreko azaroan, eta adituko da handik aurrerako urteetan urtero-urtero luzatzen dela, uko egiten ez zaion artean edo kanpoan geratzen ez den artean.

Aukera hori subjektu pasiboak egiten dituen inportazio guztietarako izango da, aldian aldiko aitorpen likidazioetan sartu beharrekoak badira.

Uko egiteko, Estatuaren Zerga Administrazioaren Agentziaren organo jakinarazi beharko zaio, dagokion errolda aitorpena aurkeztuz, eragina izaten hasi behar duen urtea hasi aurreko azaroan. Uko egiteak hiru urterako izango ditu ondorioak, gutxienez.

Zenbaki honetan aipatzen den aukera baliatu duten subjektu pasiboak aplikaziotik kanpo geratuko dira haien likidazio aldia ez datorrenean bat hilabetearekin.

Kanpo geratze hori eragiten hasiko da hilabeteroko aitorpen likidazioak aurkezteko betebeharra amaitzen den egunean.

b) Zergaren Arauaren IX. tituluko XI. kapituluko 4. atalean aipatzen diren eragiketak egiten dituzten enpresaburuek edo profesionalek atal horretan aurreikusitako araubide berezia aplikatzen ez badute, zerga aplikatzen den lurraldean ondasunak inportatzaileen kontura aduanan aurkezten dituen pertsonak modalitate berezi bat aukeratu ahal izango du dagokion balio erantsiaren gaineko zerga aitortzeko eta ordaintzeko.

Aukera hori egin dela ulertuko da ondasunak aduanan aurkezten dituen pertsonak adierazten duenean modalitate berezia bide telematikoz erabiltzeko asmoa duela aduanan.

Zergaren Arauaren 167 bis artikuluan aurreikusitako modalitate berezi horrek honako hauek eskatzen ditu:

a) Inportatzaileen konturako salgaien aurkezlea dela aduanan egiaztatu izana, aduana araudian aurreikusitako moduan.

b) Batzordearen 2015eko uztailaren 28ko 2015/2446 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 143 bis artikuluan aipatzen diren aduana formalitateen arabera inportatutako merkantzia guztiei buruzko hileko aitorpena aurkeztea, inportatzaileen kontura. Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 952/2013 (EB) Erregelamendua osatzen du, Batasuneko Aduana Kodearen xedapen jakin batzuei buruzko garapen arauekin. Hori hala egingo da, salbu eta biresportazioa frogatzen bada edo suntsitzea edo bertan behera uztea erabaki bada, aduana araudian xedatutako moduan.

c) Modalitate bereziaren arabera aurkeztutako adierazpenean jasotako eragiketen erregistroa eramatea. Horretarako, erregistro horretan, hilabete natural bakoitzeko eta bidalketa bakoitzerako, informazio hau jaso beharko da:

a') aurkeztutako inportazio aitorpenaren identifikazio zenbakia;

b') ondasunak aduanan aurkeztu ziren eguna;

c') biresportazioaren deklarazioaren edo jakinarazpenaren zenbakia, edo, hala badagokio, zerga aplikatzen den lurraldea suntsitzearen edo bertan behera uztearen frogarena, hartzaileak entregatu edo baztertu gabeko ondasunen bidalketen gainekoa;

d') bidalketaren identifikazio zenbakia;

e') salgaia entregatu den lekua eta data, eta salgaia jaso duen pertsonaren identifikazio zenbakia;

f') ondasunen berezko balioa;

g') bildutako zergaren zenbatekoa;

h') zergaren kuotaren diru sarrera jaso duen pertsonaren identifikazioa, inportatzailea ez bada;

i') Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 101. artikuluan aurreikusitako moduan, hartzaileak entregatu edo baztertu gabeko ondasunen bidalketen gaineko zerga ordaindu ez izanaren froga, bakoitzaren berezko balioa barne;

j') inportazio horren ondorioz sortutako kuotak ordaintzeko hileko aitorpenaren zenbakiaren identifikazioa.

Erregistroak bide elektronikoz egon beharko du, aldez aurretik eskatuta, zerga administrazioaren eskura, eta lau urtez mantenduko da, eragiketa egin den urtearen amaieratik aurrera.

**2.** Bidaiari erregimenean, postaletan eta etiketa berdean likidatu diren zorren bilketa eta sarrerak kasuei dagozkien muga zerga likidatuetarako aurrikusitako moduan egingo dira.

**3.** Aduanak nahikoa berme osa dadin eska dezake kanpoko trafikoaren honako eragiketa hauetan:

a) Zergadunak betekizun jakin batzuk betetzea salbuespenak edo hobariak aplikatzeko baldintza duten eragiketetan.

b) Hala egin dadin aholkatzen duten inguruabarrak gertatzen direnean.

Bermearen helburua izango da zergaren ordainketa ziurtatzea, aplikatu den zerga hobariaren baldintza edo betekizunak betetzen ez badira edo eragiketetan gerta daitezkeen inguruabar bereziek hala eskaturik.

## II. KAPITULUA
## OFIZIOZKO LIKIDAZIO BEHIN-BEHINEKOA

### 75. artikulua.- Aplikazio kasuak.

**1.** Tributu Administrazioak ofiziozko likidazio behin-behinekoak egingo ditu subjektu pasiboak aurreko kapituluan ezarritako moduan Zerga autolikidatzeko beharra betetzen ez badu eta horretarako aitorpen-likidazioa aurkezteko deiari erantzuten ez dionean.

**2.** Ofiziozko likidazio behin-behinekoek subjektu pasiboak ordaindu beharra zuen zerga zorra zein zen zehaztuko dute eta, hala badagokio, zigor espedienteari hasiera emango zaio kasu horretan aplika daitekeen arautegiak xedatutakoaren arabera.

**76. artikulua.- Prozedura.**

**1.** Tributu Administrazioak subjektu pasiboari hark arauzko epean egin ez duen aitorpen-likidazioa aurkez zezan eskatzeko jakinarazpena egin eta hogeita hamar egun igaro ondoren, ofiziozko likidazio behin-behinekoa egiteko prozedurari ekin dakioke, epe horretan betekizuna kunplitzen ez badu edo betekizunik kunplitu beharrik ez duela egiaztatzen ez badu.

**2.** Ofiziozko likidazio behin-behinekoa Tributu Administrazioak dauzkan eta kasu horretan garrantzizkoak diren datu, aurrerakin, elementu, zeinu, indize edo moduluetan, Zerga honen erregimen erraztuan zenbait sektorerentzat ezarritakoetan bereziki, oinarri harturik egingo da.

**3.** Doakion subjektuari espedientearen berri emango zaio hark, hamar eguneko epe luzaezinekoan, bidezko iruditzen zaizkion alegazioak egin ditzan.

**4.** Ofiziozko likidazio behin-behinekoa subjektu pasiboaren alegazioak hartu ondoren edo izapide hori egiteko epea amaitu eta gero egingo da.

**5.** Ebazpena espedienteari erantsiko zaio eta interesatuei jakinaraziko zaie hamar eguneko epean hura ematen den egunetik kontaturik.

**77. artikulua.- Ofiziozko likidazio behin-behinekoaren ondorioak.**

**1.** Ofiziozko likidazio behin-behinekoak berehalaxe exekutatu ahal izango dira, haien aurka indarrean dagoen legediak adierazitakoaren arabera aurkeztu daitezkeen murtziloen kaltetan gabe.

**2.** Kapitulu honetan esandakoaren kaltetan gabe, Administrazioak subjektu pasiboen zerga egoera zein den egiazta dezake geroenean eta egin beharreko gertatzen diren likidazio behin-betikoak egin ditzake, Arabako Tributuei buruzko Foru Arau Orokorreko 117. kapitulu eta hurrengoetan xedatutakoari jarraiki.

## III. KAPITULUA
## ELKARTE BARRUKO ERAGIKETEN AITORPEN LABURPENEZKOA (1) (2)

**78. artikulua.- (34) Laburpen aitorpena.**

Enpresaburuek eta profesionalek Batasunaren barruan egiten dituzten ondasun emate eta eskuraketei eta jasotzen eta egiten dituzten zerbitzuei buruzko laburpen aitorpena aurkeztu behar dute kapitulu honetan adierazitako moduan.

**79. artikulua.- (34) (46) Laburpen aitorpena aurkeztu beharra.**

**1.** Enpresaburuek eta profesionalek laburpen aitorpena aurkezteko betebeharra dute, nahiz eta izaera hori zergaren arauaren 5. artikuluko laugarren apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz eduki, baldin eta honako eragiketa hauetakoren bat egiten badute ere:

1. Beste estatu kide batera egiten diren ondasun emateak, zergari buruzko foru arauaren 25. artikuluko lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren apartatuetan xedatutakoari jarraituz salbuetsita badaude.

   Eragiketa horietan sartuko dira Zergaren Arauaren 9. artikuluko 3. zenbakian jasotako ondasunen transferentziak eta, bereziki, Zergaren Arauaren 27. artikuluko 12. zenbakian xedatutakoaren arabera inportaziotik salbuetsita egon diren ondasunen ondorengo entregak.

   Zenbaki honetan aipatzen diren ondasun entregetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

   a) Zergaren Arauaren 5. artikuluko Bat apartatuko e) letrako pertsonek noizean behin egiten dituzten entregen garraiobide berriak xede dituztenak.

   b) Zergaren subjektu pasiboek egindakoak beste Europar Batasuneko beste estatu kideren batean zerga horretarako identifikazio zenbakirik eman esleituta ez duten hartzaileentzat.

2. Europar Batasunaren barruko ondasun eskurapenak, zergari lotuak eta zerga aplikatuko den lurraldean zerga horretarako identifikazio zenbakia duten pertsonek edo entitateek eginak.

   Eragiketa horien barruan sartuko dira beste estatu kide batetik egindako eta Zergaren Arauaren 16. artikuluaren 2. zenbakiak aipatutako ondasun eskualdaketen eragiketak, eta, zehazki, aldez aurretik beste estatu kide batean inportatu diren ondasunen Batasunaren barruko eskurapenak, baldin eta inportazio hori zergatik salbuetsita egon bada Zergaren Arauaren 27. artikuluaren 12. apartatuan xedatutakoen baldintza berdintsuetan.

3. Europar Batasunaren barruko zerbitzu emateak.

   Arautegi honen ondorioetarako, ondorengo baldintzak biltzen dituzten zerbitzu emateak jotzen dira Europar Batasunaren barruko zerbitzuematetzat:

   a) Haiei aplikatzen zaizkien kokapen arauen arabera, zerga aplikatzen den lurraldean emantzat ez jotzea.

   b) Beste estatu kide batean zergari lotuta eta salbuetsi gabe egotea.

   c) Haien hartzailea enpresaburu edo profesional bat izatea, halako gisa diharduena, eta haren jarduera ekonomikoaren egoitza estatu kide horretan errotuta izatea edo bertan establezimendu iraunkor bat izatea edo, bestela, bere ohiko egoitza edo bizilekua izatea, edo hartzaile hori enpresaburu edo profesional gisa ez diharduen

baina zergaren ondorioetarako estatu kide horrek emandako identifikazio zenbaki bat esleituta daukan pertsona juridiko bat izatea.

d) Subjektu pasiboa hartzaile hori izatea.

4. (50) Europar Batasunaren barruko zerbitzu eskurapenak.

   Arautegi honen ondorioetarako, Europar Batasunaren barruko zerbitzu eskurapentzat hartuko dira zergaren aplikazio lurraldean zergari lotuta eta salbuetsi gabe dauden zerbitzu emateak, baina zerbitzu hori ematen duen enpresaburuaren edo profesionalaren jarduera ekonomikoaren edo establezimendu iraunkorraren egoitza eta hortik eman da zerbitzua, edo, behar denean, ohiko helbide edo bizilekua, Batasunaren barruan egon arren zergaren aplikazio lurraldetik kanpo badago, eta subjektu pasiboa hartzailea bada.

5. Zergaren arauaren 26. artikuluaren hirugarren apartatuan aipatzen diren Europar Batasunaren barruko ondasun eskurapenen osteko ondasun emateak, Espainiako Zerga Administrazioak balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako esleitu duen identifikazio zenbakia erabiliz beste estatu kide batek eginak.

**2.** Halaber, laburpen aitorpena aurkeztera behartuta dago beste estatu kide batera ondasunak igortzen edo garraiatzen dituen saltzailea, zergaren arauaren 9 bis artikuluan aipatzen den kontsigna bidezko ondasun salmentari buruzko akordio baten esparruan.

**80. artikulua.- (34) Laburpen aitorpenaren edukia.**

**1.** Eragiketak laburbiltzeko aitorpenean informazio hau adierazi behar da:

1. Ondasunen hornitzaileen eta eskuratzaileen eta zerbitzugileen eta zerbitzu jasotzaileen identifikazio datuak, eta haietako bakoitzarekin egindako eragiketen guztirako zerga oinarria.

   Eragiketen kontraprestazioa euroa ez beste kontu unitate batean ezarri bada, eragiketen zerga oinarria eurotan eman behar da, sortzapenaren eguna erreferentzia hartuta.

2. Zergari buruzko Arauko 9. artikuluko 3. idatz zatian eta 16. artikuluko 2. idatz zatian azaltzen diren ondasun transferentzien kasuetan, subjektu pasiboak Batasuneko beste estatuan daukan identifikazio zenbakia jarri behar da aitorpenean.

3. (50) Araudi honetako 79. artikuluaren 1. apartatuaren 5. zenbakian aipatzen diren eragiketen ondoko emateak bereizita agertu behar dira, datu hauek adierazita:

   a) Enpresaburuak edo profesionalak eragiketa horiek egiteko erabiltzen duen identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

b) Bidalketa edo garraioa iritsi den estatu kideak esleitutako identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, hurrengo entregaren eskuratzaileak emandakoa.

c) Subjektu pasiboak ondasunen bidalketa edo garraioa iristen den estatu kidean egindako entregen zenbateko osoa, hartzailebakoitzari dagokiona.

4. (46) Kontsigna bidezko ondasun salmentari buruzko akordio batean (zergaren arauaren 9 bis artikuluan aipatzen da) jasota dauden ondasunak bidaltzen direnean, saltzaileak hauek adierazi behar ditu:

a)Ondasunen hartzaile izango den enpresario edo profesionalaren balio erantsiaren gaineko zergarako identifikazio zenbakia, ondasunak igorri edo garraiatuko diren estatu kideak emana.

b)Kontsigna bidezko ondasun salmentari buruzko akordio baten esparruan, hasiera batean ondasunen hartzailea zen enpresaburua edo profesionala ordezkatzen duen enpresaburuaren edo profesionalaren (zergaren arauaren 9 bis artikuluan, hirugarren apartatuan, bigarren paragrafoan, a´) letran aipatzen da) identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Kontsigna bidezko ondasun salmentari buruzko akordio baten esparruan beste estatu kide batera igorri edo garraiatu diren ondasunen hasierako balio zenb.

**2.** (46) Laburpen aitorpenean jasota daude datuak zuzendu egin behar dira zergaren arauaren 80. artikuluak adierazitako egoeren ondorioz akatsak egin edo aldaketak egon badira.

Aurreko apartatuaren 4 zenbakian aurreikusitako kasuan, saltzaileak aurkeztu duen informazioan izan den aldaketa oro jakinarazi beharko du.

**3.** (46) Eragiketak sortu diren aitorpen aldiko laburpen aitorpenean adierazi behar dira.

Aurreko 1. apartatuko 4. zenbakiaren kasuan, aipatutako informazioa laburpen aitorpen hauetan adieraziko da:

- Ondasunak igorri edo garraiatu ziren datari dagokion aitorpen aldikoan, a) letran adierazitako egoeran;

- Arautegi honetako 66.2 B) artikuluaren a) letran aipatzen den erregistro liburuan honako hauek idatzi diren aitorpen aldikoan: kontsigna bidezko ondasun salmentari buruzko akordio baten esparruan hasiera batean ondasunen hartzaile ziren enpresaburu edo profesionalak ordezkatzen dituzten enpresaburu edo profesionalaren identifikazio datuak, b) letran adierazitako egoeretan.

Aurreko 2. apartatuko lehen paragrafoan aipatzen diren egoeretan, ondasunen edo zerbitzuen hartzaileari jakinarazpena egin zaion aitorpen aldiko laburpen aitorpenean adieraziko dira zuzenketak."

**81. artikulua.- (35) Eragiketak laburbiltzeko aitorpena aurkezteko tokia, modua eta epealdiak.**

**1.** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du non eta nola (zein eredutan) aurkeztu behar den laburpen aitorpena.

**2.** Aitorpeneko aldia eta eragiketen laburpen aitorpena aurkezteko epealdiak ondoko hauek izango dira:

1. Oro har, egutegiko hil bateko eragiketei buruzko laburpen aitorpena hurrengo hileko egutegiko lehen hogeita bost egunetan aurkeztu behar da, uztailekoa izan ezik: hau abuztuan eta iraileko egutegiko lehen hamar egunetan aurkeztu ahal izango da.

2. Ez erreferentziako hiruhilekoan, ez egutegiko aurreko lau hiruhilekoetan, laburpen aitorpenean agertu beharreko ondasun emateen eta Batasunaren barruan egindako zerbitzuen guztirako zenbateko metatua 50.000 euro baino gehiago ez bada (Balio Erantsiaren gaineko Zerga zenbatu gabe), eragiketei buruzko laburpen aitorpena hiruhilekoaren ondoko hileko egutegiko lehen hogeita bost egunetan aurkeztu behar da.

Baldin eta egutegiko hiruhileko bateko hil batean aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa gainditzen bada, egutegiko hiruhileko horren hasieratik egindako eragiketei buruzko laburpen aitorpena aurkeztu behar da egutegiko ondoko hogeita bost egunetan.

**3.** (49) Artikulu honen 2. paragrafoan aipatutako kasu guztietan, urteko azken aldiari dagokion laburpen aitorpena urtarrilean aurkeztu beharko da.

**4.** (46)

**5.** (46)

### III bis KAPITULUA (50)
### Ordainketa zerbitzuen hornitzaileek izandako erregistroei buruzko aitorpena

**81 bis artikulua. (50) Ordainketa zerbitzuen hornitzaileek izandako erregistroei buruzko aitorpena aurkezteko betebeharra, epea, modua eta eredua.**

**1.** Zergaren Arauaren 166 quater artikuluan aipatzen diren ordainketa zerbitzuen hornitzaileek artikulu horretan aurreikusitakoaren arabera mantendu behar dituzten erregistroei buruzko aitorpena aurkeztu beharko dute.

**2.** Aitorpen hori dagokion hiruhileko naturalaren hurrengo hilabetea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da.

**3.** Aitorpen hori Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak onartzen duen moduan eta ereduan aurkeztuko da.

## IV. KAPITULUA
## ORDEZKARI FISKALA

**82. artikulua.- (21) Zergaren aplikazio lurraldean bizi ez diren subjektu pasiboen betebeharrak.**

**1.** (23) (47) Zergaren Arauaren 164. Bat.7 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta hurrengo 3. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dauden subjektu pasiboek lurralde horretan egoitza duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu eta jakinarazi beharko diote zerga administrazioari, zergapeko eragiketak egin aurretik, arau horretan eta erregelamendu horretan ezarritako betebeharrak betetzeari dagokionez haien ordezkari izan dadin.

Betebehar hori ez zaie aplikatuko Kanarietan, Ceutan edo Melillan, Batasuneko beste estatu kide batean edo Batasunean eratutakoen antzeko elkarrekiko laguntza tresnak dituen estatu batean finkatuta dauden subjektu pasiboei, ez eta Zergaren Arauaren IX. tituluko XI. kapituluan araututako urrutiko salmentei eta ondasunen barne emate eta zerbitzu emate jakin batzueiaplikatzekoak zaizkien araubide bereziei heltzen dieten subjektu pasiboei ere.

**2.** Zergaren aplikazio lurraldean egoitza ez duten subjektu pasiboek ez dute Arautegi bereko 164. artikuluak xedatutako betebehar formalak bete beharko, baldin Zergaren Arautegiko 23. eta 24. artikuluetan jasotako eta zergatik salbuetsitako eragiketak bakarrik egiten badituzte.

**3.** (34) (50) Artikulu honetan xedatutakoak ez du eragozten Zergaren Arauaren 119 bis artikuluaren Bat zenbakiaren 1. atalean ezartzen dena.

## V. KAPITULUA
## ARAU HAUSTE ARINAK

**83. artikulua.- Baliokidetasun errekargoaren erregimenaz baliatzen diren subjektu pasiboak.**

Baliokidetasun errekargoaren erregimen bereziaz baliatzen diren subjektu pasiboek egoitza fiskala Araban baldin badute, Zergaren Arauaren 170. artikuluko bigarren atalaren 1. zenbakian azaldutako arau hauste arinik ez dute egingo baldin eta agindu horretan aipatzen den jakinarazpena egin eta Arabako Foru Aldundian idatziz aurkezten badute.

**XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehenengo Xedapen Gehigarria.- Zenbatespen objetiboari uko egitearen ezeztapena.**

Abenduaren 30eko 1.096/1992 Araugintzazko Foru Dekretuak ezarritakoaren bat etorririk, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiak, abenduaren 29ko 1.624/1992 Erret Dekretuaren bidez onetsitakoak, duen Lehenengo Xedapen Gehigarria Araban aplika daitekeela adierazten da han zehazten diren ondorio eta edukinekin eta ezeztapena egiteko epeari dagozkion. aldaketa egokiekin.

**Bigarren Xedapen Gehigarria.- Baliokidetasun errekargoaren erregimen berezia duten txikizkako merkatariei egin beharreko itzulketak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren mota laburtuen arautegi berriaren ondorioz.**

**1.** Baliokidetasun errekarguaren erregimen berezia duten Zergaren subjektu pasiboek 1992ko abenduaren 31n Arauaren arabera tributua mota laburtuan ordaindu behar duten ondasunen azken esistentziak baldin badituzte, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta ondasunen eskuraketan jasandako errekargoaren eta ondasun horien emateei aplika dakizkiekeenen arteko aldea itzul diezaieten eska dezakete 1993ko urtarrilaren 1etik aurrera honako baldintzok betez gero:

1.a Subjektu pasiboek 1992ko abenduaren 31n zituzten ondasunen zerrenda egingo dute.

2.a Zerrendan agertzen diren ondasunen eskuraketa 1992 urtea baino lehen egin denean, ondasun horiek zergadunak beste urte horietan egindako ondasun zerrendetan ere agertzen direla egiaztatu beharko du.

3.a Itzulketa egiteko motibo diren ondasun zerrendaratuak direla-eta, haiek eskuratzerakoan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta baliokidetasun errekargoaren eragina jasan zela egiaztatu beharko da.

**2.** Horrela finkatutako itzulketaren zenbatekotik kenduko da subjektu pasiboak ondasunak eskuratu zituenean jasan zuen Balio Erantsiaren gaineko Zerga edo baliokidetasun errekarguaren eta, 1992ko abenduaren 31n dituen azken esistentzietako ondasun horien Zerga edo errekargua 1993an handituz gero, ordaindu beharko lukeenaren arteko aldea.

**3.** Xedapen gehigarri honetan aipatzen den eskabidea Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean hauxe argitaratzen den egunetik kontaturik hilabeteko epean egin beharko da.

**4.** Xedapen honetan aurrikusten diren itzulketak egiteko orduan, Tributu Administrazioak baimena eman dezake itzulketarako talde espedienteak izapidetzeko, eskabideen ezaugarriek horrela egitea aholkatzen dutenean.

**5.** Itzulketa behin-behinekoa izango da, egin ondoren Tributu Ikuskaritzak egiaztatu eta aztertu ahal izango baitu.

**Hirugarren Xedapen Gehigarria.- Aitorpen aldiak.**

Tributuen arauetan 1985eko abenduaren 10eko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 172. artikuluari buruz dauden erreferentziak 1993ko urtarrilaren 1etik aurrera haren 71. artikuluari egin zaizkiola ulertuko da.

**Laugarren Xedapen Gehigarria.- (20) Indarrean jarraitzen duen xedapena.**

Ondoren aipatzen den xedapenak indarrean jarraituko du:

Otsailaren 19ko 116/1991 Foru Dekretua, zeinaren bidez Europako Espazio Agentziari Balio Erantsiaren gaineko Zergan salbuespen batzuk egiten baitzaizkio.

Aurreko xedapena betetzeko egin behar diren itzulketa eskabideak hiru hileko natural bakoitzean jasandako kuotei buruzkoak izango dira eta dagokion epea amaitu ondorengo sei hilabetetan aurkeztu beharko zaizkio Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari.

**Bosgarren Xedapen Gehigarria.- (42) Nahitaezko betearazte prozedura administratibo eta judizialak.**

Balio erantsiaren gaineko zergaren arauaren seigarren xedapen gehigarriak adierazten dituen nahitaezko betearazte prozedura administratibo eta judizialetan, enpresaburu edo profesionalak diren esleipendunek eskumena dute, subjektu pasiboaren izenean eta kontura, prozedura horietan egiten diren zergapeko ondasunak entrega izanaren edo prestazioak eskaini izanaren faktura egiteko, bai eta, hala behar denean, foru arau horren 20. artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusten diren salbuespenei uko egiteko ere. Era berean, ahalmena dute egiten den faktura horretan zergaren kuota jasanarazteko, dagokion aitorpen-likidazioa aurkezteko eta emaitza den zergaren zenbatekoa ordaintzeko, salbu eta ondasun entregen eta zerbitzu eskaintzeen subjektu pasiboa hartzailean denean, Balio erantsiaren gaineko Arauaren 84. Bat.2.a artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Horrelako prozeduretan honako arauak izango dira aplikagarri:

1. Esleipendunak idatziz jakinaraziko dio kasuan kasuko prozedura garatzen ari den epaile edo administrazio organoari ahalmen horiek baliatzen ari dela, esleipenaren zenbatekoa ordaindu aurretik edo aldi berean.

Jakinarazpen horretan jasoko dira, hala dagokionean, arautegi honen 8. artikuluan higiezinen eragiketen salbuespenari uko egiteko ezartzen dituen baldintzak bete direla eta uko hori egiten duela.

Esleipenduna behartuta egongo da eragiketa horri edo bere ordezkariei dagokien zergaren subjektu pasiboei jakinaraztera ahalmen horiek baliatu dituela. Horretarako, epaile edo administrazio organoari aurkeztutako jakinarazpenaren kopia bidaliko dio,

aipatutako organoaren aurrean aurkezpen hori egiten denetik zazpi eguneko epean. Bidalketa hori ez da nahitaezkoa izango ondasun entregen eta zerbitzu eskaintzeetan esleipenduna horien subjektu pasiboa denean, zergaren arauaren 84. Bat.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Esleipendunak ahalmen hori baliatzearen ondorioz, subjektu pasiboak edo bere ordezkariek ezin izango dute, ez Balio erantsiaren gaineko zergaren Arauaren 20. artikuluko bigarren idatz zatian aurreikusitako salbuespenei uko egin, ez eragiketa hori dokumentatzen duen fakturarik egin, ez eragiketa hori bere aitorpen-likidazioetan sartu, ez sortutako zerga ordaindu.

2. Eragiketa dokumentaturik duen fakturaren jaulkipena maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak, fakturazio betebeharrak xedatzen dituen arautegia onartzen duenak, 11. artikuluan adierazitako epean egingo da, eta sortzapen epetzat esleipen dekretuak agintzen duena hartuko da.

Esleipendunak faktura hori egingo du, eta egin beharreko ondasunen edo zerbitzuen titular den subjektu pasiboa jaulkitzaile gisa ageriko da bertan, eta, esleipenduna, eragiketaren hartzaile gisa.

Faktura horiek zenbaki serie berezia izango dute.

Esleipendunak zergaren subjektu pasiboari edo bere ordezkariei fakturaren kopia bat bidaliko dio jaulki ondorengo zazpi eguneko epean, eta fakturaren jatorrizkoa esleipendunaren eskuan geratuko da.

3. Esleipendunak eragiketaren aitorpena eta emaitza den kuotaren ordainketa egingo du, aldizkakoa ez den aitorpen-likidazioa, arautegi honetako 71. artikuluko 8. paragrafoan arautzen direnetakoa, aurkeztuta.

Esleipendunak zergaren subjektu pasiboari edo bere ordezkariei egindako ordainketaren balioespena jasota duen aitorpen-likidazioaren kopia bat bidaliko dio, ordainketa egin ondorengo zazpi eguneko epean, eta fakturaren jatorrizkoa esleipendunaren eskuan geratuko da.

Aurrekoa ez da aplikatuko ondasun entregen eta zerbitzu prestazioak eskaintzeetan esleipenduna horien subjektu pasiboa denean, zergaren arauaren 84. Bat.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

4. Esleipendunari egotzi ezin dakiokeen arrazoiren batengatik subjektu pasiboari edo haren ordezkariei ezin zaienean bidali aurreko 1., 2. eta 3. arauek aipatutako ahalmenak baliatzearen jakinarazpena edo fakturaren edo aitorpen-likidazioaren kopia, agiri horiek Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaizkio, ezintasun hori dagoela jakiten den unetik 7 eguneko epean, egoera hori adierazita.

**Seigarren xedapen gehigarria.- (21) Administrazioak egindako eragiketen ordainagatik sortutako eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako tasa eta prezioak kudeatzeko betebeharra.**

**1.** Zergadunek edo zergadunen ordezkoek bai eta, zerbitzu edo jarduera publiko baten titularraren edo emakidadunaren kontura, borondatezko aldian, legez, zerbitzu edo jarduera publiko horien ordaina diren tasak edo prezioak biltzera behartuta daudenek ere honako betebeharrak izango dituzte eragiketa Balio Erantsiaren gaineko Zergari loturik dagoenean:

a) Eragiketa hori zergapetzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa eskatzea tasaren zergadunari edo zerbitzu edo jarduera horren erabiltzaileari edo hartzaileari.

b) (41) Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 88. artikuluan jasotako faktura egitea, subjektu pasiboaren izenean eta kontura. Betebehar hori fakturazioko betebeharren arautegian xedatutakoaren arabera beteko da. Hala ere, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak formula erraztuak baimendu ahal izango ditu betebehar hori betetzeko.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboari aurreko a) letran xedatutakoa aplikatuz jasotako zenbatekoa ordaintzea, dagokion tasaren edo prezioaren sarrerarako ezarrita dauden modu eta epe beretan.

**2.** Aurreko idatz zatian xedatutako kasuetan, zerbitzuaren edo jardueraren erabiltzaileak edo hartzaileak behartuta daude dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eskualdatzea jasatera, idatz zati horretan ezarritako baldintzetan.

**Zazpigarren xedapen gehigarria. (42) Arau aipamenak.**

Arau honetan "Elkartea" eta "Europako Elkartea" aipatzen direnean, testua "Batasunaz" ari dela pentsatu behar da; "Europako Elkarteak" eta "CEE" aipatzen direnean, testua "Europar Batasunaz" ari dela pentsatu behar da; "Elkarteaz" egiten diren aipamen guztiak "Batasunaz" egintzat jo behar dira."

**XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehenengo Aldibaterako Xedapena.- 1993. urtea baino lehen egindako ondasun emateak.**

Araudi honetako 81. artikuluko 3. atalaren 2. zenbakian adierazitakoaren ondorioetarako, 1992an eta jomuga beste estatu kideak izanda egin ziren ondasun esportazioak zergaren ondorioetatik salbuetsita daudela ulertuko da 1993ko ekitaldian.

**Bigarren Aldibaterako Xedapena.- Urtarrilaren 7ko 3/1986 Foru Dekretuari buruzko erreferentziak.**

Araudi honetan urtarrilaren 7ko 3/1986 Foru Dekretuari buruz (zeinen bidez enpresari eta profesionariek fakturak egin eta emateko duten beharra arautzen den) egiten diren erreferentziak ulertuko dira abenduaren 30eko 1.096/1992 Araugintzazko Foru Dekretuak adierazitakoaren eragin eta ondorioetarako eta, Lurralde Historiko honetako aginpidedun Erakundeek hartu beharreko zerga neurriak hartu aurretik, abenduaren 18ko 2.402/1985 Erret Dekretua (zeinen bidez, enpresari eta profesionariei dagokienez, fakturak egin eta emateko beharra arautzen den) kontutan hartuz.

**Hirugarren xedapen iragankorra.- (43) 2017ko ekitaldirako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide erraztua eta araubide berezia aplikatzeko mugak.**

2017ko ekitaldirako, 36. artikuluko 1. idatz zatiko f) letran, eta b) letrako a) paragrafoan aipatutako 150.000 euroko neurria, baita 43. artikuluko 2. idatz zatiko b) eta c) letrak ere, 250.000 eurotan finkatuta geratu da.

**Laugarren xedapen iragankorra.- (43) 2018ko urtarrileko eta otsaileko lehen hamabostaldiko informazioa ematea.**

Araudi honetako 69.bis artikuluan ezarritakoa eta zergadunek kasuan kasuko informatika sistemak zuzen ezartzea ahalbidetzea gorabehera, 2018ko urtarrilean eta 2018ko otsailaren lehenengo hamabost egun naturaletan bukatuko diren informazioa hornitzeko epeak 2018ko otsailaren 20ra arte luzatu direla ulertuko da.

**INDARGABETZEKO XEDAPENA**

**Indargabetzeko Xedapena**

1993ko urtarrilaren aurrera indargabeturik gelditzen da 1985eko abenduaren 10eko Foru Dekretua (zeinen bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onesten zen) eta tributu hori arautzen duten bestelako arauak Foru Dekretu honetan esandakoaren kontra baldin badoaz.

**AZKEN XEDAPENA**

**Azken xedapena**

Foru Dekretu hau 1993ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

**DIPUTATU NAGUSIA:** Alberto Ansola Maiztegui.
**PROPOSAMENA EGIN DUEN DIPUTATUA:** Roberto San Ildefonso Izaguirre.

**OHARRAK**

(1) Ikusi 5/1993 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 30ekoa. (ALHAO, 87. zk., 93-8-4koa).

(2) Ikusi 559/1993 Foru Agindua, apirilaren 1ekoa. (ALHAO, 40. zk., 93-4-14koa) eta 1.208/1993 Foru Agindua, uztailaren 16koa. (ALHAO, 82. zk., 93-4-23koa).

(3)

(4)

(5) 70/1994 Foru Dekretua, urriaren 18koa. (ALHAO, 133. zk., 94-11-23koa).

(6)

(7) 47/1995 Foru Dekretua, apirilaren 4koa. (ALHAO, 52. zk., 95-5-5ekoa).

(8) 21/1996 Foru Dekretua, otsailaren 20koa. (ALHAO, 31. zk., 96-3-13koa).

(9)

(10)

(11) 63/1997 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa. (ALHAO, 85. zk., 97-7-30ekoa).

(12) 66/1997 Foru Dekretua, uztailaren 8koa. (ALHAO, 87. zk., 97-8-4koa).

(13) 18/1998 Foru Dekretua, martxoaren 17koa. (ALHAO, 37. zk., 98-3-27koa).

(14) 63/1999 Foru Dekretua, maiatzaren 11koa. (ALHAO, 58. zk., 99-5-24koa).

(15) Ikusi urtarrilaren 18ko 1/2000 Foru Dekretuko xedapen iragankor bakarra.
(ALHAO, 11. zk., 00-1-26koa).

(16) Ikusi 130/2000 Foru Dekretua, abenduaren 27koa.
(ALHAO, 149. zk., 00-12-29koa).

(17) Ikusi 4/2001 Foru Dekretua, urtarrilaren 23koa.
(ALHAO, 12. zk., 01-1-29koa).

(18) 3/2001 Foru Dekretua, urtarrilaren 23koa.
(ALHAO, 13. zk., 01-1-31koa).

(19) Ikusi 110/2001 Foru Dekretua, abenduaren 18koa.
(ALHAO, 148. zk., 01-12-26koa).

(20) 106/2001 Foru Dekretua, abenduaren 4koa.
(ALHAO, 150. zk., 01-12-31koa).

(21) 24/2004 Foru Dekretua, martxoaren 23koa.
(ALHAO, 45. zk., 04-4-21ekoa).

(22) 33/2004 Foru Dekretua, apirilaren 27koa.
(ALHAO, 53. zk., 04-5-12koa).

(23) 27/2005 Foru Dekretua, apirilaren 5ekoa.
(ALHAO, 46. zk., 05-4-22koa).

(24) Ikusi 1/2006 Foru Dekretua, urtarrilaren 24koa.
(ALHAO, 17. zk., 06-2-10ekoa).

(25) Ikusi 44/2007 Foru Dekretua, maiatzaren 8koa.
(ALHAO, 63. zk., 07-5-25ekoa).

(26) Ikusi 77/2007 Foru Dekretua, abenduaren 20koa.
(ALHAO, 1. zk., 08-1-2koa).

(27) 4/2008 Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa.
(ALHAO, 17. zk., 08-2-8koa).

(28) Ikusi urtarrilaren 22ko 4/2008 Foru Dekretuko azken xedapena.
(ALHAO, 17. zk., 08-2-8koa).

(29) Ikusi 105/2008 Foru Dekretua, abenduaren 16koa.
(ALHAO, 149. zk., 08-12-29koa).

(30) 12/2009 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa.
(ALHAO, 20. zk., 09-2-16koa).

(31) Ikusi otsailaren 10eko 12/2009 Foru Dekretuko xedapen gehigarriak eta iragankorrak.
(ALHAO, 20. zk., 09-2-16koa).

(32) 23/2009 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa.
(ALHAO, 34. zk., 09-3-20koa).

(33) Ikusi 8/2010 Foru Dekretua, martxoaren 2koa.
(ALHAO, 38. zk., 10-4-9koa).

(34) 13/2010 Foru Dekretua, apirilaren 13koa.
(ALHAO, 46. zk., 10-4-30ekoa).

(35) 20/2010 Foru Dekretua, maiatzaren 25ekoa.
(ALHAO, 61. zk., 10-6-4koa).

(36) 9/2011 Foru Dekretua, otsailaren 8koa.
(ALHAO, 21. zk., 11-2-18koa).

(37) Ikusi otsailaren 8ko 9/2011 Foru Dekretuko xedapen iragankor bakarra.
(ALHAO, 21. zk., 11-2-18koa).

(38) Ikusi otsailaren 8ko 9/2011 Foru Dekretuko azken xedapenetatik lehena.
(ALHAO, 21. zk., 11-2-18koa).

(39) Ikusi 79/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa.
(ALHAO, 3. zk., 12-1-9koa).

(40) Ikusi 47/2013 Foru Dekretua, abenduaren 17koa.
(ALHAO, 148. zk., 13-12-27koa).

(41) 1/2014 Foru Araua, urtarrilaren 21ekoa.
(ALHAO, 14. zk., 14-2-5ekoa).

(42) 53/2015 Foru Araua, irailaren 15ekoa.
(ALHAO, 113. zk., 15-9-25ekoa).

(43) 56/2017 Foru Dekretua, abenduaren 5ekoa.
(ALHAO, 141. zk., 17-12-13koa).

(44) 29/2018 Foru Araua, ekainaren 26koa.
(ALHAO, 77. zk., 18-07-4koa).

(45) 13/2019 Foru Araua, martxoaren 21ekoa.
(ALHAO, 38. zk., 19-03-29koa).

(46) 20/2020 Foru Dekretua, ekainaren 16koa.
(ALHAO, 71. zk., 20-06-26koa).

(47) 37/2021 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa.
(ALHAO, 87. zk., 21-08-4koa).

(48) 48/2021 Foru Dekretua, urriaren 5ekoa.
(ALHAO, 117. zk., 21-10-13koa).

(49) 2/2023 Foru Dekretua, urtarrilaren 24koa.
(ALHAO, 11. zk., 23-1-27koa).

(50) 7/2024 Foru Dekretua, maiatzaren 7koa.
(ALHAO, 55. zk., 24-5-17koa).